

ANTONIO ZAVALA



MENDARO
TXIRRISTAKA
BERTSOLARIA

1 JUN. 1976



MENDARO TXIRRISTAKA
Bertsolaria

AUSPOA LIBURUTEGIA
120-121-122

COLECCION AUSPOA

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 66 16 12 — Tolosa
(Guipúzcoa)**

ANTONIO ZAVALA

MENDARO TXIRRISTAKA
BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1974

© Auspoa Liburutegia - Tolosa (Guipúzcoa)
Inprimatzalle: IZARRA - Polígono 36 - Usúrbil (Guip.)
Depósito Legal 961/74
I. S. B. N. 84-7158-128-5
Diciembre - 1974

ARKIBIDEA

Mendaro Txirristaka bertsolaria: Eusebio Murgertza Azpiazu (1874-1955)	11
---	----

BERE BURUARI

Konfesio jenerala	25
(1950) "Bertsolari onak ikusten ditut..."	29
"Milla ta zortzi eun..."	37
"San Martin gloriosoaren egunian..." ...	44

GIZARTEKO GORA-BERAK

"Nerez Mendaro'n jaiua naiz ni..."	53
"Bestiengandik arrotzak..."	59
"Garisti salgai ditun..."	64
"Ez detelako kontzientzia lotsaz euki nai gordia..."	69
(1921) "...Aitortzera nua zer gertatzen dan..."	74
"Besteren ontasunik..."	80
(1925) "Kristo zerura iyo zanetik..." ...	89
(1924) "Ez zan leku arlotian..."	95
"Arkaitz azpiyan iturritxua..."	100
"Katuak miau eta..."	106
"Batere sorgiñ-bildurrik gabe..."	111
"Goiko mendian ontza kantari..."	116
"Alkarrengana gorrotu gabe..."	121

“Erruki alkar guri esanda...”	129
“Bestengatik gaizki montza...”	133
“Baratza on bat zan Euskalerriya...”	138
“Sasiak ia estali ditu...”	147
“Lurrikan samur-senduenian...”	153
“Gure kopetak izerdituta...”	157
“Saiatzen dira...”	167
“Emendik itzuli juan...”	174
“Festen ondorenian...”	178
“Merke daude alperrentzat...”	189
“Bertso berriak publikatzeko...”	194
“Mendaro'n jaiua naiz...”	202
“Ote, txillar, elorri...”	206
(1943) “Saski aundi bat ongi betia...”	213

DAMA-GALAIK, SENAR-EMAZTEAK, NESKA-MUTILZARRAK

Patxi Mokollo eta Juakiña Txelden	217
Neskazarrak (Xeledoni ta Joxepa Antoni)	224
Atsua ta aguria errietan	227
“Burutik orporaiño...”	232
“Iru edo lau bertso...”	235
Senar-emaztiak (Joxe Migel ta Kontxexi)	238
Neska gazteari	241
“Nuben Irungo plazan...”	245
Neskatxa gaztiak	249
“Joxepa Antoni, badezu garai...”	252
Mutil zarrak neska zarrari	255
Joxe eta Ana	260
“Ondarrabia deritzan zitudadian...”	266
“Ego-aizea pil-pil...”	273
“Orrazturik buruko...”	279
Patxi Motz eta Makaria	288
“Gau batian etxetik...” (Pello ta Juakiña)	291
“Poltsan nai ainbat dirua...”	296
“Lola, nik zure moduan...” (Pepe ta Lola)	299

“Zure jaioterria...” (Felipe ta Jeronima)	303
“Promesa eginta zure moduan...”	306
Neska-mutilzarrak (Pello ta Ana)	310

GURE ERRIA, GURE GIZONAK, GURE JOKUAK

“Kopeta altxata esan gentzake...”	317
“Euskal-erriaren alabantzan...”	323
“Iduritzen zait...”	328
Euzkotar buru argikuari	332
“Komeni zaigu erdera...”	337
“Makiña bat inbiri...”	341
Elkano’ri	346
Elkano	350
(1922) “Kristo zerura igo zanetik...” ...	357
(1927) “...Jesus maitia jaiotzen zenetik...” ...	363
“Gaizki naian ez det nik...”	366
(1926) “Arraunkalai-estropa...”	369
(1928) “Estropadak izandu...”	373
“Estroparak izandu...”	376
(1941) Aurtengo estropadak	380
(1946) Biba Oriol	383
“Nua fede onian...”	386
“Mendarotar bat egiña...”	390
“Iturriko ura bezin...”	394
(1950) “Amalau milla begira...”	398
(1952) “Adierazi nai nuke...”	402
“Urria illa ta egun amargarrenian...” ...	406
Gora Mateo de la Osal	410
Otxoa ta Uzkuadun	414
Biba Uzkuadun!	423
Paulino Uzkuadun’eri	428
(1945) “Gusto duanik bada...”	434
(1946) “Bertsuak txit komeni...”	439
“Iñori gorrotorik izan gabekua...”	443
(1950) “Ez beza iñork dudarik...”	446

MENDARO TXIRRISTAKA BERTSOLARIA

EUSEBIO MUGERTZA AZPIAZU
(1874 - 1955)

Mendaro Txirristaka bertsolaria, izengoiti onek berak dionez, Mendaro'n jaio zan, Barberokoa zeritzaion errotan, 1874'garren urteko Abenduaren 15'an, goizeko ordu bi t'erdietan (1).

Mendaro'k bi ballara ditu: bata, Azpilgoeta, ibaiaz ezker aldera, Motriko'ko partean; bestea Garagartza, ibaiaz eskubi aldera, Elgoibarko partean. Ontan, Garagartza'n alegia, jaio zan gure bertsolaria.

Aita, Azpilgoeta'koa zan. Pedro zuan izena. Gizon bikaña zalako, Pedro *Aundia* esaten zioten.

Ama, berriz, azpeitiarra zan ta Juana zeritzan. Gazte denboran, oso neskatxa polita izanik, *Klabeliña* deitzen zioten.

(1) Garazartza-Mendaro'ko 4'garren bataio-agiria, 65'garren orrian.

Aiton-amonak, aitaren aldetik: Frantzisko Mugertza ta Maria Arozena, Azpilgoeta'koak; amaren aldetik: Frantzisko Azpiazu ta Josefa Inazia Zubimendi, azpeitiarrak.

Eusebio gure bertsolaria-ta, amaika senide izan ziran: zortzi mutil ta iru neska. Mutilletatik, bat edo bi Ameriketara joan ziran eta bertan il. Besteak, berriz, emen bizitu ziran. Aien ondorengorik bada, gaur egunean ere, Mendaro'n-eta, Mugertza abizenarekin. Arreba bat moja joan zan.

Gure bertsolaria, Eusebio, senideetan gazteena zan; ta bera izan zan mundu ontatik azkena joan zana ere.

Oso famili elizkoia omen zan, ta mundu ontako bizimodurako ere ondotxo zegoana: errota ezik, okindegia ere bazuten; baita denda koxkor bat ere. Bañan danen bearra izango zan an ere, alako familia aurrera ateratzeko.

Jendeak, denda artatik, zernai gauza eramaten omen zuan, urte-bukaeran pagatzeko. Oitura alaxe izaten omen zan garai artan. Bañan gero, garaia elduta koan, batzuk pagatu gabe gelditzen omen ziran.

Eusebio, artean zazpi urte osatu gabe, Mendaro'ko San Agustin moja-komentuan meza-laguntzalle asi zan. Egunero joan bear, goizean goiz jeikita.

Onela dio berak, lenago erderaz ta gero euskeraz:

*Yo cacé un gavilán
cuando era monaguillo;
me decía el capellán:
"¡Eusebio, tú eres un pillo!"*

Ura zan Pedro Migel
Urruzuno jauna,
bertsuetan sermoia
egiten zuana.

Urruzuno jauna ez da edozein gure literaturan. Idazle aundia izan zan; ipuigille trebe ta ugaria. Bere lumak etzuan erdoirik ezagutu; ezta jairik artu ere. Orrezaz gañera, bertso eder askoren egillea degu.

Aren zenbait ipui ta bertsoekin, lau liburu osatu ditu *Auspoa*'k: liburutegi ontako 5, 47, 51 ta 114'garrenak. Ta lenagoztikan beste bat ere bada: *Urruzuno'tar P. M.'en ipuiak*, Iruña'n, 1930 urtean argitaratua.

Apaiz onek, Mendarok dionez, bertso-tan egiten zuan sermoia. Ta meza-laguntzallea ere, antxe bertso-zaletzen asi eta bere denbora guzirako bertsolari biurtu.

Bertsolariai bide askotatik etorri izan zaie bertso-zaletasuna: bertsolari-famili

edo erri batean sorturik; bertso-paperak irakurririk, sagardotegian edo plazan bertsoak entzunik, eta abar. Elizatik, ordea, bearbada ez da izango Mendaro besterik.

Bere bizitzako gorabera asko, Eusebiok bere bertsoetan esaten dizkigu. Antxe ikasiko ditu irakurleak. Emen berriro aitatzea, alperrikako lana litzake.

Bañan itz gutxitan zerbait esateko, lenengo, morroi bi urte egin zituan Mendaro'n bertako Irabaneta baserrian. Irabaneta ori, Kilimon iturriak erteten duaneko ondoan dago. Urrena, Naparroa'ko Irurzun'en, ola batean lan egin zuan. Andik Somorrostro'ra aldatu zan. Cuba'ko gerrara ere joan zan. Gero, errementaritzan ikasi zuan.

Oso ibil-zalea zan. Zenbat naziotara iritxi zan, berak bertso batean esaten du: Puerto Rico, Cuba, Alemania, Frantzia, Italia, Portugal, Afrika, Estados Unidos, Mejiko, Panama, Brasil, Uruguay, Chile, Arjentina, Patagonia. Bañan beste bertso batean Amerikako zazpi naziotan ibillia zala dio. Goiko zerrenda orretan, askoz geiago ateratzen dira.

Zartutakoan, onela esaten omen zuan:

—Bai, millonario askok baño mundu geiago ikusi det nik! Ez diot iñori inbiririk!

Geientxuen gustatu zitzaiona, Cuba izan omen zan. Gero, andik etorri ondoren, askotan kantatzen zituan ango kantak. Oietako bat, auxe:

*En el fondo de la mar nació la perla
y en el campo la violeta azul;
y por las noches las gotas del rocío
de mis ensueños, de mis ensueños, tú...*

Bañan Donostian egin zuan bere denborarik geiena. Ezkondu ere Donostian egin zan.

Andrea, Juana Iraregi Sansinenea zeritzan. Donostiarra zan; baita bere aita ere; Ulia'koa. Kontratista-edo zebillen. Liberala zan, ta gerratean il zan, emaztea aur egiteko utzirik.

Jaio zan aurre, Juana, Tolosa'ra eraman zuten ta bertan azi, amargarren urtera arte, Iurramendi baserrian, gaur Erruki-etxea dagoaneko ortan.

Eusebio ta Juanak, Donosti'ko Loiola'n ezagutu zuten alkar, erromeri-arratsalde batean. Eusebio maite-minduta gelditu zan. Dan-dana, Bilintxen bertsoetan bezela. Bañan oraingo ontan erremate oberrik izan zan: etzan neskatxaren ja-jairik edo ezezkorik izan.

1905 urteko Martxoaren lenbiziko egunean ezkondu ziran; Aingeru Guardako

egunean alegia. Arrezkero, jaiera aundia izan zion. Gauero errezatzen zion, ta «Aingeru Guardakoak lagunduko digu!» ta ala-moduzko esaerak noiznai irtetzen zitzaizkan aotik.

Iru alaba izan zituzten: Engrazia, Karmen ta Maria; semerik bat ere ez. Eusebiok pena piska bat bazuan orregatik: Mugertza abizena oso zabaldurik zegoa-la, bañan bere aldetik galtzera zijoala esaten zuan.

Alaba gazteena, Maria, oso neskatxa ederra, ogei ta bat urterekin il zan, 1930'an. Aitaren pena! Etzuan illik ikusi nai izan. Ta zenbait egunez, gela batean sarturik, andik atera nai ezik egon zan.

Bertso jartzeari noiz ekin zion ez dakigu. Bildu ditugun bertso-saillik zarrenak, 1920 urtekoak-edo dira.

Bat-batean kantatzeko, ez omen zuan ainbeste balio; paperetan jartzeko bai ordea. Erruz jarri zituan beintzat.

Euskeraz ez-ezik, erderaz ere jartzen zituan; baita euskera ta erdera alkarrekin nastuta ere.

Onenak, zer esanik ez, euskerazkoak dira. Auekin osatu degu liburu au. Beste danak alde bat utzi ditugu.

Mendaroren euskal bertsoak, lau ataletan banatu ditugu.

Lenengo atala: bere buruari jarri zizkion bertsoak. Garratz eta garbi egiten du bere aitorpena. Arrokeri gutxi dago bertso oietan.

Bigarrena, gizarteko goraberai jarritako bertsoak. Langille-nagusien eta pobre-aberatsen arazoak, oso barrena sartuak zituan Mendarok.

Irugarrena, dama-galai, senar-emazte ta neska-mutilzarrei buruz paratutako bertsoak. Txantxetan jarriak dira auek: bere umorea agertzeko eta parra eragitearren.

Garai artan, zenbaiten iritzirako beintzat, ausarta xamarrak, gazi xamarrak izango ziran bertso auetako batzuek. Bañan Eusebio Azkue'k bezela esan dezakegu guk ere:

ordurik ona egin dau
mundu zarrak bira...

Ta, ala, len gazi ziranak, gaur ondo gezaturik daude. Bañan, egia esateko, ez dakit zer izango dan: gauzak gezatu edo geok gazitu...

Laugarren atala: gure erria, gizonak, jokuak eta abar goraltzeko jarri zituan bertsoak. Auetan, Euskalerrinari zion maitetasuna erakusten du.

Bertso-paperaren goiko aldean, beti

edo geien-geienetan, *Mendaro Txirristaka* jartzen zuan; izki aundiz idatzi ere. Ez dakigu, izengoiti ori, berak bere buruari asmatua zan ala bestek erantsia. Bañan nabarmen dago gustokoa zuala; bestela ez baitzuan paperetan jarriko.

Izengoiti orren ondoren, batzutan beste *título* bat, beste izenburu bat jartzen zuan; gutxitan, ordea. Geienetan, bere izengoitia beste izenbururik gabe argitaratzen zituan paperak.

Berak jarritako izenbururik bazuan, ori bera utzi degu guk. Olakorik ez bazuan, lenengo bertsoaren asiera jarri degu izenburutzat.

Paperaren beko aldean, bere izena ta zuzenbidea idazten zituan: *Eusebio Mu-
guerza / Calbetón, 9, 3.º izq. / San Se-
bastián.*

Ori ezik, zenbait aldiz izen dotoreago-
rik ere ezartzen zuan: *Duque de Kili-
món... Conde de Mendaro...*

Kilimon, Mendaroko erreka ta iturri baten izena da. Ain zuzen, bere etxeko errotarriak, erreka orrek mugitzen zituan.

Irakurleak askotan ikusiko duanez, Mendarok etzeukan ukatzeko bere jaioterria.

Geienetan, bere azken urteetan bein-

tzat, Errenteriko Makazaga moldiztegian inprentatzen zituan bertsoak.

Bere bertso-sail batzuek, bein baño geiagotan argitaratu zituan Mendarok. Bañan beti ere zerbait aldatuaz: batzuetan, lengo zenbait bertso kendu ta berriak sartu; bestetan, bi sail artu, sail oietako bertsoak nastu ta paper berri bat atera.

Ori dala-ta, oso lan txarra izan degu argitaraldi guzien berri ematea. Nola edo ala, egiteko ori ere egin degu; bañan bildur gera ulertzen zail xamar gelditu ote dan.

Bertso-paperak maletatxo batean sartu ta erririk erri ibiltzen zan. Elgoibar'ko Jose Maria Etxaniz Urruzuno jaunak onela dio bere idaz-lan batean:

"Me acuerdo muy bien que en Elgoibar, los días de feria, su presencia era imprescindible. Podría haber más o menos gente. Podría llover o hacer buen tiempo. Podría coincidir el día con cualquier acontecimiento. Pero lo que no podía faltar edo D. Eusebio Muguerra, con sus geniales creaciones y excelente buen humor que nunca variaba". (2)

(2) Ikus: Mendaro. - Fiestas patronales de Santiago y Santa Ana, 1959.

Ta Elgoibar'ko feriagatik ezik, beste erri askorengatik ere gauza bera esan ditekete.

Kale-kantoi batean edo plazaren erdi-erdian, alki baten gañean-edo, zutik jarriko zan, eta andik kantari asi. Jende-mordoa berealaxe inguratuko zitzaion, ta parra egin gabe iñor gutxi geldituko zan.

Poliki saltzen zituan paperak, eta dirua ere ondotxo biltzen. Gipuzkoa guzia ezaguna zuan. Ia eriotzako egunera arte orrela ibilli zan. Orregatik, asko dira, gaur egunean ere, aretzaz oroitzen diranak.

Gerra ondoko urteetan, askotan entzuten zan arako kantu ura:

Quisiera ser alcalde
Donostiakoa...

Ori ere, Mendarorena da. Obeto esateko, doñua kanta zar batena: *Begiak farrez-farrez / biotza negarrez...* Itzak, alegia, gure Eusebiorenak.

1955 urtean, ezkonduko 50'garren urtea zuten; urrezko eztaiak, alegia. Onela esan zioten alabak aitari:

—Indianoen gradoan pasa bear degu egun ori, aita!

Ta, ala, Martxoaren lenengo egunean, guraso-alabak, fameli guzia alegia, Deba'ra joan ta ango ostaturik dotoreenean bazkaldu zuten. Arratsaldean Mendaro'ra joan ziran. Emengo illobak-eta bidera irten zitzaizkan. Eusebio, noski, pozez zorutzen ibilli zan.

Gizagajoak etzekian, ordea, munduari azken agurra egiten ari zitzaionik.

Andik egun batzuetara, Martxoaren 15'an, Pasai San Pedro'ra joan zan. Larogei urte zituan ta etxean egon zitekean patxara ederrean eta trankil. Bañan ura ez izan geldirik egoteko jaioa.

Beintzat, esan bezela, Pasai San Pedro'ra joan zan, ta iñork ez daki an zer gertatu zitzaion: edo bista galduxea zualako edo illunpeetan zebillelako, Jaungoikoak bakarrik daki nola, erori egin zan eta bertan geratu.

Len esan bezela, Aingeru Guardakoari jaiera aundia ziona zan, ta gauero errezatzen zion. Berak lagunduko al zion, ba, danok pasa bear degun ordu estu artan!

BERE BURUARI

KONFESIO JENERALA

Doñua: «*Ume eder bat...*»

- 1/ Zortzi seme ta iru alabak
ziran mundura ekarriak
nere gurasuak Pedro eta Juana,
zoriekuak biak;
panaderiya etxian eta
errotan iru arriyak,
astuak eta zaldi bikaña,
uztarriya eta beyak.

- 2/ Milla zortzireun irurogei ta
amalaugarren urtian,
ni naiz Mendaro'n jaio nitzana,
Garagartza'ko partian;
mutill koxkorra, urtiak zazpi
kunplitu gabe artian,
kapellanari meza laguntzen
nion konbentu batian.

3/ Gorabera oi da bizi-moduan:
nitzan artua jatera,
Alfonso *doce* ill zan urtian,
morroi basarri batera;
amasei urte nituanian
Irurzun'go arkaitz-tartera,
soldata gabe an zan olara
ofiziyua ikastera.

4/ Arkaitz-tarteko pertz-olatxuan
ni aprendiz nitzanian,
bostetan asi eta gabeko
zortzirak arte lanian,
luju aundirik ez genduala
izaten jan-eranian;
aspertu eta gero ibilli
nitzan Somorrostro aldian.

5/ Ogi zuriya jaten oitua,
gero artua lizuiña,
auntza larrian oi dan bezela
ni ere aspertu, baiña
eskarmentua komeni zaio
duanari buru ariña;
ez det damurik baserri artan
bi urte morroi egiña. (1)

(1) Gure iritzirako, bertso onek irugarrena bear luke.

6/ Urtiak ogei nituanian
konseju oneri algara,
nere aita triste, ama negarrez,
nitzan Cuba'ko gerrara;
gosiak eta alkandorik ez,
zorriz betia gerrera,
ez nitzan mutill bikaña etorri
Kilimon errekaldera.

7/ Alperkeriya dala meriyo
zabarkeriya guztia,
iduritzen zait ez izan arren
asko beziñ ilustria,
dudarik gabe, nai badezute
ongi gero ikustia,
komeniko da seme-alaberi
lanian erakustia.

8/ Amak aurrari amoriozko
bular-iraiñ samurtuak,
eta gañera dudarik gabe
dirala benetakuak;
erakutsiko dizka Jaunaren
legeko mandamentuak,
baratzan ere ezagun oi du
landare ongi jorratuak.

- 9/ Errukarriya izanagatik
anparatzeko iñor ez,
kulpik etzuan semea ill da
ama gaxua negarrez;
jueza dala pekatariya
kastigatzeko bildurrez,
ez da izango Euskalerrriyan
pakean bizitzen errez.
- 10/ Oñez ikasi ta beriel
gaiztakeriyan ikasi,
emezortzi urte dituanian
lanian iñork ezin ezi,
zintzo saiatzen diranak baño
obeki naiko du bizi;
orrelakuari esan bear zaio
ez duala ogirik merezi.
- 11/ Seta gaiztuan sinistu nai ez
Jaun guzi ona iñor danik,
konseju onari gaizki erantzun
eta nai ez egiñ lanik;
iduritzen zait ni bezelako
beste askori antzemanik:
oker ibilli nai degunontzat
ez dala bide zuzenik.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga./Rentería», To-
losa'ko Periko Elosegi'rengandik.

(1950)

«BERTSOLARI ONAK IKUSTEN DITUT»

Doñua: «*Ume eder bat...*»

- 1/ Bertsolari onak ikusten ditut
festara dijuazela,
nere biotzak opa diote
ondo bizi ditezela;
ni ere orretan saiatu eta
aberastua naizela,
testamentua nua egitera
Txirritak zuan bezela. (1)

- 2/ Batzuek Karlos, bestiak Alfonso,
okasiyua genduan,
Mendaro'n jaio nitzan errota
zartxo batean onduan;
urtiak irurogei ta amabost
igaro ditut munduan, (2)
suerte ona, Jaunari eskerrak,
det nere bizi-moduan.

(1) Txirritak, bere azkeneko urteetan, liburuxo bat argitaratu zuan, *Txirritaren Testamentua* izenarekin.

(2) Bertso auek, 75 urte zituala, jarri bazituan, eta bera 1874/XII/15'an jaioa zan ezkerero, jarri-aldi au, or goien ipiñi degun bezela, 1950 urtekoa izango da.

- 3/ Borondate onian askori
mesere egindakuak
nere guraso Pedro eta Juana,
biak zorionekuak;
zortzi seme ta iru arreba
mundura ekarritakuak,
ni bakarrikan bizi naiz oraiñ,
ill ziran gaiñerakuak.
- 4/ Lanian ezi nai gurasuak,
biar kontuak atera,
etxian ogi zuria salgai
ta ni artua jatera,
errege Alfonso ill zan urtian, (3)
morroi toki apartera,
soldata gabe errekaldeko
basarri zartxo batera. (4)
- 5/ Burni-bidean goizian-goiz ekiñ
ta illundu arte lanian,
aukera onik ez genduala
izaten jan-eranian;
nagusi zanak jornalikan ez
miñ artzen genduanian;
ofiziua ikastera urtiak
amasei urte nituanian.

(3) Alfonso XII erregea 1885 urtean il zan.

(4) Mendaro'ko Irabaneta baserria.

6/ Ama negarrez, aita errietan,
erotua nitzan galdera,
ta nik erantzun arrokeriyan:
«Nua Cuba'ko gerrara!»
Gosiak eta zorriya ugari,
errukarriya ibillera,
ez nintzan mutill bikaiña etorri
Kilimon errekaldera.

7/ Zazpi nazio Ameriketan
dira ibilli naizenak,
an ere asko, emen bezela,
adar gabeko zezenak;
konseju onak izanagatik
Redentore Jesusenak,
oker ibilli nai degunontzat
alperrik bire zuzenak.

8/ Ebanjeliuak esaten du,
iñork dudarik ez dezan:
«Erruki zazute alkar» esanda
Jesus gurutzian ill zan;
konseju on ori arrazgeroztik
duten jauneri eleizan
obe degula guziok entzun,
da ill arte goguan izan.

- 9/ Guziok ondo bizi nai baiña
ez dudarikan iduki
dala pleitua sekulan ere
ezingo dana erabaki;
zerekin izan da errukarria
ez duanari erruki,
Aita San Pedrok zeruko atia
ez dio naiko iriki.
- 10/ Kontu, gurasuak, aurrari, ez dezan
zabarkeriyan ikasi,
gerta lezake ez dakiala
ogiya nola irabazi;
zintzo saiatzen diranak bañon
obeto naiko du bizi,
azkenerako ibilli biar
txapel-okarren igasi.
- 11/ Badakizute askok dutela
erosua bizi-maiña:
buruko illiak orraztu eta
soñekua txit apaiña,
jan eta eran obenetikan,
ezertan saiatu ez baiña;
galdetzen det nik merezi al duten
langille zintzuak aiña.

12/ Nik esaten det nere aita Pedro
zanari entzundakua:
guziak oiñez ibilli biar
bizi-modu antziñakua;
zori onian Euskal-Erriyan
lenbizi egindakua
da Irun'dikan Altsasu'raiño
burni-bide Nortekua.

13/ Oiala merke zutela orduan
usariyuak txit onak,
neska zarrak bezela gaztiak
luziak soñian gonak;
ezkon-berritan oierakuan
andriak eta gizonak
fede onian oraziyua
eta kirieleisonak.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Fernando Artola, «Bordari», Ondarrabia.

Paper ontako bertsoak eta onen aurrekoak,
Konfeso jenerala izenburua dutenak alegia, ber-
din xamarrak dira esakizunetan.

Bein baño geiagotan argitara-arazi zituan Men-
daro'k, ta beti Errenteria'ko Makazaga'renean
argitaratu ere.

Paper oien aldaketa guziak emen jartzea, nas-
te aundia litzake. Orregatik, bertso berriak ja-
rriko ditugu bakarrik, aurreko bi paperetan ez
dauden bertsoak alegia; baita ere alde aundia
daukan bertso bat edo beste.

Orra oietako paper batean arkitu ditugunak,
bakoitza bere alboko zenbakiarekin:

- 3/ Nitzalako ni bigurriyena
 anai-arreben tartian,
 mutill koxkorra, urtiak zazpi
 osatu gabe artian,
 oietik jeiki, *tiririnkintiñ*
 monjak ixkilla jotzian,
 kapellanari meza lagundu
 konbentu zartxo batian.
- 8/ Arrokeriyan jaki onenak
 bezela erari goxua,
 indi-oillarra bezin dotore
 soiñeko piñ lujosua;
 zintzo saiatu nai duanari
 jartzen badio arasua,
 oraziyuak egiñagatik
 ez da relijiosua.
- 13/ Alkate jaunak larogei ta amar
 ditu Diputaziyuak,
 zori onian bizi gaitezen
 izan gabe okasiyuak;
 gure izkuntza dala euskera,
 jatorrak usariyuak,
 atarramentu onik sekulan
 ez dute ostentaziyuak.

* * *

Ona, beste paper batetik, beste lau bertso:

- 1/ Bertsuak erderaz bezela euskeraz
 jarri almena detela,
 erririk-erri abestutzeko
 nere mingaña ez totela;

badakizute lanteri orretan
aberastua naizela,
testamentua nua egitera
Txirritak zuan bezela.

- 6/ Soldata gabe Naparrua'ko
pertz-olara nitzanian,
Betelu'kua gizon garratza
erakusle aldamenian;
bostetan ekin, zortzirak arte
saiatu biar lanian;
aspertu eta nitzan Bilbao'ra
iritxi oñez igandian.
- 9/ Zorionekuak dira mesede
askori egindakuak,
meza laguntzen nion kapellan
jauna zan bezelakuak;
merezi arren esker onik ez
zentzugabeko kaikuak,
borondate ona duanari kentzen
diote orrelakuak.
- 11/ Iruripen bat onikan ez duala
txikitan gaizki oitua,
konseju oneri gaizki erantzun,
biotzian gorrotua;
guraso aurrak dituzutenak,
garaiz atera kontua:
baratzan ere ezagun oi da
landare ondo jorratua.

* * *

Ta beste paper batean onako bertso auek:

- 1/ Nere iritziz bizi-moduan
komeni arren erdera,
antziñakuak zuten bezela,
emen jaiuak bagera,
birau zakar bat ere gabea
garbi-garbia euskera,
maite dezagun, maitagarria
dalako gure izkera.

- 2/ Dira euskal festa ikusgarriyak
usariyo antziñakuak,
gizon pizkorrak pelotariyak
iñun ez bezelakuak;
soñu-jotzalle ta bertsolari
txit umore onekuak,
dantzari alai diruritenak
txori udaberrikuak.

- 9/ Garisti gauzak orain bezela
dirua urri zanian,
aukera onik ez genduala
izaten jan-edanian;
goiz ekiñ da illundu arte
saiatu biar lanian,
alibiyorik iñundikan ez
elbarritzen giñanian.

- 11/ Orduan ere sasoi eruan
zutela dibersiyua,
dantzari alai neska politak
obia estimaziyua;
akerra baiño kasketaguak
mutillak okasiyua,
orain panpantxo konpontzen dira,
obia okasiyua.

«MILLA TA ZORTZI EUN...»

Doñua: *Betroiaren bertsuak bezela*

- 1/ Milla ta zortzi eun
oiez gain artian
irurogei t'amalau-
garren urtian,
Abenduak amabost,
goiz-alde tristian,
jaio nintzan Mendaro'n
errota batian,
lengo gerratian,
arbolen tartian,
leku politian;
ôindaño artian
pauso txarrak emana
nere kaltian.

2/ San Agustin deritzan
mojen konbentuan,
sei urte monagillo
egin nituan;
binajerak dotore
garbitzen nituan,
ardo goxua edaten
nintzaden oituan;
arrazkerokuan
laiñeza gaiztuan
nabil pekatuan;
ez daukat goguan
ain gutxi zenbat mozkor
artu ditudan.

3/ Jator aitortuko det,
lotsatzen naiz baiña:
naiz ôindaño pekatu
asko egiña;
nigana izan arren
biotza biguiña,
gurasuengandikan
gazterik aldeña;
sosegau eziña,
burutik ariña,
naiz bide berdiña
oker jaurti oiña;
ez diot iñori opa
orlako griña.

4/ Bear ez dan moduan
dantzatu mingaiña,
beata neska-zarrak
guziak aiña;
falso testimoniua
agoko lurruiña,
nere bizi guzian
ibilli naiz, baiña
guzien ordaiña
nai det sendakiña:
ein zazu alegiña,
Zeruko Erregiña,
kentzia biotzian
daukaten miña!

5/ Nere gustora juan
nitzaden morrontzâ,
an beti kargapian
nere gorputza;
arkume tripoxtuak
bezelako motza,
gaiñera ematen nun
zerrikume errautsa;
naiz ez umezurtza,
baiñan medra-kaitza;
deiturik soldautzâ
taillarik ez librantza;
erriko neskak burlaz
ta nik irrintza.

6/ Mendiyan ikazgiñan
ibilli izandu naiz,
talua eta baba
janaz bi aldiz;
birigarruak *txirt-txirt*
deitzian jeki goiz,
Aitaren eginda ekin,
txabolara illargiz;
ta kamaiña berriz
txillar, garo t'almitz,
betiak txingurriz
ta arkakusu gorriz,
mantan ordez oiekin
gorputza estaliz.

7/ Urte milla zortzi eun
noventa y cincuan,
oñetiar baten ordez
soldau nintzan juan;
isla de Puerto Rico
ango ospitaltxuan
euki ninduten iltzat
ni deposituan
obserbaziuan;
il bear ez nuan
eta gero Cuba'n
gerrillero gerran
iru urte ta erdi
egin nituan.

8/ Alemania ta Frantzia'n
eta Ingalterra'n,
Italia, Portugal
eta Aprika'n,
los Estados Unidos
Norte-Amerika'n,
Mejiko ta Panama,
Brasil ta Uruguay'an
aitua lanian;
Chile ta Arjentina'n
baita ere parrandan;
ta Patagonia'n
Kuterkobe deitzeien
mina batian.

9/ Onelako gauzarik
ez nuan pentsatzen:
paraje guzietan
nitzan ibiltzen,
beste ezer egin gabe,
neskak kortejatzen;
batek arpegira ôin
ez dit begiratzen;
illia eroitzen,
bizarra zuritzen,
gerriyak okertzen,
indarrak urritzen,
belarriak gortu ta
bista laburtzen.

10/ Gariyari kendurik
zaia ta birriña,
ta ogiya egiteko
zuri mamiña;
baiña derrior biar
dana leamiña,
umientzat bezela
Kristoren dotriña;
askok deseña,
ez onak bagiña;
orra esamiña,
len nedukan baiña
kontzientzia beltza
eta zikiña.

11/ Zazpi eiten du zaku
egur-ikatzak,
Donostia'n bizitzen
daude lan gaitzak;
sukaldian surik ez,
lapikuak utsak,
katua umiekin
iya il da otzak;
eta etxe-bizitzak
billatzen ekaitzak,
ate oien giltzak
jabiak arrotzak;
ni bildurtzen nau oien
kopeta beltzak.

12/ Aditzalle maitiak
nai-zutet aitortu,
atentzios aituta
goguan artu:
nagusiyak lanetik
nindun despatxatu,
arrazoi zun da iñor
ez deilla errukitu;
asko nau barkatu,
ezin nei ukatu,
ain gutxi asarratu,
naiz tripa zimurtu;
gosiak nunbait zerbait
ezin topatu!

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Donostia'ko Gregorio Mujika zanaren bertso-bildumatik.

«SAN MARTIN GLORIOSOAREN
EGUNIAN...»

- 1/ San Martin glorioso-
aren egunian,
arratsaldeko lau ta
erdiak aldian,
Sekundino Esnaola
deritzan kalia,
aroztegira josten dan
eskail barrenian,
erorita miñ artu
nuan belaunian.
- 2/ Enkargutxo bat nuan
izandu goizetik,
bialiya ezagun
batek Uizi'tik,
galdetzera ote zeguan
nai zuan gauzatik. (1)
Juan nitzan da erori;
lagunak besotik
altxa ninduan, baña
ezin egon zutik.

(1) Bertso-paperak: nai zun gauzatik.

- 3/ Aldamenian lagun
guarda bat rurala,
aulkiyan iserita
otzak nenguala,
nere txanda iritxi
etzan beriala;
ikusirikan anka
autsiya nuala,
galdera egin ziaten
noiz, nun eta nola.
- 4/ Sekundino Esnaola
deritzan kalera
juana mesere ordaiñ
izan det galera;
txirrist eta erori
eskalletan bera
nitzan zilipurdika
bodega illunera;
orreatatik ekarri
naute ospitalera.
- 5/ Txoko illun batian
tximist-argitxuak,
plakatxuan agertu
ziran grabatuak
nere belauneko ezur (2)
bi elbarrituak;
ta konpondu, izanik
abillak eskuak,
don Luis Aiestaran
deitzan medikuak.

(2) Bertso-paperak: nere belauneko ez.

- 6/ Gero bere morroiak
mai batera jaso,
ta, eskultore batek
bezin kurioso,
gutxieneko zaku
erdi bat igelso
jarri ziratenian,
anka gozo-gozo;
bañan berialaxen
gogortu zan oso.
- 7/ Milla esker zor dizkat
zualako alegiñ,
Sor Felipa txintxua
genduanari erregiñ;
sartu ninduen sala
alai eta garbiñ,
oie txuri arruan
luma beziñ ariñ,
anka estu lotua
ezur eta mamiñ.
- 8/ Laister samar kalmatu
arren oñaziak,
ziran ogei ta amalau
gau ta egun luziak;
trapu eta igeltsu,
lokarri guziak
kendu zizkidanian,
Jaunari graziak
pozik eman nizkion
ongi mereziak.

9/ Igarri ere gabe
juanak banaka,
urte astunak dia
sei bidar amaika;
bat gutxiagorekin
ni nabill errenka,
makilla lagun, jaso
eziñik indarka
autsiya belaunetik
eskubiko anka.

10/ *La pierna el practicante
cuando me enderezó,
me dijo sonriendo:
«No es nada eso;
sufiría más Pepito
con su divieso.»
Le contesté: «Si hubiera
salido ileso,
no me hubieran cargado
con tanto yeso.»*

11/ Katarata-gandua
ezkerreko begiñ
izanik, itxutua
nik nuan aspaldiñ;
operaziua dit
Bidaur jaunak egiñ;
premiyan bada iñor
lenbailen juan dediñ,
número nueve'n bizi
da Calle Hernani'ñ.

- 12/ Pobrientzako zori
onian egiña
da San Antonioren
etxe sendakiña;
danon gustua egiten
ez da errez, baña
ezin lezake gaizki
dantzatu mingaña,
jatorriz ortarako
ez duanak griña.
- 13/ Etxe sendakiñetan
daudenak kuidatzen,
gañera txukun gauza
guziak garbitzen,
saiatuagatikan
ordañak billatzen,
gure arrebatxuak
dira distingitzen;
ori gezurra danik
etzait iduritzen.
- 14/ Gaur jaio danak ere
il bear du aurki;
bitartian munduan
nola egingo dan arki,
gure Jaun da Jabiak
bakarrikan daki;
esaten degu alkar
izateko erruki,
pake santuan bizi
gaitezen obeki.

15/ Goraberak izan oi
 dia bizi-moduan,
 aukera danak iñork
 ez ditu munduan;
 ilusio geiegi
 duanak buruan,
 kontrariyuak laister
 ditu inguruan;
 konseju au guziok
 dezagun goguan.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga», Elgoibar'ko
 Jose Maria Etxaniz Urruzuno'ren eskutik.

* * *

Beste aldi batez ere argitaratu zituan Errenteri'ko Makazaga moldiztegiak bertso aukerak. Danak ez ordea. Danetara amairu bertso; aurreko papelean daudenak, bederatzi bertso: 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10 ta 12'garrena, oarretan jarriko ditugun aldatetakin; berriak, berriz, onoko lau bertso aukerak:

Erori ta miña artu nuan belaunian;
 andre sudur-gorri bat nere aldamenian,
 galdezka deskuidatu nitzan eranian;
 ta nik erantzun nion umore onian:
 «Zure senarran gisa, *txin-txin* dedanian!»

Anka trapuz josiya, len ainbat oñaze;
 andre sudur-gorriyak esan zidan eze:
 «Mozkortuta eroriko ziñan iñolaz e!»
 Nik umore onian erantzun berriz e:
 «Ixillik ezin egon zera, mingain-luze?»

Izanik adiskire neriak bisita,
igande-arratsaldian dotorez jantzita,
zazpi platano berde dendan erosita,
esan zian: «Guzia dezu merezita,
biotza banatutzen zait orla ikusita.»

Urte astun oiekiñ daduzkat gerriyak,
ankatxuaren gisa, erdi elbarriyak;
ortzik eta agiñik ez, gortu belarriyak,
illiak banakatzen, lausotu begiyak;
juan ziran gaztetako nere arrokeriyak!

* * *

Aurreko paperean dauden bertsoen aldaketak:
2/5: galdetzero zeguan; 4/1: Arratsaldian juana;
4/2: Pinares kalera; 4/6: bodega illunera; 4/8:
eskalletan bera; 4/9-10: tristia zan orduko nere
ibillera.

5/ Kuarto illun batian tximist-argitxuak,
izanik ain jatorrak oaingo adelantuak,
dituztenak sendakin edo medikuak,
plakatxuan agertu ziran grabatuak
nere belauneko ezur bi elbarrituak.

6/1: Zikiro baten gisa; 6/3: eskultore on ba-
tek;

7/ Sartu ninduen sala alai eta garbiñ,
oie txuri arruan luma beziñ ariñ;
anka estu lotua ezur eta mamiñ,
piska bat muitzian artzen nuala miñ,
begiyak itxi arren ezin lorik egiñ.

8/1: Pixkatxo bat kalmatu; 8/3: ziran berrogei
ta bi; 8/5-6: trapu eta lokarri ta igelso guziak;
9/5: irutan ogei ta sei; 9/6: nabill oiñ errenka.

GIZARTEKO GORA-BERAK

«NEREZ MENDARO'N JAIUA NAIZ NI»

1/ Nerez Mendaro'n jaiua naiz ni,
Eusebio det izena,
Donostia'ko ziudadian
aspaldi bizi naizena,
makiñatxo bat txorakeritan
ibilli izandu naizena,
txikitan ongi aitu ez nulako
apaiz jaun baten esana. (1)

2/ Gazte askorik ikasi nuan
mendian egiten ikatza,
egunian bi aldiz jaten genduan
talua eta baba beltza;
aiek leguntzeko usatzen gendun
urturik zerrian gantza;
udara-aldia bukatutzian
egiten gendun kobrantza.

(1) Seguru aski, D. Pedro Migel Urruzuno
jauna izango zan.

3/ Milla zortzireun irurogei ta
amaseitikan onera (2)
Euskal-erriyan makiñatxo bat
kontu ikusi izan dira;
beltzak orduan jabe egin ziran
autsirik lengo bandera,
lege berriak gaizki artuta
geienak erotu gera.

4/ Denbora baten soldauzkarikan
euskaldunentzako etzan,
milla zortzireun irurogei ta
amazazpiyan jarri zan;
gizon batzuek saldu giñuzten
arkume batzuen gisan,
gure aitonen dotriña aztuta
orra orain nola gabiltzan.

5/ Euskal-erria dana artu du
sastraka eta sasiak,
badakit nola zabaldu diran
landare oien aziak;
zori gaiztuan indartu dira
aspaldi beren sustraiak,
Jaun zerukuak salba gaitzala
pakia nai degun guziak.

(2) Fueroak galdu ziraneko urtea.

- 6/ Usai gozoko loriak dira
larrosa ta krabeliñak,
beren tartian azaltzen dira
kardu latzak eta osiñak;
kristandadian zori gaiztuan
danok ez gera berdiñak,
gerra guztiak ekartze'izkigu
alkar ikusi eziñak.
- 7/ Asko jakiñak generala uste ta
ezertxo're ez dakigunak,
subien gisa zitaldu gaitu
maisuru txar askon esanak;
bire zuzen bat bakarrik dago,
Jesusek jarri ziguna,
aditu zagun biotzetikan
beren ministruen esana.
- 8/ Danok igual bizi izatia
eziñ egingo da gertatu,
txarrak eta onak mundu ontan
egin generalako sortu;
Jaun zerukuak gauzak txit ongi
egin zituban negurtu,
berez zabarrak geran guziak
biar genduke aitortu.

9/ Pobre ta aberats, lana egitia
komeni zaigu danontzat,
konseju ona badakit ez dana
egin nai ez dun askontzat;
aukera onikan ez da izango
alper edo nagientzat;
gezurra bada barka nazute,
ez det gorrotorik iñontzat.

10/ Oingo konturik etzan izaten
ni gaztia nintzanian:
birigarruak diana jotzian
asten giñaden lanian,
gure taria bukatzen gendun
ondo illuntzen zunian,
ôingo gaztiak parre egiten dute
au aitzen digutenian.

11/ Begira nago leku askotan
zer egiten dan gertatu,
gogoratzian zer datorkigun
ni egiten naiz izutu:
seme-alabak aitan onduan
ez dutela nai saiatu,
negar gogorak guzientzako
orrek ekarriko ditu.

12/ Basarritarrak gogor ai dira
beren lekuan labrantzan,
itxasotarrak giro danian
saiatzen dira arrantzan;
kalian berriz ajolik gabe
zurrutian eta dantzan,
Jaun zerukua begira dago
guziok nola gabiltzan.

13/ Baserritarrak galtzen badute
lana egiteko gogua,
gari tartian sortuko zaio
kardu latza eta olua;
ferira maiz juan, lanak lagata,
egiñagatik girua,
modu orretan zintzotuko da
kaleko jende erua.

14/ Aspalditxuan ikusitzen det
projimo askoren fedia,
makiña batek lanik egin gabe
jaten du emen ogia;
beste gauzarik ez da ikusten
soñua ta alperkeria,
Donostia da Gipuzkoa'ko
axeri danen kabia.

15/ Artzai gaixuak aitortutzen du
zer egin zaion gertatu:
bere ardiak maite zitun da
pagotxera zitun oitu;
orain larrian orruaz dabiltz,
iñor ezin sosegatu,
errukarriyak ota tarteko
almitza ezin tragatu;
askori igual gertatzen zaigu
nai baldin badegu aitortu.

Bertso-papera, «Tolosa'ko Egillearenian» moldiztegian inprentatua, Ondarrua'ko Jose Maria Etxaburu'ren eskutik.

«BESTIENGANDIK ARROTZAK...»

Doñua: «*Antxen bizi naiz pakian*» (1)

1/ Bestiengandik arrotzak,
jarririk beren mototsak,
sei neskazar kaskamotzak;
afeitaturik beren kokota
eta arpegian autsak,
eta postizuak ortzak,
begiratuak zorrotzak,
topatu naian ordotsak.

2/ Lepotik bera katiak,
pulsera diamantiak
dituana brillantiak;
urre gorrizko erlojua ta
eraztun elegantiak,
ai, mirabetxo maitiak,
prenda oien errematiak
ekarri oi ditu kaltiak.

(1) Alegia: «Ikusten duzu goizean...»

- 3/ Sarritan gaizki egiña
oi da oien esamiña,
ezetz uste dute baiña;
zikindutzian berria erosi,
lengua zan beziñ piña,
trintxera edo gabardiña;
alkarri dioten griña,
esanaz: «Banaun i aiña!»
- 4/ Eskuan boltsa larruzkuak,
guante ta abanikuak,
ta oiñetan jantzitakuak
galtzerdi piñak eta zapata
dotorienetakuak,
kartoiakiñ eindakuak,
takoi orpuetakuak,
iru ontza ta erdikuak.
- 5/ Pausuak eman desberdiñ
ta ipurdiari eragiñ,
ez da oiekin atsegiñ;
deabruari erregututzen
diote agertu dediñ
galaia duana *diñ-diñ*;
lana bai edo ez egiñ,
danak jazten dira berdiñ.

- 6/ Kontseju onak utzirik
eta txarrerri eutsirik
dabiltz eder iritzirik;
burutik bera soñeko lasai
labur-laburak jantzirik,
zankuak erakutsirik,
autsez paparra igurtzirik,
ez kurpiñu ta ez kortserik.
- 7/ Oien amona gajuak
egiten dizkaten ujuak,
eman naian kontsejuak:
«Zuen ondoren dabiltzan oiek,
altuen gisa bajuak,
iduri arren majuak,
ez badira arrak juak,
lautatik bi marrajuak.»
- 8/ Egin menospreziua
dutenari juiziua,
neskazarren leziua;
egin biarrak jatorduetan
laburra erreziua,
aundia ostentaziua
eta murmuraziua,
etsaian tentaziua.

9/ Bada mutill langillia,
beti zintzo ibillia,
artzen dakite illia;
obe luteke orlakuekin
esposatuko balia,
gero artu gabe alia,
bestek bildua jalia,
ta gezur esan zalia.

10/ Asko gaude arriturikan
ain dotore jantzirikan
ez egiñarren lanikan;
esposatu nai eta galaia
txit aberatsa nairikan;
ez det uste oraindikan
guzientzat daguanikan
orlako portunarikan.

11/ Gurasuak ondo azi
ta lanian ezin ezi,
baizik beti orren igasi;
erri aundira etorri eta
gauza on asko ikusi,
txarrak geiago ikasi,
gero gaizki biar bizi;
ori, al dute merezi?

12/ Zartzara ez degu nai ta
gaztetasunaren gaita,
esanaz «Oin da garai ta!»
Baña laugarren mandamentuan
kontsejua ona baita,
guziok zintzo jarraitu,
ama bezelaxen aita
gurasuak ondo maita.

13/ Eleizara juatiak
ta oien esana egitiak
ez ditu ekarri oi kaltiak;
baizik txokorik txoko ibilli
naian dotore jaztiak,
esanaz: «Kongregantiak
gera obedienciak!»
Ai zer komediantiak!

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, ba-
ñan, dudarik gabe, Errenteri-ko Makazaga-renean
egiña dagoana; Inozenzio Urkia, Portuene, Al-
zibar, Oiartzun.

«GARISTI SALGAI DITUN...»

1/ Garisti salgai ditun
gauz gazi eta gezak
Pepari erantzun dio
Maria Teresak:

«Alaz guziaz ere
kontatzen errezak
ditun, irien gisa,
nere interesak.»

2/ Erantzun dio Kontxa
duenak izena:

«Erosi nai baditun,
diñat almazena:
ogei ta iru pezetan
arrautzak dozena,
zerri argalarena
urdaia gizona.»

3/ «Iri komeni zaizkin
egiñak kukuak
Abenduan Erniyo'n,
gorringo bikuak;
piparrak Durango'tik
ekarritakuak,
ire sudur gorriya
bezin aundikuak.»

4/ «Sagar da udare oiek
ez ditun urtsuak;
nik ere bazekiñat,
zerate atsuak,
lagun dituzutela
neska zar antzuak,
birigarrua udaran
bezin berritsuak.»

5/ Denda txiki batian,
San Lorentzo kalen,
sardin zarrak bakoitza
iruna errialen,
iru xoxen ordain bi
salgai ziranak len,
Donostia'ko Bretxan
esan du Madalen.

6/ Zesareo Tankredo
da tabernerua:
azukrerikan gabe
ur zikin berua,
duro bateren ordaiñ
zigarro purua;
erosten duana da
ni bezin erua.

7/ Au da eziñ askatu
deguna liua:
arrautzen preziuan
libra oliua,
esanaz: «Gauzak dute
beren baliua!»
Ori da estraperlisten
ebanjeliua!

8/ Indi-ollarrak esan du
juan dan Abenduan:
«Kukuak arrautza egiñ
du nere onduan.»
Txantxangorriyak zion
erantzun orduan:
«Ez nuke ikusi nai
nere inguruan!»

9/ Naizenian alkate
Donostia'kua,
merke izango dezute
urdai azpikua,
baita ere ardi-gazta
Idiazabal'kua,
ogi txuri biguña
ta ardua naikua.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»;
Tolosa'ko Antonino Lakuntza zana. Zortzigarren
tokian erderazko bertso bat zekarren. Etzuan jar-
tzerik merezi.

* * *

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
au ere Tolosa'ko Antonino Lakuntza'ri jaso.

Onek, amar bertso ditu; oietatik bederatzi au-
rreko paperarenak. Ordena era ontan aldatuta:
1, 2, 5, 3, 4, 6, 7, 8, 9 garrena; zazpigarren to-
kian, aurreko paperak ez dakarren bertso bat.

Aldaketak: lenengo bertsoa:

«Uste al dute guziyok generala markesak?
Jakin bear luteke dirala interesak,
langille ona izan arren, kontatzen errezak.»
Donostia'ko Bretxan esan du Teresak.

2/1: Erantzun dio Pepa; 2/5: iruna duro or-
dein; 2/8: libra urdai gizona; 3/2: gorringo bi-
kuak; 3/4: egiñak kukuak; 3/5-6: pikuak ada-
rretik eroritakuak; 3/7: sugur; 4/1-2: Garisti
udariak ta ez dira urtsuak; 4/3: Kosmek eran-
tzun dio; 4/7: xoxuak Maiatzian.

- 5/1-8 Erosi dituala esan du Magdalen,
denda txiki batian, Larramendi kalen,
sardin zarra bakoitza iruna errialen,
amarna xentimuan salgai ziranak len.
- 6/1-4 Alaitzen du biotza, argitu burua,
kafian izenian maltetxo berua,...
- 7/ 1-8 Iru duroren ordain libra oliua,
esanaz «Gauzak dute beren baliua.»
Bukatuko litzake onlako liua,
ikasiko bagendu Ebanjeliua.

Ta aurreko paperak ez dakarrena:

Aguro bizarra eta illiak ebaki,
arlote jantziyari orraztu obeki,
dudarikan ez dezan duala erruki,
bederatzi errialien kontu erabaki.

«EZ DETELAKO KONTZIENTZIA
LOTSAZ EUKI NAI GORDIA...»

Doñua: *Azken juizioko kantena.*

- 1/ Ez detelako kontzientzia
lotsaz euki nai gordia,
baizikan esan gazteri oni
ez galdutzeko fedia,
zertarako dan mundu onetan
onenbeste banidadia,
zartzera eskatu biar badegu
Santa Miserikordia?

- 2/ Mutil koskorak mozkortu eta
zigarro purua erretzen,
Donosti ontan ikusten ditut
gizon zarrak insultatzen,
kargu artzia zeladoriak
ez dirala atrebitzen,
gurasuak eta jende dana
kontra zaizkalako jartzen.

3/ Politika da zerri argalak
gizendutzeko eskola;
pikaro asko nola dabiltzan
aspaldi dakit nik nola:
mendi-puntako arbolatxuei
eroritzen zaien orbela,
ego-aiziak udatzenian
ibiltzen duan bezela.

4/ *Que nos estamos degenerando*
mediante da alkoola,
y a pasos muy agigantados
askok notatzen ez degula;
tantos crímenes y tantos suicidios
ezin liteke bestela,
y tantísimo crío en Fraisoro
iñor ezagutzen ez dutela.

5/ Okasiuak n... jartzen ditun
bizi diranak... (1)
modu onetan erantzungo diet
egiten banaute galde,
nola ez naizen gerra-zalia,
baizik pakiaren alde:
kaleko kuku alperkumiak
jan nai dutela debalde.

(1) Papera puskatua dago ta ezin irakurri da
emen zer dion.

- 6/ Jaungoikuaren destinua munduan badegu danak, kontentu gaude dauzkagulako estudioko gizonak: mediku, apaiz eta injenieruak derrigor biar ditugunak, gezurra dala ez nau esango burutik sano dauanak.
- 7/ Injenieruak billatutzeko lurrari bere entrañak: kobre ta bronze, burni t'altzairu urtu ta egiteko makinak, urre-zillarrak diru egiteko eta diamante piñak, merezi gabe alper askori egiten dizkagun propinak.
- 8/ Estudio aundiko gizonak munduan izanagatik bat bakarrikan ez da gertatzen besteren bear ez danik: ez astronomo eta ez erregerik eta diplomatikorik, min duanian mediku jaun bat eskatutzen ez duanik.

- 9/ Baratzen lore ederren tartian
kardu latza ta osiña
bezela, danok nola ez degun
onak izateko griña,
orain aitortzen det, aspalditxuan
dudan egondu naiz baiña:
sazerdotiak bear dirala
erakusteko dotriña.
- 10/ Lenago dudan egon arren,
oraiñ txinistatzen det nik
ez dala izango teologorik
eta diplomatikorik,
mundu onetan bat bakarrik,
guri emango dizkigunik
Jesusen amar mandamentuak
bañon konseju oberik.
- 11/ Maixu batzuen dotriñakin
biotz onak zitalduta,
erari txarrak gazunak urtu (1)
eta kemenak aituta,
ogei ta lau urtera ordurako
bizi izaten aspertuta,
onez aurrera obra dezagun
obetuago pentsatuta.

(1) Bearbada, emen *garunak urtu* bear luke.

12/ Erua naizela nere errian
esaten ai omen dia,
milloi bana esker eskaintzen diet
errukitutzen badia;
ortaikoen batzuk ez izatia
gerta leike ordia
Kilimontxoko ura dan beziñ
kontzientzia garbia.

(1923)

Bertso-papera: «La Editorial Guipuzcoana. — Tolosa»; Antonio Ezponda, Lizantzin, Oiartzun.

Bertso bakoitzaren atzetik erdal itzulpena dator: onela dio egilleak: «Los números pares no son versos sino traducción del bascuence al castellano». Itzulpen oiek ez ditugu emen jartzen, azken bertsoarena izan ezik; onek zerbait geiago ere esaten baitu. Onela dio:

«Tengo un almacén grande de cosas para decir, pero comprendo que puedo ser mal profeta, pues en mi pueblo opinan que estoy loco; pero tal vez ignoren que somos más ricos que los tontos que tenemos palacio con jardín y médico; y los tontos sólo un privilegio tienen, y es que nadie puede explotar su talento, y a esos los cuerdos no insultan».

(1921)

«...AITORTZERA NUA
ZER GERTATZEN DAN...»

- 1/ Milla urte eta bederatzireun
ogeitabatgarrenian,
aitortzera nua zer gertatzen dan
gure Euskalerra maitian:
axeri asko sartu zaizkigu
gure ardiyen tartian,
zaitu deitzagun gure arkumiak
danak galdu ez deitian.

- 2/ Arrazoi gabe makiñatxo bat
egiten dira kejavu,
beren denporan lanian asko
ez diradenak nekatu;
ez dakite ondo projimo asko
nola egiten diran saiatu,
okasiyuak jartzen ai gabe
egon leitekez kontentu.

3/ Projimo asko ezagutzen ditut,
ez dute egin nai lanikan;
negar gogorak gauza orretzek
ekarriko dizkigu oraindikan;
zori gaiztuan askok biotzak
dauzkagu usteldurikan,
borondatia galdu ezkeru
ez dago gauza onikan.

4/ Denpora baten bañon obeki
orain danok gera bizi,
aitortzen det nik gauza batzuek
egin ditudalako ikusi;
bañan geiegi arrotu gera,
oraiñ iñor eziñ ezi;
gorputzak ondo jazten ditugu,
animak oso itxusi.

5/ Gazte askorik ikasi nuan
mendian egiten ikatza,
egunian bi aldiz jaten genduan
talua eta baba beltza;
aiek laguntzeko usatzen genduan
urturik zerrian gantza,
udara-aldia bukatutzian
egiten genduan kobrantza.

6/ Asko jakiñak gerala uste ta
ezertxo're ez dakigunak,
subien gisan zitaldu gaitu
maisu txar askon esanak;
bire zuzen bat bakarrik dago,
Jesusek jarri ziguna,
aditu zagun biotzetikan
bere ministruen esana. (1)

7/ Nai baldin badegu ondo ikasi
badauzkagu maisu onak,
beren izenak ez nua esatera,
beltzez jantzitzen diranak;
Jesukristoren dotrina guri
erakusteko daudenak,
oien bitartez mundu onetan
egiten dira gauza onak.

8/ Bere agonian aitortu zigun
zedukala egarria,
konsejua da guzientzako
izateko errukia;
zitalkerian ez ibiltzeko
galdurik gure fedia,
gure biotzak xamurtutzia
badaukagu premia.

(1) Bertso-paperak: beren.

9/ Jesus maitiak bere eriotzan
negarrez esan zigun itza,
erreza dala ustegatikan,
konprenditzen oso gaitza;
beste dotrinak ikasi eta
zitaldu zaigu biotza,
bere egarriak esan nai digu (2)
danori miserikordia.

10/ Konseju ori onenian
askok daukate goguan,
orregatikan gauza on asko
egiten dira munduan;
miserikordia orrek esan nai zun,
artu zazute goguan,
ortxen daukagu etxe santua
Loiolako onduan.

11/ Etxe ortara nor juaten diran
orain egingo det galdetu:
asko gaztetan alperkerian
egin ziradenak oitu,
beren gerriak batere lanian
ez dituztenak nekatu;
pozak txoratzen biar luteke egon
eta egiten dira kejavu.

(2) Bertso-paperak: digun.

- 12/ Beste batzuek ortxen dauzkagu
jator saiatu diranak:
lanik txarrenak egin dituzte
basarritar, pioi eta argiñak;
orra gizonak oso konforme
arrazoia daukatenak;
oiek dirade Kristoren dotrina
ondo ikasi zutenak.
- 13/ Etxe santu orretan badaduzkagu
fedea oneko enfermerak,
nazkatzen ez diranak garbitutzia
projimuaren karkaxak;
seme eta alabak nazkatzen gera
geradelako eskaxak,
Jesusen lllagak aztu zaizkigu
eta usteldu zaizkigu biotzak.
- 14/ Ez baditugu sendatu nai
gure projimuaren miñak,
alper-alperrik esango degu
gerala asko jakiñak;
nik egin ditut aspalditxuan
gauza batzuen esamiñak:
korputz eta anima salbatuko gaitu
Jesukristoren dotriñak.

15/ Projimo askok aitortzen dute
ero aundi bat naizena,
orain geiagok ezagutziagatik
aitortuko det izena:
gorroturikan mundu onetan
iñorentzat ez detena,
ni naiz Eusebio eta Mugertza,
Mendaron jaio nitzana;
agur danori, urren artian,
barkatu gaizki esanak.

Bertso-papera, «Imp. J. Díaz. — Irún», Erren-
teriko Enrike Elizetxea zanaren bertso-bilduma-
tik.

«BESTEREN ONTASUNIK...»

Doñua: *Betroiaren kantena.*

Sail ontako irugarren bertsoak, *guerra europea* deritzana aitatzten du; 1914-1918'ekoa alegia. Bañan Españaiko 1936'eko gerraren aitamenik ez dago bertso auetan; ezta mundu guztiko 1939'ekoarenik ere. Orregatik, guk uste, bitarte ortan jarriak izango dira: 1918 urtea ezkeroztik eta 1936 baño len.

Seigarren bertsoak dionez, libra bat legatzak iru pezeta t'erdi egiten du, ta dozena arrautzak ogei ta bat erreal. Gure gerra aurreko kontuak dira oiek ere.

Orrezaz gañera, bertso auek Irungo Díaz'enean inprentatu ziran. Ain zuzen, bere lenengo bertso-saillak, 1925 urtekoak-eta, ara eramán oi zituan Mendarok; gure gerra ondoren asi zan Errenteri'ko Makazaga'renean.

1/ Besteren ontasunik
ikusi eziña
kristandarian askok
daukagun griña;
kontzientzia berriz
beltza ta zikiña,
eta ezin ixilik
iduki mingaña;
Kristoren dotriña
dago desegiña,
ez onak bagiña;
egin det esamiña:
ni ere ez naiz pekatu
gutxi egiña.

2/ Tratante guziekiñ
zaiguna gertatzen,
egiya aitortzia
ez naiz lotsatzen:
ijituaren gisa
alkar dute artzen,
gauza txarrak garisti
dizkigute saltzen.
Zer dute pentsatzen?
Pixuan jostatzen,
bagera kejatzen,
gaituzte insultatzen;
lañeza ori etzaigu
asko gustatzen.

3/ Orduak altxa eta
jornala bajatu,
konforme al zeraten
nai det galdetu;
lengo *guerra europea*
arturik pretestu,
komerziante danak
gaizki dira oitu;
onemeste gastu
nork pagauko ditu?
Gauzarik merkatu,
ori ez txinistu;
aditzalle maitiak,
goguan artu.

4/ Ogetik jeki eta
lenbizi bañatu,
gero txokolatia
patxaran artu;
eta peinadoriak
illiak orraztu,
esne-zaliak beren
kamisak garbitu;
sarri konpesatu,
esatia aztu
egiteko aberastu
zenbat duten ostu;
orrela dabillenak
lotsarik eztu!

5/ Ogiya karu saldu,
merke artu iriña,
panadero jaun oiek
daukaten griña;
erdiak ez dakite
egiten lamiña,
bañan pixu-kontuan
badaukate maña;
suari tamaña
asmatu eziña,
azala ikatz eiña,
mamiya gordiña;
sarri izaten degu
tripako miña.

6/ Ez pentsatu dirala
Mendaro'n ametsak,
Donostia'n bizitzen
daude lan gaitzak:
iru pezeta t'erdi
libra bat legatzak,
oge ta bat errial
dozena arrautzak;
eta etxe-bizitzak
garisti ta gaitzak;
estomauak utsak,
emen gaude otzak;
zortzi pezeta eiten du
zaku-ikatzak.

7/ Merke artzen dizkate
basarritarreri,
ori gezurra danik
ez esan neri;
alper guziak burlaz
langille oneri,
Donosti'ko erriyan
badabill ugari;
egiya da ori,
txinistatu neri;
erriko jaunari
deitzen dizut zuri:
noizik eta beiñ kargu
artu daneri.

8/ *De todos los tratantes
kontzientzizkuak
son sin duda alguna
taberneruak;
nos venden muy barato
zigarro puruak:
a cuatro perras gordas
errialekuak;
dauzka estankuak
prezio fijuak,
selluakiñ juak,
gu gera tontuak;
por eso abusan tanto
bitartekuak.*

9/ Orra baserritarrak
eta arrantzaliak,
mantentzen dituztenak
alper guziak;
bakallauaren truke
emanaz kapoiak,
bestiak saltzalleri
txit merke arraiak;
langille umillak,
aulduak gosiak;
zer nolako itzaiak
gure agintariak!
Ez dauzkate buruak
ondo jantziak!

10/ Deitutzian jesteko
kajoi zakardunak,
orden au eman digu
alkate jaunak;
arrazoirik ez dula
esaten dutenak,
ez dauzkate sanuak
buruko garunak;
len askon zakurrak
bildutzen azurrak,
ta mutil koskorak
pipar-pote zarrak;
zikiñdutzen zituzten
kale ederrak.

11/ Zer gertatzen dan emen
etxeko errentekiñ,
aitortuko det, iñork
nai badu jakiñ:
bederatzi duroko
bizitza batekiñ
irurogei kobratu
bizi-lagunekiñ;
negozio orrekiñ
ez lanikan egiñ;
saiatzen danak piñ
iñun topatu eziñ;
jabiak ez du kulpik
gauza orrekiñ.

12/ Alper oiek jate'ituzte
gauzarik obenak:
urdai-azpiko, solomo
eta lukainkak,
ollasko eta kapoiak
eta arkumiak,
legatz eta langosta
eta tripiroiak,
eta barbariñak,
eta korrokoiak,
angula ta amorraiak,
eta izukiak...
Orregatik dauzkate
matraill guriak.

13/ Beren jazkera berriz
danetan piñena:
kanpotik kontrabando
ekartze'utena;
oiengatik alperrik
dago aduana,
berak nai bezelaxen
sartzen dute dana;
mingaña leguna,
gezurra laguna,
projimuangana
biotza zekena;
orla dabill munduan
tontua ez dana.

14/ Pobriak jaten ditugu
onelako gauzak:
babarrun da patata,
porru ta azak,
iri zarran birikak,
astuan txuletak,
Ulia'ko arroketan
bildutako lapak,
atunan tinpollak,
pinpiño perloiak,
txitxarro berdelak
eta potakarrak...
Orregatik dauzkagu
matraill igarrak.

15/ Iru atetikan bat
dauzkagu tabernak,
oientzako izaten dira
gure txanponak;
badira gau guzian
isten ez diranak;
sarri juntatzen gera
arropik onenak,
ibiltzen geranak
esnatzen lo daudenak,
lotsik ez degunak...
Bertso au erakutsi dit
nere andre Juanak.

Bertso-papera, «Imp. J. Díaz. – Irún»; Inozentzio Urkia, Portuene, Alzibar, Oiartzun.

(1925)

«KRISTO ZERURA IYO ZANETIK...»

Doñua: «*Andre Madalen...*»

Ama batek bere aurrari bularra ukatzea ta aurra besteri ematea azitzeko, etzuan Mendaro'k begi onez ikusten. Oitura orren kontrako iru bertso-sail jarri zituan. Onako au, bat; ta urrengo biak, besteak. Irurak gai bera dute; bañan ez daude era berean erabilliak. Orregatik, guziak jartzen ditugu.

1/ Kristo zerura iyo zanetik
onerako bitartian
igaro milla bederatzireun
oi ta bostgarren urtian,
bakar-bakarrik, bañan poz-giroz,
toki alai arlotian,
Astiasu'tik mendiz netorren
bidexior politian.

2/ Arri jarraitu iritxi nintzan,
etzait aztuko ill artian,
sagar da gaztain, piku, gerezi,
intxaur, aritzen tartian,
baserri-etxe zartxo politâ;
aren ataiko atian
zakurra isats-belarri-motza,
zaunkaz, lotua katian.

3/ Biorra irrintziz, astua arrantzaz,
zerri apua kurrinka,
bei zarrak marru, akerrak merru,
ardi zartxo bi orruka;
oillotxo kolka lau txitorekin,
oillarra kukurrukuka,
aur zai amona, bi katakume
gonatik txalapartaka.

4/ Aitona, sudurrarekin lurra
iya joan, okertua,
buruan ille zuri bakanak,
belarri biak gortua,
bere kemenak aitzen bezela
begi-bista laburtua,
gizarajua zintzo lanian
nekea pranko artua.

5/ Ta esan zidan: «Au naigabea!
Bi seme ditugu izandu,
biak soldadu eramán eta
giñuzen txanponak kendu,
indi-ollarrak bezin dotore
gañera geok apaindu;
azkeroztikan bildurrak gaude
biak ote diran galdu.

6/ Erle zintzuak lore-karrio
eztia egiteko bezela,
saiatzen ziran biltzen iñaurkin,
ote ta garo ta orbela;
gero ukulluan ondo usteldu
sendotzeko lur argala;
alperrentzako zekor ederrak
azten giñuzen orrela.

7/ Iñaurkin oiek orain mendian
alperrik daude usteltzen,
poz-giroz bildu nai dituztenak
okasiora bialtzen;
lenago nekez sendotutako
lurrak ai dira argaltzen,
tankera onetan gaitz izango da
oinbeste alper mantentzen.»

8/ Galdetu nion: «Ama al zera
aur txiki polit orrena?»
Berialaxen erdi negarrez
au da erantzun zirana:
«Aur onen ama, gure alaba,
Donostian da juana,
txantxangorrian gisa naio be
azten berea ez dana.»

9/ Galdetu nion: «Nor da alabak
azten ai dan aurrän ama?»
Erantzun zidan: «Gajua, ez berak
uste duan bezin ona;
goizero meza ikusi eta
sarri konpesatzen dana,
sedaz jantzita jokura eta
dantzara juaten dan dama.»

10/ Gañera zion: «Alaba iñude
ez genduan nai, bialdu,
maiztarrak gera ta etxe-jabiak
derrigorrian agindu,
bere adiskide bateri zorra
nai ziolako ordaindu.»
Galdetu nion: «Eta suiak
geroztik zer egiten du?»

11/ «Geroztik —zidan— emazte ordez
neskamia du ekarri,
ta esan zigun: Onez aurrera
etzerate errukarri.
Berialaxen egin zioten
amoriua alkarri,
gajuak badu bere soñian
makiñatxo bat lokarri.»

12/ Galdetu nion: «Neskame orrek
izena al du Madalen?
Iduritzen zait, ezagutu det
onera etorri baño len.»
Erantzun zidan: «Etxe-jabiak
badaki nola dabillen,
esaten digu Zizurkill'era
bialdutzeko lenbailen.

13/ Adiskidian aurrari inñude
zuben alaba bialdu,
etxe-nagusi pikaru orrek
batere lotsarik al du?
Eta suiak zer egingo zuan?
Norbaiteri biar eldu;
neska gajuak orregatikan
onra betiko du galdu.»

14/ Ta esan nion: «Jan eta edan
obenetikan nai aiña,
dotore jantzi eta dantzatu,
gezur kontari mingaiña,
aurrak eginda eman nai-ezik
beren bularren iraiña...
Oien fedea ez da jatorra,
baietz uste dute baiña.»

15/ —«Nuntarra zeran jakin nai degu»
galdetu zidan txit umil.
Erantzun nion biotz oneko
odola irakiten pil-pil:
«Mendaro'n jaio nintzala dira
berrogei t'amar apiril;
au naigabea: aita ta ama,
anai-arreba danak il!»

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Gregorio Mujika zanaren bertso-bildumatik.

(1924)

«EZ ZAN LEKU ARLOTIAN...»

Doñua: *Erari maitagarria'n* bertsuak bezela.

1/ Ez zan leku arlotian
baizik alai ta on batian,
Astigarrâ'ko partian,
sagar da gaztain, piku, gerezi
ta intxaur-arbolen tartian,
baserri-etxe politian;
zakurra ataiko atian,
zaunkaz, lotua katian.

2/ Soluak eta zelaiak
eztia eiteko erliak
lore biltzen estaliak;
eta armiarmak sariak eiten
arrapatzeko euliak;
langille erakusliak,
ez indi-ollar jaliak
bestek bilduak aliak.

- 3/ Ote, txillar da elorria
tartian, egin berria
odoldiz kabi dotoria;
estali eziñik egotxuekin
kuku alperak jarria
arrautza izugarria,
tristia errukarria,
zeguan txantxangorria.
- 4/ Zorrotz miztua agiria,
begiratua larria,
txinparta bezin oria,
almitz tartian len soiñian zun
larrua bota berria,
sube bat izugarria,
bereganatu nayia
egan zebillen txoria.
- 5/ Zalapartarak nabaitzen
eta inguratu nintzen
an zer ote zan gertatzen;
arbola aien adarrrik adar,
isats arruak astintzen,
esan zeikian jostatzen
txori-kabiak miatzen
katagorriyak zebiltzen.

6/ Bei adar-motza marruka,
auntza gosiak merruka,
ardi zartxo bat orruka;
astua arrantzaz, kurrink zerriyak,
txituak zaitutzen kolka
gabirauakin burruka,
eta usuak urruka,
oillar txoro bat kukurruka.

7/ Amonatxua kantari
aur txiki polit bateri,
besuan zedukanari;
aldamenian txalapartaka
bi katakume jostari;
aitona zarra zan ari
esnia kentzen auntzari
emateko aurtxoari.

8/ Galdetu nion: «Amona,
nor da ama aur orrena?»
Au da erantzun zidana:
«Txantxangorriyan gisa iñude
azten berea ez dana,
urrutiyan ez juana,
da derrior eramana
alaba guria, jauna.»

- 9/ Aitona erdi elbarriya,
ta zion: «Au desgraziya,
saiatuta ezin biziya!
Alabatxuak zori gaiztuan
ekarri zigun suya,
laiñez txarrak ikasiya,
«Nun da dema ta feriya?»
dabilen alper nagiya.»
- 10/ Eta galdetu nion nik,
beren itz danak entzunik:
«Ez al du egiten lanik?»
Erantzun zidan: «Ez, ta ain gutxi
uste det gogoratzen danik
aur au berea duanik;
ez nuan munduan zanik
uste orlako gizonik.
- 11/ Bi seme ditugu izandu,
zarrena etxetik bialdu,
etzigulako nai lagundu;
eta gaztia, txintxua ta ona,
eraman zuten soldadu;
geroztik ez da azaldu,
naiz txit dotore apaindu,
bildur gera ote dan galdu.

12/ Tximiniako labatza
bezin kontzientzi beltza,
biar lutekenak lotsa,
beren umiak azi nai-ezik
kukuan gisa dabilta;
errekaldeko arkaitza
bezin gogorra ta otza
dadukatenak biotza.

13/ Txikitan gaizki ikasi,
gero iñork ezin ezi,
beti lanaren igesi;
aur onek gero ezautuko du
amak ordezuana azi;
ogiya jaten galazi
izanagatik merezi,
erriko jaun da nagusi.» (1)

(1) Bertso onen ondoren, beste bi daude paperean, erdi euskeraz ta erdi erderaz; kendu egin ditugu.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Donostia'ko Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduma.

«ARKAITZ AZPIYAN ITURRITXUA...»

Doñua: «*Andre Madalen...*»

- 1/ Arkaitz azpiyan iturritxua,
estaliyak inguruak,
odoldi, almitz, urritz, elorri,
txillar, ote ta garuak;
aien tartian alai kantari
xoxa ta birigarruak;
orbela gisa txapela eraman
ziran ego-aize arruak.

- 2/ Kurrin zerriyak, irrintz biorrak,
ardi zartxo bi orruka,
illiak arro, aragiz urri,
larre-bei zarra marruka;
sasiyan aker adar-okerra
katiaturik merruka,
aldamenian amalau sube
trikuarekin burruka.

3/ Egunsentiyan azkenekua
uju izugarritzua
zan ontzarena, gabaz marrubi (1)
goxuak janik naikua;
arren ondoren ollartxo erne
bateren kukurrukua,
anpaloi gorri aundia janaz
alai kantari kukua.

4/ Azten umia kukuarena
txantxangorritxo gajua
ongi lumatu baño lenago;
ematera konsejua
iyo zan adarraren punttara
basakatu marrajua;
inbiriz urtzen axeri zarrak
ito zuan konejua.

5/ Zelairik zelai zebiltzan lore
obenak biltzen erliak;
itxaso sakon zabaletako
arrai txikiyak baliak
bezela, sabel aundiak ase
arte irintxi aliak;
erregetzako indi-ollarra
nonbratu naian beliak.

(1) Bertso-paperak: zan ontzaren gabaz marruba.

6/ Satorrak, oneri begira, egin
zuan doministikua,
astuak puzkar baten ondoren
izugarriya ostikua;
basakatuak urratu ziran
soñeko elastikua,
eizera juana, ustez nitzala
alkate Donosti'kua.

7/ Txapelan billa abiya nintzan,
eta, alakoik batian,
sagar, udare, piku, gerezi,
intxaur, aritzen tartian,
untz-estalia, etxe zartxua;
aren ataiko atian
zakurra isats-belarri-motza
zaunkaz lotua katian.

8/ Otsua ezin zan geldirik egon
zeuzkalako arkakusuak,
lardaxkan bare adar-aundiyak
jaten marrubi goxuak;
inguruetan inbiriz urtzen
eperrak eta usuak,
tiro batekiñ berreun ill zitun
Altza'ko eskola-maisuak.

9/ Arrotza nintzan eta norbaitek
ote ninduben erruki,
zakurran bildur urritz-makilla
nuben esiyan ebaki;
ura eskuan ate ondora
nintzan poliki-poliki;
dan-dan jo nuben, ta beriala
andre Lorentzak iriki.

10/ Siaskatxuan aurtxo polita
sukalde illun beltzian,
txokuan sua, aparra gañez
azak egosten eltzian;
bi katakume txalapartaka,
kolka illa zori gaitzian,
erbiñudia txituak zaitzen
gabirauaren antzian.

11/ Illentiyakin sukalde illun
artan pizturik argiya,
aitortu ziran Ebanjelio
Santua beziñ egiya:
«Sua ekarri zuan alabak
mozkorra eta nagiya,
bi egunian ustuko luke
bost arruako zagiya.

- 12/ Gure alabak esaten zigun
ongi biziko giñala;
suian dotia gerriko zarra,
an ordoitua puñala,
mozkortutzia esanaz dala
pekatu orijiñala...
Kaskezurrian autsiko diot
oraindikan oriñala!»
- 13/ «Andre Lorentza, sukalde ontan
dago illun eta kia.»
Erantzun ziran: «Leiotxu ori,
izanikan errukia,
itxia daukat, euliyengatik,
aurtxuak dezan pakia.»
Eta eskañi exeritzeko
iru ankako aulkia.
- 14/ «Aurtxo polita, goxua izanik
amaren bular-iraiña,
zuri ukatu eta juan da
aztera bestek egiña;
txantxangorriya oi dan bezela
saiatu arren alegiña,
zaude soseguz, besteren aurra
ez du maiteko zu aiña.»

15/ Bañan amarik ez da izandu,
aur beria urtara erori,
aren ondoren saltatu danik
jakiñagatik igari;
karraxi baten tiraka bere
buruko txima daneri;
ez dezute askok xinistu naiko
bañan egiya da ori.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»; ez
nuan apuntatu nori jaso nion.

«KATUAK MIAU ETA...»

(Bederatzi puntuan)

- 1/ Katuak miau eta
zakurak zaunkaka,
baratzako pikuan
ontzak ujuka;
xagu xarrak argiyak
doministikuka
itzali, ta ukullora,
zerriyak eztulka;
bei zarrak marruka,
akerrak merruka,
astua ostikoka,
usuak urruka,
oillarrak esnatu ta
kukurrukuka.

2/ Eguak astinduta
berezizikuak
ziran oillartxo aien
kukurrukuak;
inguru guzietan
aukeran pikuak;
txori polit kantari
egunsentikuak,
uda berrikuak,
doñua alaikuak,
umore onekuak,
Euskal-Errikuak:
xoxo, birigarruak
eta kukuak.

3/ Untza zuan aritzaren
adar batekua,
kabiyatxo polita
odoldizkua;
arrautza epeltzen txori
papar-gorrikua,
inguruan zuala
ura egindakua,
fede gabekua,
sabel aundikua,
kantari kukua;
zuan soiñekua
beliak ere duan
bezelakua.

4/ Al da kukua bañon
alperragorikan?
Ez dualako azi
nai umerikan;
ez duanak sekulan
esan egirikan,
erantzungo du baietz
bañan alperrikan;
badu jakirikan,
ongi aserikan,
ez egin lanikan;
balu federikan,
ez luke iñudea-
ren biarrikan.

5/ Azi zuan Semia
Zeruko Erregiñak,
opa zizkiolako
bular-iraiñak;
fedea dutela ustez
gaizki esamiñak,
iñudiari azteko
aurtxuak egiñak;
kukuaren maiñak;
gorputzak liraiñak,
sedazkuak piñak
soiñian apaiñak,
luzitzen dituztela
buru-ariñak.

6/ «Aspaldi nai zuala
zuri adierazi,
nere biotzak dio,
ta ez jua n igesi:
bi muxu ematia
dezula merezi,
ixil-ixilik, iñork
ez deigun galazi;
Donostia'n bizi,
gauza onak erosi,
egiten zera luzi,
ez det nik ikusi
zu bezin politikan,
Joxepa Iñazi.»

7/ «Amoriyoz bi muxu
neri ematia
da zure biotzaren
borondatia;
Luzifer lagun dezun
estudiantia,
karrera bukatzian
a ze tunantia!
Zu erriko alkatia,
intelijentia;
nik, zure maitia
naizela emazia,
artuko det goxua
txokolatia!»

8/ «Egarri danian intza
maite du loriak,
zu ere maite zaitu
biotz neriak;
dituzun begi beltzak
engañagarriak,
dira Norteko izarra
dan bezin argiak;
ezpañak gorriak,
krabelin-orriak;
Paris'tik ekarriak,
aiñ ikusgarriak,
luzitzen dituzula
moda berriak.»

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Imanol Laspiur, Eibar.

«BATERE SORGIÑ-BILDURRIK
GABE...»

Doñua: «*Pello Joxepe tabernan dala...*»

- 1/ Batere sorgiñ-bildurrik bage
nendorren Asteasu'tik,
eztarriraño sagardo ase
ta ezin nitzala egon zutik;
juiziorik berez ez dunak
orlako ibillerak zetik.

- 2/ Aritz da urritz, lizar, elorri,
txillar, ote ta garuak,
alkar muxuka zebilkin pil-pil
ego-aizetxo arruak;
aien tartian alai kantari
xoxo ta birigarruak.

- 3/ Aldamenian begiak zabal
lo zeguana erbiya
esnatu nuben, ta egin zuan
zalaparta izugarriya,
bere ondoren abiatuta
arrapatu nuben iya.

- 4/ Sagar, udare, piku, gerezi
eta intxaurren tartian,
untz-estalirik etxe zartxua;
aren ataiko atian
zakurra isats belarri motza
zaunkaz lotua kation.
- 5/ Zakurran bildur nuben esiyan
aritz-makilla ebaki,
ura eskuan ate-ondora
nitzan poliki-poliki,
dan-dan jo nuben da beriala
andre Lorentzak iriki.
- 6/ Aur txiki bat lo siaskatxuan
sukalde illun beltzian,
arte-illenti aundi bi sutan,
azak egosten eltzian,
bi katakume txalapartaka,
kolka txituen atzian.
- 7/ Andre Lorentzak pitarra eskañi
ziran banintzan egarri;
eta, jakiñik nola ibiltzen
naizen erririkan erri,
ziran galdetu: «Kaixo, Mendaro!
Aspaldi ontan ze berri?»

8/ «Lege berriyak, diru geiago
Madrillera bialtzeko,
ta Euskalerriko alkatieri
eskubiriak kentzeko;
alkar unitu gaitezen danok
matatsa oiek askatzeko.

9/ Auxen baratza txukun alaia,
lore ederrez jantziya!
Zer gozua zan orduko lore
eder mardulen usaya!
Zori gaiztuan gaur arkitzen da
piztiya txarrez josiya.

10/ Esiyak zaitzen zauden zakurrak
il da eskopetak kendu,
orregatikan axeri askok
baratza ontan jaten du;
bertako lore ederrenekin
egiten dira apaindu.

11/ Argiyak ustez izandu gera
satorrak bezin itxuak,
astuan gisa, nekean bildur
gabe, langille txintxuak;
ta bitartian oiek logratu
lanikan errexentxuak.

- 12/ Dotriña ona ikasi gabe
bizi-modua nai berdiñ,
profeta txarren konsejuekiñ
ez da izango atsegiñ,
justiziarik erlien gisa
nola ezin gentzake egiñ.
- 13/ Usai gozoko loriak dira
arrosa ta krabeliñak,
oien tartian sortu oi dira
kardu-latzak eta osiñak;
berexi gabe izango dira
alkar ikusi eziñak.
- 14/ Oraindañokuan konseju obenak
eman dituzte eleizan,
oge genduke entzutera juan
ta ill arte goguan izan,
pakea zagun, ibilli gabe
deabruaren lañezan.
- 15/ Oliyo-usaian ezkill-torrian
ujuka bezela ontza,
litxarrerian oitua merruz
solora begira auntza,
aukera izan arren larrian
ote-loria eta untza.

16/ Konseju onari gaizki erantzun
eta ez egin nai lanik;
munduan zerbait ibillia naiz
eta nago antzemanik
oker ibilli nai dutenentzat
ez dala bire zuzenik.

17/ Okasiuan aita gazterik
ill da umiak negarrez;
juezak daude pekatariyak
kastigatzeko bildurrez;
modu onetan ez da izango
pakean bizitzen errez.

18/ Ego-aiziak orbel igarrak
bezela zaituzte arrotu,
zergatikan ez dakizutela
alkarri ainbat gorrotu;
egiya bada; esan zazute
oaindik ez naizela erotu.»

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. — Rentería»,
moldiztegi ontan bertan jasoa.

«GOIKO MENDIYAN
ONTZA KANTARI...»

Doñua: «*Pello Joxepe...*»

- 1/ Goiko mendiyen ontza kantari
bere alegiñ osuan,
xoxua eta birigarrua
errekaldeko basuan,
gorrioi zarrak baratzatxuan
litxarreriya gozuan.

- 2/ Amalau sator illiak orrazten
triku zar aundi bateri,
axeri zar bat txituak zaitzen
ollotxo kolka tontari,
gabiraua ta erbiñudia
zenbat zituan kontari.

- 3/ Ollotxo kolka ito nai zuan
koska lepotik elduta,
andre Kontxexi aren ondoren
urritz-zigor bat artuta,
erbiñudia elbarri zuan
bizkar-ezurrian jota.

4/ Arto-ganbaran Kontxexi ondoren
eman zion ostikua,
axeri zarrak orduan zuan
egin doministikua,
an lotan zeuden arratoi zarrak
esnatzeko modukua.

5/ Erle txintxuak ezitia egiten
guziak alkar lagundu,
orregatikan oiek ez dute
alperrikan nai mantendu,
kristandadian askok galera
lege au jarriko bagendu.

6/ Salgai dituzu zure baratzen,
zenulako aziya eraiñ:
aza, perrejill, porru, tipulak;
gañera ditugu oraiñ
gezur galantak irakurtzeko
errial bateren ordaiñ.

7/ Alperkeriyak berekin dakar
zabarkeriya guztia;
gurasotxuak, seme-alabai
geroz ondo ikustia
nai badezute, komeniko da
lanian erakustia.

- 8/ Ezertan ere saiatu gabe
jaki obenak nai aiña,
bestek illiak orraztu biar,
soñekua txit apaiña;
nola demontre mereziko du
langille zintzuak aiña?
- 9/ Konseju onari gaizki erantzun
eta nai ez egin lanik;
munduan zerbait ibillia naiz
eta nago antzemanik:
oker ibilli nai degunontzat
ez dala bire zuzenik.
- 10/ Arrokerizko zeremoniak,
gaizki egiñ esamiña;
auzuan askok esango dute
zerala buru ariña,
aurrari opa ez badiozu
bulartxuaren iraiña.
- 11/ Amak aurreri opa biaizke
bular-irain samurtxuak,
ta erakutsi gure Jaunaren
legeko mandamentuak;
baratzan ere ezagun oi du
landare ondo jorratuak.

Liburuxka bat, Mendaroren zenbait bertsoekin, Erreteriko Makazaga'renean moldizkidatua;

Oiartzunen, Iturriotz'ko Kamiyo baserrian, Sebastian Mendiburu'ren eskutik.

* * *

Beste liburuxka bat, «63 bertso / Eusebio Mugerza'k jarriyak» deritzaiona. Errenteriko Makazaga'renean moldizkidaturik dago, eta Elgoibarko Antonio Arrillaga zanaren eskutik jaso genduan.

Liburuxka onetan, amaika bertso dituan sail bat arkitu degu, *Konseju onak* izenarekin. Sail onek, onen aurreko saillaren sei bertso ditu; 5, 7, 8, 9, 10 ta 11'garrena; eta, gañera, beste bost bertso auk:

1/ Abenduaren amabostian,
goizeko ordu batian,
ni naiz Mendaro'n jaiο nintzana
Garagarza'ko partian,
milla zortzireun irurogei ta
amalaugarren urtian.

7/ Deabrua zan sortu zuana
alkar iltzeko inbentua; (1)
kulparik gabe esaten dute
dutenak eskarmentua:
Zertarako da gure Jaunaren
bostgarren mandamentua?

8/ Jaun Zerukuak esaten digu
biziko gerala obeki,
kristandadian gorroto gabe
alkar badegu erruki;
dala konseju egiazkua
ez dudarikan iduki.

(1) Bertso-paperak: alkarrik iltzeko inbentua.

- 9/ Kristadu fede onekuari
opa biar zaio legez,
ta kastigua dudarik gabe
gaiztua danari berez;
gaiñezkuan ez da izango
pakean bizitzen errez.
- 11/ Nekazariyak saiatzen dira
txintxo, erliak bezela,
iñaurkiñ biltzen, dudarik gabe
sendotzeko lur argala,
frutua dezan, alperrak ere
ase dezaten sabela.

«ALKARRENGANA GORROTU GABE...»

Doñua: «*Andre Madalen...*»

1/ Alkarrengana gorrotu gabe
leialak bagiñake gu,
elituzteke jarriko ainbeste
guardizibil ta soldadu;
alaz guziaz ere pakerik
eziñ udara ta negu,
bizi-modua merke orrela
alperrik espero degu.

2/ Danok leialak ez geralako
atiak daukate giltza,
eta mendiyak iturritxua,
zelaia eta arkaitza;
erbi batzuek paotxa janaz
eta bestiak almitza,
bizi-moduan igualdadia
naian alperrik gabilta.

3/ Egunsentiyan ekiñ da illundu
arte ari biar lanian,
agintariyak, orain aldian,
zorrotzak aldamenian;
esker gaiztua jornalikan ez
miñ artzen genduanian,
arrazgeroztik ezertxo ere
ez da logratu onian.

4/ Esanaz «Alkar maita zazute!»
Kristo gurutzian ill zan,
konseju ori arrazgeroztik
eman oi dute eleizan;
obe genduke benetan entzun
ta ill arte goguan izan,
pakea zagun, ibilli gabe
deabruaren lañezan.

5/ Dirua gañez eta basarri
etxe askoren jabiak,
zeremoniak egiñak-arren
ustez dirala obiak,
zekenkeriyan ikusirikan
erruki gabe pobriak...
Laburu jaunak ematen daki
konseju on pare gabiak.

6/ Deskubriturik toki berriyak
Getaria'ko Elkano'k,
mandamentuak erakustera
alkar maitatzeko danok,
Urdaneta'ren gisa juanda
asko misionero jaunok,
adiskiriak nun-nai ditugu
emendik juaten geranok.

7/ Mendi-mortuan etxetxua egiñ
esposaturik galaiak,
egunsentiyan jeki, kantari
astian txori alaiak;
zorioneko itai okerra,
aitzur, goldia ta laiak,
sasiya baizik etzan tokiyan
egin soro ta zelaiak.

8/ Basarritarrak ez du oporrik
aitzurrian edo laian,
iñaurkin biltzen eta gañera
belar goxuak zelaian,
udaberriyan birigarruak
beziñ umore alaian;
zentzugabeak zitalkeriyan
oieri galazi naian.

- 9/ Zigarro puru aundiya erriaz
lasaitu naian birika,
mutill koskorrak mozkortu eta
aitari izketan ika,
maldiziua dariotela
aguazillari arrika,
Donostia'ko ziudadian
ikusten ditut amaika.
- 10/ Okasiuan jarri gaztiak
komeni zaiotelako,
gañerakuan etzenduteke
alkar ill edo elbarriko;
pretestu ori aski dutela
agintari nai erriko;
aspaldi ontan ezagun dira
makiñatxo bat orlako.
- 11/ Lenago ere gure animak
salbatzeko desiuan,
fede jatorra zutela esanaz,
egiazko intentzian
saiatzen ziran erriko etxian
eta Diputazian,
iñoiz edo beñ erori arren
etsaian tentazian.

- 12/ Jan eta eran obenetikan
eta dotore jantziak,
kezka gogorra eman oi die
langillia unitziak;
ajola gutxi naiz-da gosiak
auspez iduki eltziak,
orretarako ez du balio
sermoi ederrak aitzia.
- 13/ Amak aurrari, maite izanik,
bular-irain samurtuak
opa dizkio, ta erakutsi
nai amar mandamentuak;
baratzen ere ezagun oi du
landare ongi jorratuak,
fruta obia lezakeala
ez al dakite tontuak?
- 14/ Mundura gatoz ez dakigula
noiz, nun da nola ilko geran,
gañera iñork ez dituala
gauza guziak aukeran;
okasiuan ibilli gabe
mesere-ustez galeran,
obe genduke saiatutzia
bakoitzak beren karreran.

- 15/ Okasiuan aita gazterik
ill da umiak negarrez;
errukarriak arren auzuan
anparatzeko iñor ez;
juezak daude pekatariyak
kastigatzeko bildurrez;
modu onetan ez da izango
pakean bizitzen errez.
- 16/ Fede jatorra duan kristaua
bire zuzenian dabill,
gorroturikan iñori gabe,
arkumia bezin umill;
fedegabiak zitalkeriyan
igual odol ontzian ill,
ta gero esan: «Zertako dira
orrenbeste guardizibill?»
- 17/ Ditxosua da fede onian
aitzen dana errezuan,
ez politika dala motibo
zitaldurik arasuan;
itzuli juanak bai omen dira
erori gabe lazuan,
errukarriyak kulparik gabe
daudenak kalabozuan.

18/ Seta gaiztuan xinistu nai ez
guzion buru iñor danik,
konsejo oneri gaizki erantzun
eta nai ez egin lanik;
munduan zerbait ibillia naiz
eta nago antzemanik
oker ibilli nai degunontzat
ez dala bire zuzenik.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Manuel Lekuona apaiz jaunaren bertso-bildu-
matik.

* * *

Beste bertso-paper batean, – au ere «Imp. Ma-
cazaga. – Rentería»-n inprentatua –, amabost ber-
tso daude. Oietako zazpi, emengo 1, 2, 3, 8, 15,
16, 17 ta 18'garrena dira, aldaketa auekin:

1/7: onela; 2/7-8: ...igualdadian billa...; 3/3:
oraingo aldian agintariyak; 3/5: esker gaiztua ta
jornalik ez;

8/3-8: uda berrian birigarruak
beziñ umore alaian,
zentzu-gabeak zitalkeriyan
oieri galazi naian,
«Ez det kulparik» esan, lazuan
eroritzen diranian.

Gañerako guziak, berdin-berdin.

Bigarren paper ontako beste host bertso, len ere
liburu ontan jarriak daude.

Berri-berriak, iru auek dira:

Errepublika jarri genduan
desioz egun obiak,
kontrariyuak zekenkeriyan,
erruki gabe pobriak;
bildu dituzten urre-zillarrak,
nikelak eta kobriak,
lapur-bildurak dauzkate kajoi
burnizkuetan gordiak.

Dotriña berria erakusten
lendabiziko rusuak
asi ziran, da gabirau biurtu
len ziradenak usuak;
erantzungo dit seme-alabak
maite ditun gurasuak:
«Arrazoi dezu, arrazkeroztik
ditugu orlako arasuak!»

Zer da, mutillak? – esan oi diet,
naizenian inguratzen – .
Ego-aiziak orbel igarrak
bezela zerate arrotzen,
zergatikan ez dakizutela,
alkar ill edo elbarritzen.
Ajolarikan etzaiotenak
ez dira batere arritzen.

«ERRUKI ALKAR GURI ESANDA...»

Doñua: «*Andre Madalen...*»

- 1/ «Erruki alkar» guri esanda
Jesus gurutzian ill zan,
dudarik gabe konseju ori
duan Jaunari eleizan
obe genduke guztiok entzun
ta ill arte goguan izan,
zitalkerian ibilli gabe
deabruaren lañezan.

- 2/ Mundu onetan probatzen dira
gizonaren talentuak,
badira onak, baita ere txarrak
alkar iltzeko inbentuak;
obeaguak dira Jaunaren
legeko mandamentuak,
pakea zagun, izanik argi
gure entendimentuak.

- 3/ Fedea ustez, baña da gure
bizi-modu marrajua:
ezertan ere saiatu gabe
izugarrizko lujua,
indi-ollarra bezin dotore,
arrokeriyan ujua;
garisti jantzirik, erdi gosiak
langille gizarajua.
- 4/ Sabel aundiya ase artian
jan obenetik nai aiña,
bestek illia orraztu eta
soñekua txit apaiña;
izanik, opa ez diozula
zure bularren iraiña,
besteren emaztia iñude
azteko aur zuk egiña.
- 5/ Zori oneko bizi-modua
guziok onak bagiña,
baña geienok nola bait-degun
gaiztokerirako griña;
opa zaiozu zure aurrari
bulartxuaren iraiña,
ta erakutsi dudarik gabe
Jesukristoren dotriña.

6/ Seta gaiztuan sinistu nai ez
guzion buru iñor danik,
konseju onari gaizki erantzun
eta nai ez egin lanik;
munduan zerbait ibillia naiz
eta nago antzemanik
oker ibilli nai degunontzat
ez dala bide zuzenik.

7/ Lañeza txarra bere garaian (1)
ez bada egiten ezi,
jan eta eran obenetikan,
beti lanaren igesi;
jator saiatu nai dutenari
borondatia galazi,
orrelakuak gose danian
lastua ere ez du merezi.

8/ Alperkeriya dala meriyo
da zabarkeri guztia,
fedea izanik, saia zaitzte,
senarra eta emaztia;
komeniko da txikitandikan
lanian erakustia,
nai badezute seme-alabak
ondo gero ikustia.

(1) Bertso-paperak: Lañeza txarrak.

9/ Alkar ikusi nai ez degula
gure begi biyen gaitza,
egiya bakan, sarri gezurra
mingañian degun itza;
guztiyok berdiñ bizi nairikan
alper-alperrik gabilta,
danok leialak ez geralako
atiak daukate giltza.

10/ Ez da pekatu ibillitzia
jantzirik moda berrian,
neska-mutillak, josta zaitezte
gustora erromerian;
tentaziyuan erori gabe
etxera illunabarrian,
ez dezazuten tatxarik izan
esposatzeko garaian.

11/ Danok leialak gerala ustez
ez gerala bizi garbi,
bat bakarrikan ere merezi
ez duanak nai ditu bi;
auxen da gauza sekulan ere
ezingo dana erabaki,
«Arrazoi dezu!» erantzuten dit
enteratu danak ongi.

Bertso-papera: «Imp. Macazaga. – Rentería.
Alzo'ko Kaitano Lizarribar.

«BESTENGATIK GAIZKI MINTZA...»

Doñua: «*Erari maitagarria...*»

1/ Bestengatik gaizki mintza,
ortikan dator bengantza,
oñaze sendatzen gaitza;
Satanas lagun arturik asko
mundu onetan gabiltza,
daukagulako biotza
errekaldeko arkaitza
bezin gogor eta otza. (1)

2/ Ainbat gerra ta anarki,
fedea galdurik aski, (2)
mundu ontan gabiltz gaizki;
Jesukristoren agoniako itzak
esaten digu egoki:
izateko alkar erruki,
bizi gaitezen obeki,
gogoan begu iduki.

(1) Bertso-paperak: bezingo gorroto/ otsa.

(2) Bertso-paperak: fede galdurik aski.

3/ Gurasuak ondo azi,
gero iñork eziñ ezi,
beti lanari igesi;
jokuan eta pardelkerian (3)
asko nola diran bizi
egiten ditut ikusi;
zer dute oiek merezi?
Ogia jaten galazi!

4/ Solora oitzen dan auntza
larrera bialtzen gaitza
jan naiez sasiko untza;
litxarrerian orla oituak
asko kalia gabiltza;
gizen iduki nai gantza,
zartzera ona esperantza,
alper jatorren ametsa.

5/ Bestentzat zerrik gizendu,
zurrukutuna otordu
langille onak egiten du;
gero alperrak usaindutako
urdaia garisti saldu,
pixuan alain bat kendu;
iñork txinistu nai badu,
Mendaro jaunak esan du.

(3) Bertso-paperak: jokuan ta pardelkerian.

6/ Kalia zer eiten degun,
etsaiak arturik lagun,
mozkorkerian gau ta egun;
gizonak ia erdi erotu
gerala degu ezagun;
oraindik ez da denbora jun,
konsideratu dezagun
zerk kalte egiten digun.

7/ Eta baserritar danak,
langillerik txintxuenak,
kontentuz bizi diranak;
gu oietikan jeki baño len (4)
ekartzen dizkigutenak
arrautzarik preskuenak,
esne eta babarrunak,
eta gañerako danak.

8/ Baserriko aiton txintxuak
txertatzen landaretxuak,
artzeko prutu goxuak;
auntz-esniakin illobak azten
negarrez amon gaixuak;
oien alaba on gajuak
nolabait ere sortuak
kuku ego-gabekuak.

(4) Bertso-paperak: gu oietik jeki baño len.

- 9/ Bularra ukatu aurrari,
nork berak eindakuari,
zer kontzientzi da ori?
Jesusen amar mandamentuak
nai badituzte irakurri,
aitu konseju au neri,
eskatu dauzkateneri,
Ama Eliza santari.
- 10/ Aiton eta amon maitia,
dezuen borondatia
birtute onez betia;
bañan San Pedrok zabalik dauka
zuentzako zeruko atia,
opa dizuet joatia
eta ongi pasatzia
eternidade guztia.
- 11/ Lanik egin gabe jan ta eran,
obenetikan aukeran;
kuku alperren tankeran,
umiak eginda gero azteko
txantxangorriari eman;
ikusiko dira nor diran
inpernuaren erdian,
Pedro Botero'n kalderan.

12/ Jaio ziran ezkeroztik
egin ez dutenak lanik,
soñeko piñak jantzirik,
gure agintari jartzen ditugu
ez degulako zentzurik;
batzuk ikusten ditut nik
mozkor galantak arturik,
txutikan egon eziñik.

Bertso-papera: «La Editorial Guipuzcoana. – Tolosa», Tolosa'ko Antonino Lakuntza zanarengandik.

«BARATZA ON BAT ZAN
EUSKALERRIYA...»

Doñua: *Andre Madalen kantena bezela.*

Bertso auek noizkoak diran ez du paperak esaten; baña gutxi gora-bera suma diteke. Orretarako, 9'garrenetik aurrerako bertsoai begiratu bear zaie. Bertso oietan, Eibarko erriaz eta ango lan-eskasiatz mintzaten da Mendaro.

Argibiderik atera ote zezakean, bertako Juan San Martin adiskideari idatzi genion. Onela erantzun zigun:

Bertso hoiek, ikusten dedanez, krisisari buruz dira; 1914-ko krisisasi ain zuzen ere... Krisis gogorra izan zan Eibar'en, batez ere arma lanetan...»

Ain zuzen, 12'garren bertsoan onela dio Mendarok:

Armamenturik ez bada biar ez dezala bestek egin...

Urrena, 11'garren bertsoan, Don Fermin izeneko bat aitutzen da: Eibarko ondasunarengatik gabirauekin burruka egin duana.

Eibarko erriaren alde lan asko egin zuana, Fermin Calbetón jauna izan zan; oso politiko ezaguna garai aietan, Donostia'n 1853 urtean jaioa, ta Madrillen 1919.II.4'an illa.

San Martin'ek onela dio bere eskutitz orretan:

•Bertan aipatzen dan Don Fermin, ezin diteke besterik izan Don Fermín Calbetón baizik. Gaur, Eibarko kale batek darama bere izena... 1910 inguruan artu zion Eibarri simpatia, *Escuela de Armería* bat egitea pentsatu zan urte aretan, ta 1912'an lortu zuan eskola ori jartzea...

Orduan (1914-ko krisis-denboran) egin zioten Eibartik Diputazioari eskari bat: Eibartik Aginaga'ra bidea egitea... Orduan ere Calbetón'i eskerrak: aste beteren barruan konsegitu zuten bidea astea, eta lenengo astetik eun langille okupatu ziran, eta illebetera lareun. Urte bete baiño gehiagoan jardun ziran bidegintzan, 1915'aren erdi inguruan gerrarako lana etorri arte. Gero, urte askoan lan asko izan omen zan.

Baiña, orduan, Fermín Calbetón jaunak esan omen zien eibartarrerri, armatik aparte beste gauza asko egiteko kapazak zirala, ta beste gauza hoiek egiteak salbatuko zi-

tuala, aurrerakoan armagintzan izan zitezkean krisisetatik. Horregaitik hasi ziran *Escuela de Armería*'n, armetatik kanpora, mekanika jenerala erakusten, ta orduandikoa da gehienbat herriko industria beste gauza askotara zabaltzea.»

Ain zuzen, ara nola esaten duan Mendarok 13'garren bertsoan:

dakigu eiten armak bezela
aitzur, golde ta makinak.

Onela jarraitzen du San Martin'ek:

«Herriko zaharreri beti entzun izan diogu Fermín Calbetón'i buruz laudorioz mintzatzen. Gauza hoiien zehaztasunak Pedro Celaya'ren *Historia de la Escuela de Armería de Eibar*, eskola berak bere urre-eztaietan atera zuan liburuan (1912-1962, 111/119 orrialdeak).»

Calbetón jauna iltzat ematen da 11'garren bertsoan:

zeru altuan gerta dedilla
zorioneko Don Fermin.

Ta, len esan bezela, Calbetón jauna 1919'an il baitzan, urte ori ezkerozko bertsoak ditugu auek.

Bañan Urizar bat ere aitatzen da 9'garren bertsoan. Ona nola dion San Martin'ek:

«Nik dakidanez, karguak izan dituan Urizar bat, Juan Urizar izenekoa izan da, badakit 1926'an kontzejala-edo izan zala. Baiña aurreragoko barririk ez dut. Gaiñera, Urizar famili horrek aintziñatik zuan Eibarren industria, eta nork daki familikoren bat ez ote zan izango.»

Argibide oiek erakusten dutenez, bertso auk 1920 urtekoak-edo izango dira; ta, geienaz ere, 1926'ekoak.

1/ Baratza on bat zan Euskalerrriya
landare onez jantziya,
denpor'aietan zer gozua zan
lore eder aien usaya!
Bañan, aitonak aindu bezela,
ez degu zaitu esiya,
zori gaiztuan gaur arkitzen da
pristiya txarrez josiya.

2/ Zakur on danak il zizkiguten
eta eskopetak kendu,
orregatikan axeri askok
baratza ontan jaten du;
bertako lore ederrenekiñ
egiten dira apaindu,
ez aitonaren konseju ona
goguan euki bagendu.

3/ Geok izanik etxe-jabiak
oien maiztar bizi biar,
Euskalerrian, gauden bezela,
nork egingo ez luke negar?
Beingua balitz utsa litzake,
bañan onenbeste bidar
batere zorrik ez diegunai
eskian ibilli biar!

4/ Subien gisa imanarekiñ
egan dabillen txoriya,
berenganatzen gaituzte oiek
gezurra eta enbusteriya;
kuku alperren umia azten
bezela txantxangorriya,
oien mendean egon biarra
ez al da negargarriya?

5/ Alperkeriyan bizi diranak
biar luteke egon pozik,
eta guretzat ez dadukate
gorrotu gaiztua baizik;
borondatia daukagunori
lana eiten utzi nai-ezik,
burutik ondo jantzitakuak
ez dute orlako lañezik.

6/ Esan bezela gure kontura
gizentzen dutenak gantza,
ez naiz arritzen nola diguten
tamaña ortako bengantza;
bildurrik gabe aitortuko det,
daukatelako biotza
errekaldeko arkaitz beltzaren
bezin gogorra eta otza.

7/ Zori gaiztoko politik'au da
gure kalteko eskola,
pikaro askok ibiltzen gaitu,
bai al dakizute nola?
Mendi puntako arbolatxueri
eroitzen zaien orbela
udatzenian ego-aiziak
ibiltze'ituan bezela.

8/ Gure agintari jartzen ditugun
konde, duke ta markesak,
beste gauzarik ez dute egiten
baizik bildu interesak;
oraindañokuan ez gera izandu
eskarmentatzen errezak,
onez aurrera obe degu ez
txinistu oien promesak.

- 9/ Eibartar oiek Urizar'ekiñ
jarri duten ejenplua,
Euskal-erriyak ondo goguan
izateko modukua;
gertatzen da ori dauan tokian
jende buru argikua,
arrokeriaz ez det aitortzen
naiz izan ingurukua.
- 10/ Egiten degun lana saldu nai,
baimen orren billa gabiltz;
ukatze'igute, esanaz orla
pakeak eiten dala gaitz;
arma luzien gisa laburrak
kanpotik ekartzen dabiltz,
frontera zaitzen egonakarren
makiñatxo bat sapelaitz.
- 11/ Len bagenduan, gogoratzian
biotzian artzen degu min,
zeru altuan gerta dedilla
zorioneko Don Fermin;
gure ontasunarengatikan
burruka gabirauekin,
oillotxo lokak txituak zaitzen
bezela eiten zun alegin.

12/ Armamenturik ez bada biar
ez dezala bestek egiñ,
badakigu ta beste lanetan
egingo degu alegiñ;
bañan arkitzen geran bezela
nola ez degu izango miñ
askoren alde gure galeran
jarri duten legiakiñ?

13/ Satorrak eta luartzan gisa
landare-sustrai obenak,
gure mendien lur-arkaitzeri
billaturik beren zañak,
oiek urtuta gero forjatu
iñun er'ez bezin piñak,
dakigu eiten armak bezela
aitzur, golde ta makinak.

14/ Mundu guzian ikusten dira
Tolosan eiñak txapelak,
dudarik gabe eibartarrenak
errebolber ta pistolak,
urre gorriekiñ grabatuak
peinetillak eta orratzak,
ministro jaunen bastoiak eta
eizerako eskopetak.

15/ Alaitasuna besterik ez dan
erreka-zulo aberatsa,
erdi-ipurdi itzegiñ arren
ez da ezagutzen gaitza;
dudarik iñork ez dezala izan,
daukatelako biotza
erle txintxuak eztiya egiten
diran beziñ aberatsa.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Erren-
teria'ko Juan Zabaleta bertsolariaren paperetatik.

«SASIAK IA ESTALI DITU...»

Doñua: «*Andre Madalen...*»

Paper ontako lenengo ta bigarren bertsoa, ta aurreko paperarenak, berdiñak dira. Orregatik ez ditugu emen jartzen, ta irugarrenetik asten da jarri-aldi au.

Sail ontako emezortzigarren bertsoan, Abd-el-Krim aitutzen da. 1925 urte-inguruan aditu zan geienbat moro buruzagi orren izena. Ordukoak, beraz, bertso auek.

- 3/ Sasiak ia estali ditu
arbola onenak guziak,
badakit nola zabaldu diran
plaga txar oien aziak;
zori gaiztuan indartu dira
aspaldi beren sustraiak,
oien loriak emango ditu
fruta berde ta gaziak.

4/ Fruta oietatik sortzen ai dira
izugarrizko pristiyak,
batetik griña txarrez betiak,
alperrak eta nagiyak;
sekulan ere ez dira izango
burutik ondo jantziyak,
bañan mundua mundu dan arte
ez dira paltako itayak.

5/ Txikitandikan bear bezela
landara ez bada jorratzen,
igarri gabe lagun txar asko
inguruan zaizka azaltzen;
jabia lotan dauan bitartez
asten badira loretzen,
naiz-da aitzurra zorrotza iduki
kostako zaio garbitzen.

6/ Mutil koskorak mozkortu eta
gizon zarrak insultatzen,
beren aiteri izketan ika
zigarro purua erretzen;
zori gaiztuan onela ai dira
bizio txarrak indartzen,
ôingo artzaiak ez dutelako
urritz-zigorrik dantzatzen.

7/ Nik ondo dakit zer gertatzen dan
grña txarretara oituta,
pordilkeriyan ajolik gabe
neoni ibilli naiz-eta;
erruki gabe ikusirikan
eskian ama ta aita,
au gertatzen da Jesusen amar
mandamentuak aztuta.

8/ Zigorrik gabe artzaiak ez du
ardirikan ondo zaitzen,
ego-aiziak arkakusuak
bezela zaizka arrotzen;
bildotxetatik pagotx gozora
baldin baditu oitutzen,
nik dakit gero zer kostatzen dan
ota-larrera bialtzen.

9/ Baratza ontan gaur aintzen dute
animali ta pristiak,
sator ta arratoi, sapo ta sube
eta erbi-iñudiak,
bela ta miru ta sapelaitzak,
gabirau moko-luziak,
azkonar da otso eta axeri,
gure odol txupa-zaliak.

10/ Beliak garitan gustora dabiltz
sapelaitzekiñ bat einta,
basarritarren kosetxa danak
beren kabiyan gordeta;
ta gu gosiak Amerikatik
ekartzia galazita,
gero garisti saltziagatik,
orla oituak daude-ta.

11/ Sator gaiztuak beti aztarka
azkazkalak zorrozuta,
naiz itxuak izan gauza on zaliak,
mutur zorrotza dute-ta,
kalte egiten landare onen
sustar gozua moztuta;
baratzan berak nagusi dira
bildurrikan ez dute-ta.

12/ Erbiñudiak txokorik txoko
korbatatxuak jantzita,
usukumiak engañatutzen
litxarreruak dira-ta;
txantxangorriari kuku alperrak
bezela arrautzak jarrita,
Billabona'ko Fraisoro dago
aur inozentez beteta.

- 13/ Sube zitalak eta sapuak
baratza dana ondatzen,
bertako landare obeneri
loriak enbenenatzen;
lanikan egin nai ez dutenak
besteri gogua kentzen,
ortelanuak ez dutelako
atxur zorrotza dantzatzen.
- 14/ Iru urte laister igaro dira,
ez nago ôindik aztuta,
gizajo asko ibilli ziran
pultsuak alteratuta:
basarritarren esne-marmitak
zilipurdika botata,
andre gaixo bat balaz il zuten,
zeruan dedilla gerta.
- 15/ Buruak gaizki jantzitako asko,
naiz-da illia ondo orraztu,
Donostia'ko ziudadian
egiten ditut ezagutu;
eskolarikan ikasi ez dute,
lanian nai ez nekatu,
amak negarrez tarjetak topa
ta erriak mantentzen ditu.

16/ Txantxangorriyak baserrietan
lanian dira saiatzen,
goiz jeki eta alperrentzako
baratzan jakiya biltzen,
kaleko dama elegantien
kamixa piñak garbitzen,
eta gañera kuku aberats
alperren aurrak azitzen.

17/ Azkonar da otso eta axeriyak
dabiltz au engañatutzen,
eta gabirau mokoluziak
txituak aruntz bialtzen;
noizik eta bein elbarri batzuk
onera zaizku azaltzen,
ollo gajuak negarrez daude
penaz gangorrak oritzen.

18/ Obe genduke pristi tzar abek
baratzatikan atera,
dijuaztela nai baldin baute
Abdelkriñ'en parajera;
eta esiyak ondo konpondu,
sartu ez deiten osterara;
gure lengo zakur da eskopeten
jabe ôindik eingo gera.

Bertso-papera, «Imp. J. Díaz. – Irún», Inozen-
zio Urkia, Portuene, Alzibar, Oiartzun.

«LURRIKAN SAMUR-SENDUENIAN...»

Doñua: «*Andre Madalen...*»

1/ Lurrikan samur-senduenian
euteratxo aberatsa,
ormaz itxiya jira guzian
izanagatik baratza,
aitxurrarekin ez baldin bada
nekazariya garratza,
litxarreriyen gallentzen dira
satorra eta luartza.

2/ Goiko mendiyen ontza kantari
bere aletin osuan,
zozua eta birigarrua
errekaldeko basuan;
baratzatxuan erbi gaztia
litxarreriya gozuan,
aker zar aundi adar-okerra
bere inguruan zuan.

3/ Pabotxa jaten erbi gaztiak,
ardi zartxuak almitza,
baratzatxora begira marru
eta biorrak irrintza;
andre Kontxezik esaten zuan:
«Alper-alperrik dabilta
kendu nayian baratza ontako
ate zartxuaren giltza.»

4/ Basakatuak illia orrazten
triku zar aundi bateri,
iñudiari arraultza jarri
eta kukua kantari;
axeri zarra txituak zaitzen
ollotxo kolka tontari,
gabirau argal moko-luzia
zenbat zituan kontari.

5/ Ollotxo kolka estu ta larri
txito guziak galduta,
erbi-iñudiak ito nai zuan
koska lepotik elduta;
amonatxua zuan ondoren
urritz-zigor bat artuta,
ezkutatu zan arratoi zarrak
zeuden lar-pian sartuta.

6/ Arrautza epeltzen txantxangorriya
kukuak jarritakua,
katagorriyak galdetu zion
al zan gorringo bikua;
aker zar adar-bakarrak egin
zuan doministikua,
lar-pian zeuden arratoi zarrak
esnatzeko modukua.

7/ Joxe Manuel eta Lorentza,
amoriyozko galaiak,
dote-arrio: itai okerra,
aitxur zorrotza ta laiak;
esposaturik bordatxo baten
uxuak bezin alaiak,
sasiya baizik etzan tokiyan
ara solo ta zelaiak.

8/ Ondorengiak jan obenetik
eta igurtzi ezpaiña,
bestek illia orraztu biar,
soñekua txit apaiña;
konseju onari gaizki erantzun
illun jarririk bekaiña,
nola demontre mereziko du
langille zintzuak aiña?

9/ Oiñez ikasi ta beriala
zabarkeriya guztia,
nola lezake agintariyak
pake-pakean uztia?
Gurasotxuak, maite izanik,
gero ondo ikustia
nai badezute, komeniko da
lanian erakustia.

10/ Amak aurrari amoriozko
bular-irain samurtuak
opa dizkion gisa, Jaunaren
legeko mandamentuak
erakutsiko dizka, jakiñik
dirala benetakuak;
baratzan ere ezagun oi du
landare ondo kuidatuak.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería», ez
nuan apuntatu zeñi jaso nion.

«GURE KOPETAK IZARDITUTA...»

Doñua: «*Andre Madalen...*»

Onako bertso auek, 4 ta 5'garren bertsoetan esaten dana gogoan artuta, Afrika'ko gerra-denborakoak izango dirala uste degu; 1922 edo 1923 urtekoak.

1/ Gure kopetak izardituta
guziok jateko ogiya,
au da Jesusek ematen digun
konseju ondo neurriya;
nik ikusten det zer gertatzen dan,
ez det illuna begiya:
lanikan egiten ez dutenak
gordetze'igute gariya.

2/ Erle txintxuak zelaian danik
lore obena biltzen du,
eta gero ezti goxua egiten
guziak alkar lagundu;
orregatikan oiek ez dute
alperrikan nai mantendu;
obe genduke kristandadian
lege au jarriko bagendu.

3/ Erletxo oiek eztiya eiteko
lore goxuak bezela,
basarritarrak biltzen zituzten
ote ta garo ta orbela,
gero ukulluan gozatuta
sendotzeko lur argala;
kaletarrentzat zekor ederrak
azten zituzten orrela.

4/ Iñaurkiñ oiek oraiñ mendiyan
daude alperrikan galtzen
pozikan bilduko lituztenak
gerrara ai dira bialtzen;
lenago nekez sendotutako
lurak ai dira argaltzen,
modu onetan gaitz izango da
oinbeste alper mantentzen.

5/ Basarriyetan ordoiak jaten
daude aitzurrak eta laiak,
alperren soñekuak jantzita
daramazkite mutillak;
sasiz betetzen asi zaizkigu
soluak eta zelaiak,
kaletarrak ondo bizitzeko
ez dira kontu alaiak.

6/ Sube gorriyen moduan gabiltz
biotz onak zitalduta,
griña txarrekiñ muñak erotu
eta kemenak aulduta;
kristandadia gaur arkitzen da
borondatia galduta,
Jesukristoren ministrueri
eskubideak kenduta.

7/ Usai gozoko loriak dira
arrosa ta krabeliña,
beren tartian azaltzen dira
kardulatza ta osiña;
kristandadian danok ez degu
onak izateko griña,
gure gaitzikan gaiztuena da
alkar ikusi eziña.

8/ Jaiotzatikan dadukatenak
lanik ez eiteko griña,
merezi gabe askok jazten du
soñeko sedazko piña;
jan-eranian, zer esanik ez,
obenetikan nai aiña,
lurrez da itxasoz biltze'itugunak
ez dira berentzat aiña.

- 9/ Solora oitzen dan auntza bezela
gaitz izaten da ezitzia,
orreatan ez da komeni
txikitan gaizki oitzia;
iñork ez degu gazterik il nai,
desio degu zartzia,
bañan aurriak erakusten du
nola dantzatu atzia.
- 10/ Denpora baten saiatzen ziran
gure aiton gizaixuak
landare makatzak txertatutzen
artzeko fruta goxuak;
orain txertu txarra zabaltzen dute
gure jaun eta maixuak,
miruen tankera artzen ai gera
Euskalerriko uxuak.
- 11/ Lautatik iru Donosti ontan
lanik eiten ez dutela,
dabiltz eskian da alperkeriyan
dirua biltzen dutela;
oiek gañera esaten dute
gauzak garisti daudela;
ori bai dala aurria artzia
pasaiatarrak bezela.

12/ Bañan, eskerrak, basarritarrak
zintzo ai dira labrantzan,
itxasotarrak giro danian
saiatzen dira arrantzan;
kalian berriz ajolik gabe
zurrutian eta dantzan;
Jaun Zerukua begira dago
guziok nola gabiltzan.

13/ Baserritarrak galtzen badu
lana egiteko gogua,
gari tartian sortuko zaio
kardulatza eta olua;
ferira maiz juan, lanak largata,
egiñagatik girua;
modu orretan zintzotuko da
kaleko jende erua.

14/ Biar bezela lanian txintxo
saiatzeko norberetzat,
badakit, ez da konseju ona
txinisten ez dubenentzat;
gure artian gorroturikan
ez izateko alkarrentzat,
au esanaz Jesusek odola
ixuri zuben danontzat.

15/ Milla zortzireun irurogei ta
amalaugarren urtian,
Abenduaren amabostian
goizeko ordu batian,
gure Kilimon errekatxuan,
intxaaur-arbolen tartian,
Mendaro'ko erriyan jaio nintzan,
errota zartxo batian.

Bertso-papera, «Imp. J. Díaz. – Irún»; ez nuan
apuntatu zeñi jaso nion.

* * *

Beste bertso-paper batean, – onek ez du mol-
diztegi-izenik –, aurreko paperaren zenbait bertso
daude. Orregatik ez degu emen osorik jartzen.

Aurreko paperagatik, Afrika'ko gerra-denboran
jarria izango zala esan degu. Gure uste ori onako
paper onek egiztatzten du: lenengo bertsoan ur-
tea esaten du: 1923; ta gero, laugarren bertsoan,
onela esaten da: «pozikan bilduko lituzkenak /
gerrara iltzera bialtzen». Ez da dudarik, beraz,
bertso ontan aitatzen dan gerra, Afrika'koa dala.

Paper onek, lenengo, bertso au dakar:

Milla urtez gaiñ bederatzireun
ogeï ta irugarren urtian,
bertso batzuek jartzera nua
Gipuzkoa'ko partian;
bañan ez iñori biotzian
miñ emateko ustian,
baizik egiak esan nai ditut,
al badet, borondatian.

Urrena, 2, 3 ta 4'garren tokian, aurreko pape-

raren 2, 3 ta 4'garren bertsoa dakarzki, onako aldaketa auekin:

2/2: onena; 2/3: eta ezti goxua egiten; 3/1-2: Erletxo oiek lore ederrak eztiya egiteko bezela; 3/5: gero ukulluan ondo gozatu; 3/7-8: kaltetarrentzat labore ederrak artzen dituzte orrela; 4/2: daude alperrik usteltzen; 4/4: gerrara iltzera bialtzen.

Gañerako bertsoak, geienak berriak dira; banaka batzuk berriz, len ere jarriak, bañan oso diferente, 8'garrena ta azkenekoa izan ezik. Orregatik, auek ez ditugu jartzen; ezta erderazko bertso bat ere. Beste guztiak bai:

5/ Kalian batzuk lana eiten degu
zortzi orduko tarian,
aitu nazute basarritarrak
zer moduz saiatzen dian:
egun-sentiyan txantxangorriyak
txir-txir kantari deitzian
jaiki, ta *Aitare*n eginda txintxo
ondo illundu artian.

6/ Negu beltzian kaskabarrakiñ
iru legua apartetik
arrautz da oillasko eta esniakin, gu
jeiki baño len oietik;
ikusirikan nola datozen
emakumiak oñutsik,
errukitutzen ez geran denok
ez dadukagu biotzik.

7/ Oiek gajuak txantxangorriyan
gisa diranak saiatzen,
jango badegu, biar ditugun
gauza guziak ekartzen;

bueltan gure erropak (1)
gobarak ein da garbitzen,
eta iñude kuku aberats
alperren aurrak azitzen.

Paper ontako 8'garrena, aurreko paperaren
11'garrena da. Ona emen aldaketak:

1: Eta kalia lautatik iru; 3: dabiltz eskian ge-
zur kontari; 7-8: guzieri nik erantzungo'iet de-
balde jaten dutela.

9/ Gazte askorik ibillia naiz
mendiyan eiten ikatza,
egun guzian bi aldiz janaz
talua eta baba beltza,
oiek gozatu burrunzaliyan
urturik zerrian gantza;
orain, zeziña eta ogi txuriya
janaz, obeto dabilta.

10/ Orduan bañon erretxuago
oraiñ danok gera bizi,
iñork ez degu morroi nai izan
baizik guziok nagusi;
langille txarrak onak bezela
kobratuez irabazi,
modu onetan ofiziyorik
ez du naiko iñork ikasi.

11/ Lau atetatik bat dauzkagulako
Donosti ontan tabernak,
parte zarrian bi gau guzian
itxitzen ez dituztenak;

(1) Lerro ontan, gure iritzirako, itzen bat
falta da; bañan paperak ola dio.

oientzat diña ez dira izaten
sortzen ditugun txanponak,
mozkorkerian ibillitzeko
galtzen gure osasunak.

- 12/ Politika da langilliori
komeni etzaigun eskola,
pikaro askok ibiltzen gaitu
– bal al dakizute nola? –
mendi-puntako arbolatxuak
eroitzen zaion orbela
udatzenian ego-aiziak
ibiltzen duan bezela.
- 14/ Bañan guziok txinista zagun,
dudan eon gabetandik,
ez dala izango teologorik,
aiñ gutxi pilosoporik,
munduan iñoiz bat bakarrikan
guri emango'izkigunik
Jesusen amar mandamentuak
bañon konseju oberik.

* * *

Bertsolariya aldizkarian, 39 zenbakian, 1932.
VI.12'an, Mendaroren bertso-sail bat argitaratu
zan.

Bertsorik geienak, ordea, azkeneko iru sail
oietan ere daudenak: 1, 2, 3, 5, 6, 7, 8 ta 9'ga-
rrena. Aldaketa bat edo beste badute, bañan
berdintsuak.

Besteak berriak dira: 4, 10, 11 ta 12'garrena.
Ona emen bertso auek:

- 4/ Alper aundiak begira nago,
jaio ez diran tokian,

lanian saiatu nai duteneri
utzi nai ezik pakian; (1)
antzemanikan aspaldin nago
zer gertatu lezakian:
zakurren gisa egon biarrak (2)
oraindik gure maipian.

10/ Aitak eta amak borondate onez
seme-alabatxuak azi,
dotrina oieri erakustia
nai digutela galazi;
len gure morroi txarrak ziranak
jarri diranak nagusi,
iduritzen zait orrelakorik
ez genduala merezi.

11/ Biria erakutsi zuan Elkanok,
ez nolanaiko azaña,
meriturikan eman nai ezik
ez dakitenak nik aña;
orren ondoren zan Urdaneta,
frailia asko zekiña,
salbajari erakustera
Jesukristoren dotriña.

12/ Uste izan arren gizon pizkorrak
onak zirala inbentuak,
etziran ezer gure soldaduak
zituzten armamentuak,
juan ez balira misionero
borondate onekuak,
erakustera Jaungoikuaren
legeko mandamentuak.

(1) Bertsolariya'k: utzi naizik pakian.

(2) Bertsolariya'k: zakurren gisa eon biarrak.

«SAIATZEN DIRA...»

Doñua: «*Andre Madalen...*»

Sail ontako lenengo ta bigarren bertsoa, ta onen aurreko saillaren bigarren ta irugarrena, berdiñak dira. Orregatik ez ditugu berriro emen jartzen, eta irugarren bertsoetik asten da onoko sail au:

- 3/ Saiatzen dira, kalia gu lo
soseguz gauden garaian,
ogi zuria izan dezagun
garia eraiteko laian,
eta zekorrak azteko biltzen
belar goxuak zelaian,
uda berrian birigarruak
bezin umore alaian.

- 4/ Kaletar askok jeiki baño len
Jaunari maldiziua,
zintzo saiatu nai duteneri
galazi deboziua;
sube gorriak diruditela
zitala intentziua;
barku zar baten enbarkatzeko
ai zer tripulaziua!

- 5/ Eltxuak beziñ ugari gera,
bertakuentzat lanik ez,
zitalkeria dala meriyo
espero izatia nekez;
okasiua jartzen dutenak
lenbailen balijuakez,
pake santuan emengo lanak
errex egingo giñukez.
- 6/ Zori gaiztoko iruripenak
dira oiek dituztenak:
kristaduak ill, etxiak erre
ta deskarrillatu trenak;
jakintsuak ustez maisu oieri
erakutsi dizkatenak,
dira Jaizkibel'ko artzaiak baño
gutxiago dakitenak.
- 7/ Lengo zarrekiñ aspertu eta
berriak mandamentuak
ikasten asi, arrazkeroztik
indarra du gorrotuak;
konseju berri oiez gañera
erari bataiatuak,
oientxengatik lautatik iru
gaude erdi erotuak.

- 8/ Okasiora birian jartzen
dituzte atzetik zirika,
mutill koskorrak mozkortu eta
aitari izketan ika;
pake santuan goiz eleizara
dijuanari arrika;
guardia zibillak biarko dira
baten lekuan amaika.
- 9/ Arano'tikan Joxe Manuel
Donostia'ra etorri,
arrazkeroztik askoren gisa
gorrotu dio urari;
gezur galantak tabernan entzun
ta egiak dirala iruri,
len umilla zan ta orain zakur
amorratua diruri.
- 10/ Ajolarikan etzaiotenak
korajia bekokian,
gezur kontari aterik ate
txanponak bildu eskian;
lanian zintzo ai diraneri
utzi nai-ezik pakian;
ez dute asko pensatzen gero
zer gertatu lezakian.

11/ Ta beste asko jauntxo badira
erruki gabe pobriak,
lanikan egin gabe diranak
gauza askoren jabiak;
bildu dituzten urre-zillarrak,
nikelak eta kobriak,
orain, bildurrak, dauzkate kajoi
burnizkuetan gordiak.

12/ Jan eta eran obenetikan
eztarriraño aseta,
zigarro puro aundia erreaz
letu *Norteko Gazeta*,
aste guzia alperkerian,
igandian goiz mezetâ,
langillieri esan jornala
aski dala sei pezeta.

13/ Afrika, Europa, Asia, Ozeania,
ez eta ere Amerikan,
Jaun Zerukuak sortu arrazkeroz
munduan bat bakarrikan
ez da izandu bizi-moduan
besteren bear ez danikan;
umerik ez du azten kukuak,
arrautza egin bakarrikan.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»;
Tolosako Antonino Lakuntza zana.

* * *

Moldiztegi orrek berak ateratako beste paper batean, sail ontako zazpi bertso arkitu ditugu: 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 ta 11'garrena. Ta, gañera, beste auek:

1/ Ditugu ezagun: Luzuriaga
ta Orueta'ren moduan,
saiatzen dira Lasa, Yeregi,
jator Trintxerpe onduan;
Torrea y Bergara, Pako Andonegi
jauna dutela inguruan;
sei gizon jator txorakeri
gutxi dutenak buruan.

2/ Don Patrizio Etxeberria
ta don Ramon de la Sota,
borondatia duten bezela,
Euskal-Erria jasota;
jarrai zaiegun, dudarik gabe
biziko gera eroso-ta,
txit borondate egiazkuan
jator lanari erasota.

8/ Ortaiko batek zerbait eskatu
dit bere oitura moduan;
erantzun diot: «Nigana etorri
zera ordu beranduan;
jango dituzu, juaten bazera
Ernio'ra Abenduan,
ginga goxuak kuku ta xoxo
kantari alaien onduan.»

9/ Aterik ate gezur kontari
dirua biltzen dutela,
gezurrezkua errezioaren
billa juateko txartela;

ogiazkua erri ta erri
eman nai ez diotela,
gauzak nik dakit garbi esaten
ez naizelako totela.

10/ Lenago morroi txarrak ziranak
daduzkagunak nagusi,
ez dituztenak kredua eta
ato pedekua ikasi;
Euskalerrian euskalduneri
lana egitia galazi,
eta nagiak zintzuen ordez
patronueri arrazi.

13/ Joxe Manuel, ator nigana,
konseju txiki au aizak:
mozkortu eta Larramendiko
tabernan igande-goizak;
arrokerian esan dek: Ez nau
azpian artuko eleizak!
Beste batzuek i erotua
zer kulpa ditek apaizak?

14/ Ziara aztu gabe antziñako
gure usario txukunak,
euskal baratza eder onetan
txit komeni zaizkigunak,
alkarregana gorrotu gabe
obe degu izan lagunak,
pake santuan igaro'itzagun
jaio ta ill arteko egunak.

* * *

Bi paperetan dauden bertsoak, aldaketa auek
dauzkate bigarren go ontan: 3/5: eta zekorrak az-

teko belar; 3/6: goxuak biltzen zelaian; 3/7: birigarruak uda berrian; 5/5: Polo y Conceiro, Trujillo y Pérez; 5/6: Totorica y Manriquez; 5/7: etorri ziran biretik oiek; 5/8: guziak balijuakez; 7/7: oietxengatik uste det asko; 7/8: gaudela erdi erotuak; 9/2: Donostia'ra igari; 9/4: etorri zan da askoren gisa; 9/5: gezur galantak entzun tabernan; 9/6: egiak dirala iruri; 11/1: Ta beste asko ditugu ezagun.

«EMENDIK ITZULI JUAN...»

Doña: «*Juan dan ostegunian
amabost Ernanin...*» (1)

Jarri-aldi au noizkoa dan somatzeko, bertsoetan aitazen diran iru jaun oiek eman digute bide:

«Emendik itzuli juan zan gobernanta», Alfonso XIII erregea da; «bere lagun kojua», Conde de Romanones politiko famatua; ta «kartzelan furioso dagoan Damaso», Damaso Berenguer jenerala.

Erregearen denboran, jeneral ori Españaiko gobernuaren buru zalarik, Jaca'ko Galán ta García Hernández kapitana errepublikaren alde altxatu ziran.

Beren asmoetan utsegiñik, preso artu zituzten eta afusillatu.

Ori zala-ta, kargu artu zioten Berenguer jeneralari errepublikaren asieran; baita espetxean sartu ere.

Ordukoak ditugu, beraz, bertso auek:

(1) Xenpelarren betroiarena, alegia.

1/ Emendik itzuli jua
zan gobernantia,
alkauete guzien
induljentia;
ez dalako gizona
intelijentia,
bere lagun kojua
bezin tunantia,
aspertu jentia;
emen egotia
genduan kaltia,
obe zan juatia,
baña ez ainbeste diru
eramantia.

2/ Besteri egiñ-azi
sakrifiziua,
ori zan alperraren
deboziua;
ziaro arruinatu
digu naziua,
ala ere bazuan
estimaziua;
bere biziua
ostentaziua;
jarri okasiua,
egin negoziua,
bere alkauetien
ofiziua.

3/ Pobria artu dute
beti gogorrian,
tratatu nai ezikan
modu obian;
lezake gertatzia
istillu gorrian,
alper aundiak lana
egin bearrian,
umore txarrian,
estu samurrian, (1)
bustin legorrian,
gose-egarrian;
gu bezela saiatu
bitez arian.

4/ Eskubidearekiñ
arroturik oso,
jakituria gutxi,
begiak lauso;
oker eman zituan
makiña bat pauso,
negarrez oraindikan
daude asko guraso;
etzalako eroso,
semeak illazo;
kartzelan Damaso
dago furioso,
pekatu oien karga
eziñik jaso.

(1) Bertso-paperak: estuz samurrian.

5/ Guri onera ekarri
naian miseria,
merezi du kastigu
izugarria;
ez da lengua bezin
engañagarria
gobiernua jarri
deguna berria;
okasio-biria,
ez da erromeria;
ez galdu fedia,
izan egarria,
obeto bizi dediñ
Euskal-Erria.

6/ Orain etsai gaiztuak
ditugu ingurun,
orretaiko batentzat
gera berreun;
pakean eleizara
nai duanari jun,
utzi okasiorik
jarri gabe iñun;
guziok gau ta egun,
erdaldun da euskaldun,
geranok ezagun,
alkar maite zagun,
bizi-modu obia
izan dezagun.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. - Rentería»,
Inozentzio Urkia, Portuene, Altzibar, Oiartzun.

Euskal bertso auen ondoren, erderazko beste
sei datoz; ez ditugu emen jartzen.

«FESTEN ONDORENIAN...»

Onoko bertso auek, Mendaroren bost bertso-paperetan eta liburuxka batean sakabanatuta daude; danak, Errenteriko Makazaga'k argitaratuak.

Bertso guziak bederatzi puntukoak dira; batzuek bein bakarrik daude, ta beste batzuek, berriz, bi ta iru aldiz. Ori bai: batetik bestera zerbait aldaturik. Len ere esan degunez, bein baño geiagotan egin zuan ori Mendarok.

Aldakuntzen berri, oarretan eman oi degu beti. Bañan oraingo ontan jai egingo degu; ez degu lan ori artuko. Naspil aundia bailitzake, ta alperrikakoa gañera: iñork ez bailuke entenitu ere egingo.

Onela moldatuko gera: lenengo, paper bat artu ta ango bertso guziak onera aldatu; ta ondoren, segiran, gañerako paperetan eta liburuxkan dauden bertso ezberdin guziak kopiatu.

Ona, beraz, bertsoak:

1/ Festen ondorenian
Azpeitin feriya;
salgai Patxi Mokollok
zuan iriya,
ibilli oi zuana
Usurbilko arriya;
egun da bost erralde
kordelez neurriya;
zuan aragiya
zan guri-guriya;
jaurtirik begiya
askok inbiriya;
erostun Urrustilgo
aizkolariya.

2/ Ostegunian beia
saldu du Ernanin,
geroztik erostuna
dabill armonin;
ogei ta bi erralde
ezurra eta mamin;
eztula ta zotiña,
sabelian du min;
ez ortz eta ez agin,
ezurrak agirin,
lurrera iya erorin,
artuan inbirin,
paotxa jaten badu
atzetik *pirrin*.

3/ Ume bi egin ditu,
biyak urrusiak,
urtiak emeretzi
ditu pasiak;
artua ta gariya
ongi mereziak
izan arren, opa ez
bere nagusiak;
larrian gosiak,
beti oñaziak,
jo du perlesiak;
illiak guziak
ditu zikiru zarrak
bezin luziak.

4/ Lapurtxulo'ko bentan
—al dezute jakiñ?—
iru zikiratzalle
ta bi arakiñ:
Anton, Pello, Lorentzo,
Andres eta Joakiñ,
sukaldian musian
illenti bi errekiñ;
aien kia zikiñ,
ardua eraten ekiñ,
sabelian irakiñ,
purrut eta kakiñ;
zakurra nazkatu zan
usaiarekiñ.

5/ Katuak miau eta
zakurra zaunkaka,
baratzako pikuan
ontza ujuka;
neska zarrak argiya
doministikuka
itzali, ta ukullora
zerriya eztulka;
bei zarra marruka,
akerra merruka;
aiek danak joka
astua ostikoka;
oillarra esnatuta
kukurrukuka.

6/ «Ez al da nitzaz iñor
errukitzen danik?»
Neska zarran karrasi
aiek entzunik,
sukaldetik erantzun
zion Joxepa Antonik:
«Iruritzen al zaizu
merezi dezunik?
Egin gabe lanik
aberastasunik
izandu duanik,
zerura iyo danik,
iñor ere oraindik
entzun ez det nik.

7/ Donostia'ko Bretxan
zuk perretxikuak
saltzen dituzu bestek
bildutakuak;
piparrak Durango'tik
ekarritakuak,
zure sudur gorriya
beziñ aundikuak;
adarretik pikuak
eroritakuak;
arrautze freskuak
gorringo bikuak,
kukuak Landarbaso'n
egindakuak.»

8/ Neska zarran galaia
mutill zar prestua,
egin gabe lanikan
aberastua;
uste beti zuela
arrazoi justua,
ordain nai ezik berak
egiña gastua;
zuan pretestua
garisti lastua,
gosiak astua
besteri ostua,
isatsa ta belarri
biyak moztua.

9/ Ama nuan jostuna,
aita errotariya,
eta Mendaro nere
jaioterriya;
il zaizkit iru arreba
ta zazpi anaya;
itxuturik betiko
nuana begiya,
jarririk berriya,
bañan ez argiya;
okertu gerriya,
anima eriya,
izandu naizelako
pekatariya.

10/ Bi kana ta erdi luze,
gañera gizena,
urtiak zituala
iru dozena,
besteren aurra azten
iñure izana,
adixkidia zuan
Pepe Arozena;
zuan almazena
edozer klasena;
zirurin zezena,
sujeto zuzena,
neska zartxuarekin
jostatzen zena.

11/ Salgai ogei urteko
zaldiya Gernika'n,
perlesiya zuana
atzeko ankan;
etzan inguru artan
argalagorikan,
ez baizuan sekula
jan garagarrikan
eta babarrikan,
lastua bakarrikan;
etzuala indarrikan
oñazia birikan;
iñork etzion egiñ
eskeñirikan.

12/ Tolosa'ko ferriyan
bazuan garbua,
bi tragotan usturik
pitxar ardua;
adierazi naian
jo zuan bandua:
plazan erdiyan salgai
zuala mandua,
anka errendua,
bizkarra soildua,
gosiak auldua,
begiyan gandua;
eraiñ azi zion
diru-mordua.

13/ Opa zizkion baba,
artua ta gariya,
ura nai ezpazuan
ardua erariya;
kontrariyuak zuten
panparroikeriya,
lotu ziotenian
Usurbil'ko arriya,
zuana izugarriya
pixua eta neurriya;
buruan jarriya
ausi uztarriya,
Barrenso'k egiña
berri-berriya.

14/ Ernani'ko ferriyan
gertatua aurten:
Kontxexiri zerriya
ostu zioten;
Ambrosio eta Lorentzak
nola zeramaten
Eriñozu aldian
laister jakin zuten;
ikusi zuten
ardua eraten
gaztañape baten;
zintzilik zeukaten
zerriyaren gibela
erreta jaten.

15/ Aguazilla ondoren
zutela etzekiten,
kia zeriyon ardi-
txabola baten;
illenti bi errekiñ
eltzia irakiten;
ostu zuten zerriya
zintzilik zeukaten;
lokarriya eten,
lukainkak egiten;
galdetu al zekiten,
erantzun zioten:
«Piparrakin gustora
ditugu jaten!»

16/ Il zan Errenteriko
Xenpelarrek aiña
bertsolariyarena
izanik griña,
euskal erririk erri
dantzatu mingaña,
besterenikan ez det
publikatu baiña;
intentzioz piña,
ez asko jakiña,
sarritan egiña
gaizki esamiña;
beste askoren gisa
buru-ariña.

17/ Jakiñ arren promesa
zenduala egiñ,
aita Xeledonio
zuri armoniñ;
ixpilluaren aurrian
usariyo berriñ
burutik orporaiño
apaintzen alegiñ;
oñak ariñ-ariñ,
zankuak agiriñ,
ipurdiari eragiñ,
festa zala Ernaniñ;
zu ziñan politena,
Joxepa Gariñ.

18/ «Nor da zure ondoren
dezun amantia,
biotzian duana
borondatia?»
«Ni nauana besterik
ez bezin maitia;
erregalatu dizkit
diru asko kostia:
urrezko katia,
erraztun diamantia,
duana brillantia,
dualako dotia;
baibena ezkontzeko zuk
nai du ematia.»

19/ Al duanak len bezela
orain egiten du:
jan ta eran ongi eta
dotore apaindu;
soñua *zirrin zarran*
pozgiroz ibildu;
abiatu ziñaten
zuanian illundu;
besotikan eldu
ta etxera berandu;
dizunak lagundu
egiya esaten badu,
baibena emango dizut
eta ezkondu.

Lenengo bertsoa, oso ezberdin dago bertso-pa-
per batean:

Aitu zitzaizkanian artua eta gariya,
Patxi Mokollok salgai zuan iriya;
Barrensorok egiña buruan eztarriya
zuala, errex ibilli Usurbilko arriya;
txit ondo neurriya,
sendua gerriya,
egun erraldiya,
zan ikusgarriya;
erostuna Oiartzun'go errotariya.

«MERKE DAUDE ALPERRENTZAT...»

Doñua: *Pasadoble S. S.* (1)

1/ Merke daude alperrentzat
erari gozuak,
jaki saltzan eperrak
eta usuak;
eta langillentzat
beti erasuak,
igas eiñ ez dezagun
jarririk lazuak;
oien abisuak:
egiteko errezuak;
diote auzuak
dirala erosuak;
orregatik jartzera
nua bertsuak.

(1) Ez dakigu zer doñu dan auxe. Bañan bederatzi puntuko doñuaz kanta ditezke bertso auek.

2/ Biar det Donostia'n
nola geran bizi
auzotar guzieri
adierazi;
langilliari karga
andiak eratsi,
ta diru gutxi gauzak
geza ero gazi
egiteko erosi;
orla naian ezi,
—al degu merezi?—
diralako asi
kalian ibiltzia
naian galazi.

3/ Usaindu eta gero
jela eta gatza,
zazpi errialian
libra legatza;
berrogei zentimuan
arrautza bakoitza,
pezetak zazpi t'erdi
dauka ikatza
zaku erdi utsa;
ta etxe-bizitza
topatzen ekaitza;
jabe oien gaitza:
errenta garisti ta
bekoki beltza.

4/ Beste zer egin gabe
azoka eta feri,
atso ipurtaundiak
dabiltza ugari;
arrautzak merke artu
baserritarreri,
eta Donostia'ra
saltzera ekarri;
birian kantari,
keñuka alkarri,
onak alperreri,
txarrak zintzueri;
Kontxa begi-bakarra
dute giari.

5/ Asko panaderuak
keja dira, baiña
ez bezate damurik
ortan ekiña;
ogia karu saldu,
merke artu iriña,
eta, zer esanik ez,
pixua ariña;
azala ikatz eiña,
barrengo mamiña
sarritan gordiña;
ez da atsegiña
orrek egiten digun
tripako miña!

6/ Polikarpo eta Kosme
kontzientzizkuak,
aspaldi tabernari
jarritakuak;
salgai omen dauzkate
zigarro puruak,
berrogei zentimuan
errialekuak;
prezio fijuak
selluakin juak
dauzka estankuak;
gu gera kaikuak;
auzotar asko diran
bezelakuak.

7/ Pello eta Timoteo
dira arakiñak,
eskola gutxi duten
asko jakiñak;
guri ongi kostian
diruan ordaiñak,
ezurrak puskatu-ta
sebua eta zaiñak;
dira oien azaiñak,
leunak mingaiñak,
jan samur mamiñak,
gisatu bikaiñak;
Judas Iskariote
zan bezin piñak.

8/ Udaran bildur giñan
zalako leorte,
babarrun gutxi baiña
da sagar-urte;
orren zumuarekin
zer egingo dute
neurri txikiak jarri
ta saldu bitarte?
Oiek ondo ez bete
degulako kalte;
danari alkate
emango'iot parte;
ta erua naizela
esango dute. (2)

(2) Onen ondoren beste lau bertso datoz: lenengo biak euskeraz, bañan liburu ontan len ere jarrita daudenak; beste biak erderaz ta jartzetik merezi ez dutenak.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea; ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

Bertso-papera, «Imp. Aurrerá», Tolosa'ko Isaak López-Mendizabal jaunak Buenos Aires'tik bialdua.

«BERTSO BERRIAK
PUBLIKATZEKO...» (1)

- 1/ Bertso berriak publikatzeko
orain artu det idia,
iñori miñik eman gabe nik
aitortu nai det egia;
aspaldi gauza asko
dauzkat ikusiak,
batzuek txit politikak,
baita ere itxusiak;
orain nua artzera
nolabait neurriak,
enteratu deitian
euskaldun guziak.

(1) Bertso auek zer doñu duten, ez du Mendarok esaten; bañan *Galtzaundi*'ren doñuaz kanta ditezke.

2/ Zori gaiztuan gure izaerak
ia egin zaizkigu aztu,
gure txuntxuna jotzen astian
iñork dantzan egin nai eztu;
asko zori gaiztuan
egiten dira lotsatu,
gauza orretxek asko
egiten nau nazkatu;
oraingo sorginkeriak
geiegi gustatu,
axerien tankera
egin degu artu.

3/ Lotsa naizela aitortzen det nik,
nola ez naizen santua:
zori gaiztuan aztutzen zaigu
laugarren mandamentua;
ez ditugu maitatzen
gure gurasuak,
guregatik ainbeste
nekatutakuak;
aditu zer esaten digun
guzion Maixuak,
onak izan deitian
gure ondorengiak.

4/ Oso dotore azaltzen dira
Euskalerriko neskatxak,
ez dakit nola sortzen dituzten
orlako lujo-jantziak;
txanbrak botoirik gabe,
zabalik paparrak,
luzitzen dituztela
atorraren puntillak;
legiak aintzen diote
segitzeko bera,
erakutsiko digute
oraindik txilborra.

5/ Atso asko ere ikusten ditut
aspaldi nola dabilzan,
mantilla eta liburuakin
izaten dira elizan;
begira nor daguan
altare nagusian,
kritikatzen ai gabe
sorgiñaren gisan;
paparrak zabalikan
dabiltza kalia;
nik galdetzen diotet
erotu al dian.

6/ Oien soñekuak ikusten ditugu
zintzilik zintak eta borlak,
apaindu naian egiten dute
narrastu beren gorputzak;
geruago laburrago
dabilzkite gonak,
erakutsi nairikan
beren pantorrillak;
amar ontza ta erdi
zapaten takoiak;
aixa luzatzen dituzte
atzera ipurdiak.

7/ Beren klaseko langilliekin
ez dutela nai ezkondu,
igarri gabe asko egiten dira
orregatik neskazartu;
danok nai dituzute
estudiantiak,
zubek izanagatik
langille tristiak;
orra zer ekartzen duan
dotore jaztiak,
alkar galtzen dezute
gazte inorantiak.

8/ Dotore jazten diradelako
egiten dira arrotu:
aita kalia ikusi eta
saludatzia lotsatu;
ama malkotan urtzen,
motibuak ditu,
eta seme-alabak
nai ez errukitu;
zeruen konsejuak
txit goguan artu,
ordu triste batian
etzaigun damutu.

9/ Arritzen gera ikusitzian
soñeko askoren tankerak,
iduritzen zait oiek dirala
ero guzien banderak;
nola merkatu diran
aspaldi perkalak,
zintzilik dabilzkite
zintak eta borlak;
botak txarolezkuak,
galtzerdi lasaiak;
amak konpondu biar
beren zarpa zarrak.

10/ Beren arpegiak autsez beterik
itxusitutzen dituzte,
kolore gorriak mozkorrenak
dirala esaten dute;
ai, mirabe gaixuak,
erantzun nazute:
nungo medikuakin
konsultau zerate?
Puzkar bat botatzeko
indarrik ez dute,
ai zer muxar-kuadrilla
juntatzen zerate!

11/ Arotz eta argin eta igeltsero,
asko geiago badira,
bikaiñ askuak zori gaiztuan
mutilzartutzen ai dira;
nik ikusten det ongi
askoren ibillera:
neskak axeriekiñ
bailetik zinera;
mutillak zurrutian
dibertitzen dira,
damutuko zaiote
ezkontzen ez badira.

12/ Borondatia galtzen ai gera,
au da gauzarik txarrena,
naiago nuke gezurra balitz
orain aitortzen dedana:
semiak aitu nai ez
aitaren esana,
alperkerian dabiltz
galdu naian fama,
lanik egin gabe nai
jana eta erana,
onela dijua galtzen
kristandare dana.

13/ Axeri asko sartu zaizkigu
gure ardien tartian,
arkume gaixuak ementxen gaude
orruaz sasi tartian;
gure lengo artzaiak
nolakuak zian,
fedia zeukatenak
beren biotzian:
zakur onak jarrita
mugaren ertzian,
ondo zaitzen ginduzten
danok pagotxian.

14/ Neronen miñak sendatu eziñ,
besterezako mediku,
nere bertsuak irakurtzian
asko egingo dira arritu;
egia biotzetik
egingo det aitortu:
nik ere badadukat
nori kargua artu,
bañan danori nai det
ongi desiatu;
aingeru gaurdakuak
zaituko al gaitu!

15/ Barka nazute gaizki esan badet,
ez penarikan iduki,
abur danori, urrengo baten
itz egingo det obeki;
Mendaro'n egiñ nitzan
jaio eta azi,
apaiz on batek ziran
dotriña erakutsi;
konseju onak ez ditut
goguan iduki,
nere moduko danak
nik ditut erruki.

Bertso-papera, «Imp. J. Díaz. – Irún», Erren-
teri'ko Jertrudis Arrieta zanari jaso.

«MENDARO'N JAIUA NAIZ...»

Doñua: «*Cuando yo sea alcalde...*» (1)

- 1/ Mendaro'n jaiua naiz,
Donostia'n bizi;
ezin du nere andriak merke
gauzarik erosi. *Ja, jai!*
- 2/ Luzifer deabruaren
Ebanjeliyua,
salgai dutenak urdai-azpikua
eta oliyua.
- 3/ Saldu nai digutela
babarruna merke,
ori gezurra ez baldin bada,
mesere genduke.
- 4/ Urdaiarekin onak
dira babarrunak,
Goierrikuak izango ditu
diru asko dunak.

(1) Alegia: «*Begiak farrez-farrez...*»

- 5/ Al dualako bizi-
modu erosua:
iñon diraden jaki obenak
ta erari gozua.
- 6/ Bijiliya egunero,
koipe gabe azak,
langilliarentzat alperrak nai
ez dituan gauzak.
- 7/ Ez dakigu nunguak
duten almazena;
ogei ta bi pezetaren ordain
arraultzak dozena.
- 8/ Moztutzia nai badu
bizarra eta illiak,
emezortzi errialtxo biar
ditu langilliak.
- 9/ Ez ditugu oraiñ merke
txitxarro berdelak;
pezetan emezortzi gaztaña,
erdiyak ustelak.
- 10/ Errialian paper
egunerokua;
orain lau zakur aundiren ordaiñ
gezurra naikua.

- 11/ Naizenian agintari
probintziakua,
izango dezute merke ogi
zuriya naikua.
- 12/ Da nere konsejua
ez erateko urik:
ardo txuriya eta pattarra,
goizian baraurik.
- 13/ Neskatxa gazte polit
Euskal-errikuak
luzituko dituzte soñeko
moda berrikuak.
- 14/ Mutill gustokorikan
badute ondoren,
damu izan gabe gero alperrik
ezkondu lenbailen.
- 15/ Neskak amoriyozko
penak biotzian
ditu, mutill gustokuarekin
enamoratxian.
- 16/ Mutillak ezkontzeko
dute desiua,
bada neskatxa ona duana
edukaziua.

- 17/ Bada zekena eta
inbidiosua,
nola demontre mereziko du
estimaziua?
- 18/ Neska zarrak duala
ostentaziyua,
mutill zarrari jartzen bazaio
kontribuziyua.
- 19/ Iduritzen bazaio
ez dala berandu,
gaztetan galai zuanarekiñ
ezkondu naiko du.
- 20/ Oieratu baño len
suaren onduan
oiñak berotu biar, ezkontzen
badira neguan.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, bañan
dudarik gabe Errenteria'ko Makazaga'renean mol-
dizkatua; Imanol Laspiur, Eibar.

«OTE, TXILLAR, ELORRI...»

Doña: *Bederatzi puntuan.*

1/ Ote, txillar, elorri
tartian gordiak,
inguruan kantari
txori alaiak,
zakurraren bildurrak
gose ta egarriak,
Norteko izartxua
dan beziñ argiak
zabalik begiak,
lo zegon erbiak;
ezker-eskubiak
zeuzkan belarriak
almitz igarra bezin
ttente jarriak.

2/ Trikuari axeriya
orrazten illiak,
malezia guziko
animaliak;
besteri egiteko
esan bijiliak,
bokartak itxasuan
bezela baliak;
soluan beliak
izanik zaliak
irintxi aliak,
bañan langilliak
lore biltzen eztiya
eiteko erliak.

3/ Trikuak erakutsi
zizkioten ortzak,
zeuzkala axeriyak
bezin zorrotzak;
errukitasun gabe
egiñ eriotzak,
odola zupatzeko
ollo ta bildotsak;
luma gabe otzak
jan txito ego-motzak.
«Zerate arrotzak
—esan zioten ontzak—;
arrizkua zirurik
zuen biotzak.»

4/ Zitalkerian jaurti
berria larrua,
ikusirik subia
zabalik aua,
ta bizirik irintxi
zuala sagua,
sugarriyan txepetxa
zaitzen gabiraua;
ego-aize arrua,
eguzki berua;
elbarri mirua
autsirik egua;
kantari xoxua ta
birigarrua.

5/ Bare adar-bakarrak,
ankatik errenka,
buztanatik igelai
zion aginka;
inguruan jostatzen
txituak amaika,
erbiñudia aien
ondoren segika;
kolka karraxika;
sasitik korrika
agertu zan mika
ta gizona arrika;
sator zarrak begira
lasai birika.

6/ Gosiak napar zerri
argalan desditxa,
ortzak agiri autik
zeriyon bitsa;
ezkurra zeriyola
basuan urritza,
basarritxo, izena
duana Antzubitza;
ganbaran garitza;
arrapatzen gaitza
atearen giltza;
biorrak irrintza,
astuak esan zion:
«Jan zak almitza!»

7/ Debozio jatorrez
dotriña irakurri,
eta lanian zazpi
milloi txingurri;
erletxuak loria
bezela ekarri,
jakiya negurako
ez dezaten urri;
legia ondo neurri,
txelatan igarri
dana alperrari,
esanaz alkarri:
«Mizto zorrotzarekin
ill edo elbarri!»

8/ Juan Pello pipa erretzen
doministikuka,
baratzan basakatu
arra miauka;
mando arra ta emia
asarre burruka,
eta gosiak zerri
ordotsa kurrinka;
astua ostikoka,
ardiya orruka,
akerra merruka,
bei zarra marruka,
zakurra isats belarri
motza zaunkaka.

9/ Goizeko egunsentiyan
ontzaren ujua,
eta ollartxuaren
kukurrukua;
jostatzen arratoia
eta konejua;
izugarrizko arrautza
gorringo bikua
utzita dijua,
alper marrajua
nola dan kukua;
txantxangorritxua
arren umia azten
larri gajua.

10/ Jardiñ ederrarekiñ
olluak kuartela,
dutela presidente
pabo reala;
basakatua jarri
dute zentinela;
bañan egin zaizkio
sartu beriala
gabirau argala,
lagun dituala
butria ta bela,
ta egin pastela;
presidentia itoko
zuten bestela.

11/ Axeriya gosiak
il zala Ernani'ñ,
igelak isatsari
zion eragiñ;
esan zuan: «Mokadu
goxo asko jan diñ!»
Ollagorra entzuten
asi zan armoniñ:
«Ai zan, begi-urdiñ,
ez burlarik egiñ,
inpernuan erdiñ
zorrra ordaiñ gediñ; (sic)
iregatik zarbuak
zer esango diñ?»

12/ Ikusirik gosiak
butria egetan,
otso zarrak ardiyak
zaitzen bordetan,
basurdia umiekiñ
arto-soluetan,
azkonarra basuan
aritz-ezkurretan,
astua errotan
izan eta bueltan
asi zan olgetan
saltoka benetan,
mando-euli batekiñ
barrabilletan.

13/ Sagu xarra txeletan
odoldi-zokotik,
koska erbiñudiak
zion egotik;
karakolak adarka
zorrotz ingurutik;
eguak astinduta
kantari gogotik
kilkarrak zulotik;
makarrak begitik
begira barrutik
egoteagatik,
satorrari pixa egiñ
zion burutik.

Bertso-papera, Makazaga'renean moldizkidatua
ta bertan jaso.

(1943)

«SASKI AUNDI BAT ONGI BETIA...»

Doñua: «*Ume eder bat...*»


- 1/ Sasaki aundi bat ongi betia,
andre Lorenza Beldarrain,
esaten dezu: «Gauza guziak
garisti ez daude orain.»
Aza koxkorra salgai dezula
iru pezetaren ordain,
galdetzen dizut: Oien aziya
baratzan nork zuan erain?

- 2/ Oien aziya zala eraiña
beste bateren baratzan,
andre Lorenza, zu zeralako
ez dakizuna labrantzan;
egiyen ordain gezur galantak
mingaiña gustora dantzan
saiatzen zera, gero zerura
iyotzeko esperantzan.

3/ Aurra azteko inñudiari
eta zu arrokeriyan,
buruko illiak zuritzen eta
jantzirik moda berriyan:
gonatxo motza, belaun koxkorrak
dituzula agiriyan;
txoruagorik ezta zu baño
beste bat Euskal-Erriyan.

Mendarok liburuxka bat, *folleto* bat argitaratu zuan «*Popurri de varias canciones*» izenarekin. Moldiztegia, beti bezela: «Imprenta Macazaga. – Rentería». Oiartzun'en, Garmendi-txiki baserriko Tiburtzia Etxebeste'ren eskutik jaso genduan. Iru bertso auek, liburuxka orretan arkitu ditugu. Urtea ere, 1943, bertan jartzen du.

**DAMA-GALAIK,
SENAR-EMAZTEAK,
NESKA-MUTILZARRAK**



PATXI MOKOLLO ETA
JUAKIÑA TXELDEN

- 1/ —Habana'ra juan nitzan
arditikan gabe,
egin ogei urtian
bost milloiren jabe;
belarri biak tente,
memoriya argi,
ezer etzan tokiyan
atzaparrak garbi.

*Txin, txin, txin, txin,
diruaren otsa,
guziori alaitzen
diguna biotza.*

- 2/ —Almena izan arren
dirua irabazteko,
ez dezu orratzirik
illiak orrazteko;
alkandora zikiña
jaiko eta asteko,
ez dezula besterik
soñian jazteko.

3/ —Ez naiz lanian zintzo
saiatua, baiña
alkandorak baditut
atorrak zuk aiña;
berritsua galanta
zu zera, Juakiña,
moztutzia merezi
dezuna mingaiña.

4/ —Aukeran zenduala
txikitan oitua,
zure bizi-modua
beti orditua;
sudurra piparraren
gisa gorritua,
barku zar baterako
a zer pilotua!

5/ —Abuan ez dezula
agiñ eta ortzik,
aiñ gutxi mingañian
egiyazko itzik;
eskuan polsa aundi
dotoria utsik;
neska zarrari ezin
alaitu biotzik.

6/ —Gorrotua urari,
ardua memoriñ,
pitxar bat eran arren
geiagon inbiriñ;
etxera balantxaka
lurrera iya eroriñ,
galtza zarren zulentik
ezurak agiriñ.

7/ —Zankuak agiriyan,
gonatxua motza,
sudur gorri luzia,
zimurra kokotza;
zure begiratua
dezula zorrotza,
buruko tximak arro,
dirurizu ontza.

8/ —Gazterik alperraren
karrera bukatu,
egundaiño etzera
lanian nekatu;
gaiñera egin dituzun
zor danak ukatu,
iduritzen al zaizu
ez dala pekatu?

9/ —Nere gisa lanian
gutxi nekatua,
zorrak ez ordaintzia
bada pekatua,
zeralako ni baiño
geiago ukatua,
zaude ixilik, neska zar
madarikatua!

10/ —Atarramentu onik
ez dute mozkorrek,
zuk dituzun bezela
tabernetan zorrak;
nik soiñekua bezela
sedazko atorrak,
ditut nere ondoren
zu ez bezin jatorrak.

11/ —Errekiña bezela
pipan erretzeko,
ardua gauza ona da
mutill zarrentzako;
neska zar dezutenak
gogua ezkontzeko,
moda berriyen billa
dotore apaintzeko.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga» — Rentería»,
Jose Joakin Mitxelena bertsolaria, Iturriotz, Oiar-
tzun.

Askotan argitaratu zuan Mendarok jarri-aldi
au. Orregatik naste aundia litzake bakoitzaren
aldaketa guziak emen jartzea. Bakoitzak dituan
bertso berriak jarriko ditugu.

* * *

Bertso-papera, Makazaga'renean inprentatua ta
zeñi jaso nion apuntatu ez nuana:

Sagarduak ez badu sagarraren antzik,
mutil zarreri ezin alaitu biotzik;
eran biarko degu, iñun bada matsik,
ardo txuri goxua, ez badegu beltzik.

* * *

Bertso-papera, Makazaga'renean inprentatua ta
Azkoitia'ko Demetrio Alberdi'ri jaso:

Zentzurikan ez arren ustez jakintsua,
dezula adiskidea Kontxexi atsua;
zuk bezela mingaiña duana indartsua,
kilkarra Maiatzian bezin berritsua.

Andoañen festak Maiatz illaren iruan,
iruripenak biyok jatorrak buruan,
etzan arritzekua ain sasoi eruan,
gaur ez dago atsegiñ zure inguruan.

Etziñazun benetan egin mandatua,
zeunden beste batekin enamoratua,
ez dezu aitortu nai zure sekretua,
mozkor alper gezurti erdi erotua.

* * *

Bertso-papera, Makazaga'renean inprentatua ta
zeñi jaso nion apuntuta ez nuana:

Nik det milloi erdi bat inguru dotia,
pianua egun milla errial kostia,
urrezko errelojua, ta zu arlotia,
bestereña soñian dezun kapotia,
zuriturik bizarrak eta bigotia.

Biotz-biotzetikan benetan jasua,
debozioz egiten dezu errezua;
txokolatua egunian bi aldiz gozua,
komeni zuri bizi-modu erosua,
pakean daguanari jarri arasua.

* * *

Bertso-papera, au ere Errenteriko Makazaga'k
moldizkidatua, Elgoibar'ko Jose Maria Etxaniz
Urruzuno'ri jaso:

Festan alkarrengana inguratu giñan,
artaraño ez nakiyan zu nungua ziñan;
nitzaz gustaturikan galdera zuk ziñan:
desiotan zeundela ta ezkonduko giñan.

Ori galdetu nizun ordu beranduan,
txapela jarri nizun neria buruan,
ardi-txabola zartxo bateren onduan;
gaur baño atsegiñô zan zure inguruan.

Asarre nere gisa dago nere ama,
desamparatu naian dezulako tema;
zuk ez bezelakuak onra eta fama
ditut, tatxa gabia naizelako dama.

Igandian orditu, astelenian jai;
egiya da orduan erantzun nizun: bai;
zurekin ezkontutzerik nere amak eztu nai,
maiorazgo aberatsa topatu dit galai.

Zuri gustatzen zaizu ongi jan eta eran,
zera ostentaziua dezuna jazkeran;
diozunez galaiak dituzu aukeran,
nai det jakiñ zergatik ezkontzen etzeran.

Ditudalako ikusten makiña bat ero,
sartu bear litzakez, dauden bero-bero,
neskatillen ondoren ezkondu ta gero,
dentro de la caldera de Pedro Botero.

Gaztetan ilusio geiegi buruan,
galai aukerakuak zure inguruan;
dantza gustora orduan egiten genduan,
orlako gora-berak oi dira munduan.

NESKAZARRAK

(XELEDONI TA JOXEP-ANTONI)

Doñua: «*Nagusi jauna...*» (1)

Xel.: Joxep-Antoni, nai nuke jakiñ
ezkondu al ziñan eta norekiñ.

Jox.: Ez nau iñork ere kortejatzen
asi naizelako neskazartzen;
alperrik damu;
gôatu naizelako berandu,
ez det galairik ta eziñ ezkondu.

Jox.: Zuk, Xeledoni, badezu garai,
zure gustokorik al dezu galai?

Xel.: Joxep-Antoni, zure moduan
gertatzen naiz ni ere munduan,
ta ez naiz arritzen:
perrejillak, ostuak oritzen
asi ezkeru, ez du serbitzen.

(1) Alegia: Bilintxen Juana Bixenta Olabe-
ren doñua.

Xel.: Orpo-luziak oiñetakuak,
galtzerdi lokarri-piñ sedazkuak,
gona motza, belaunak agiriñ,
eta ipurdiyari eragiñ,
argi begiyak,
autsak arpegin, ezpain gorriyak;
zu prenda zarra, modak berriyak.

Jox.: Zuri ere illia, neri bezela,
zuritu zaizu, ta zimurtu azala;
soldata gabe zaude serbitzen,
besteren oriñalak garbitzen,
nik ainbat lotsa;
orpuen takoiak zazpi ontza,
soiñian gona nik beziñ motza.

Xel.: Jaio Mutriku'n, azi Olatz'en,
Astigarrabiya'n gero serbitzen;
nuan galai gazte florekua,
tanbolintero Mendaro'kua,
mutil majua,
zuri eta neri ttunttuna jua,
a ze nolako aparejua!

Jox.: Egiya da, bai, ttunttuneruak
dira lautik iru zurruteruak;
sukaldian, garai beranduan,
nai zuala neri su onduan
muxu ematia,
nizkion, arturik illentia,
erre sudurra ta bigotia.

Xcl.: Txoriya bezin alai gaztetan,
gustoko galaia nuan festetan;
jazten nintzala moda berrian,
esan oi ziran: «Euskal-errian
ez det besterik
ikusi ta espero ikusterik
zu bezelako dama gazterik!»

Jox.: Nik ainbat urte zuk onuzkero,
gazte florekorik al dezu espero?
Artuko nuke ni bezin zarra,
zuritua illia ta bizarra,
naiz arlotia,
alkandora bat duana dotia,
ona duana borondatia.

Xel.: Uste degula relijiyua,
baña diruaren anbiziyyua;
guziok nai galai aberatsak,
alperrikan egiñak ametsak
gero zu ta ni.

Jox.: Ez izan dudarik, Xeledoni!

Xel.: Arrazoi dezu, Joxep-Antoni!

Liburuxka bat, Mendaro'k bere bertso-mor-
doxka batekin Errenteria'ko Makazaga'renean
moldizkidatua, eta Oiartzun'go Garmendi-Txiki
baserriko Tiburzia Etxebeste'gandik eskuratua.

ATSUA TA AGURIA ERRIETAN

Doñua: «*Markesaren alaba...*»

1/ Atsua ta aguria,
juan dan Abenduan,
zeuden oñak berotzen
suaren onduan;
atsuak, asarratu
ziraden orduan,
burruntzaliyarekin
jo zuan buruan.

2/ —Amoriozko ezkontza
zerratu genduan,
ardi-txabola zartxo
bateren onduan;
nik zu bezela maite
ninduzun orduan,
gaur ez dago atsegin
zure inguruan.

3/ —Etziñazun benetan
egiñ mandatua,
zeunden beste batekiñ
enamoratua;
ez dezu aitortu nai
zure pekatua,
alper mozkor gezurti
madarikatua.

4/ —Nuan adiskiria
neskatxa liraiña,
berritsua zure gisa
zuana mingaiña;
iñude izandua,
ezkongaiia baiña;
nik oraindikan ura
maite det zu aiña.

5/ —Ardua eratian
jartzen zera bero,
balantxaka etxera
berandu gauero;
beko errotako asto
arra beziñ ero,
neskatxaren ondoren
ezkondu ta gero.

- 6/ —Tabernatik etxera
naizela berandu,
txanponak dituanak
ori egiten du;
ni kaskarran jo ta
ez dezula damu,
ez nazu asko maite,
andre Mari-Manu.
- 7/ —Balantxaka etorri
zera, tunantia,
ezin galazi dizut
ardua eratia;
eskuan artzen badet
sutako illantia,
erreko'izut sudurra
eta bigotia.
- 8/ —Zure sudur gorriya
luzian bost ontza,
masaill-ezur igarrak,
zimurra kokotza;
buruko illiak arro,
dirurizu ontza,
damu det zerratua
zurekin ezkontza.

9/ Ilusio geiegi
ustez jakintsua,
aurrikan ez degu ta
oraindik antzua;
ixillik eziñ egon
zu zera, atsua,
kirkirrak Maiatzian
beziñ berritsua.

10/ —Zuri ere okertu
zaizkizu gerriyak,
ortzik eta agiñik ez,
gortu belarriyak,
illiak banakatzen,
lausotu begiyak;
juan ziran gaztetako
gure arrokeriyak.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. — Rentería»,
bertan jaso.

Amar bertso oien ondoren beste bi bertso, ba-
ñan gaiarekin zer ikusirik ez dutenak eta len ere
liburu onetan jarriak daudenak.

* * *

Liburuxka bat, «Imp. Macazaga. — Rentería»;
ez nuan apuntatu zeñi jaso nion; bederatzigarren
orritik aurrera, amar bertso auek, aldaketa aue-
kin:

9/3-4: zure lagun auzoko neskazar antzua.

5/ Beko errotako asto arra beziñ ero,
neskatxen ondoren ezkondu ta gero;

zorretan ardua eran, orditu egunero,
balantzaka etxera berandu gabero.

* * *

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Orio'ko Gregorio Ibargoyen zanari jaso. Alda-
ketak:

- 2/1-4: Errekadua nizun biar zan moduan,
amoriyozko ezkontza zerratu genduan;
- 4/ – Ziñan ogei urte ta neskaxa bikaiña,
balio zenduana koxkor birek aiña;
adiskide polita, egiya da, baiña
ura zan ez nuana nik maite zu aiña.
- 5/ – Erori eta loitan guri-guritua,
etxera goiz aldian zera orditua;
sudurra piparraren gisa gorritua;
belako barkurako a ze pilotua!
- 7/ Balantzaka etorri zera, tunantia,
ojala ez banizu iriki atia;
nik galaziko dizut ardua eratia,
eskuan artzen badet sutako illentia.
- 8/ – Jeniyua zitala sorgiñaren antza,
tertuliara juanda gezurra ta saltsa;
atso demoniua, alperrik zabilta,
ardua erango det dan artian matsa!

9'garrenik ez dakar; ta 10/1-2: Zankuak nagí
eta okertu gerriyak,

* * *

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Tolosa'ko Antonino Lakuntza zanari jaso. Au-
rreko papera bezelaxe.

«BURUTIK ORPORAIÑO...»

1/ Burutik orporaiño
gorputza liraiña,
zera dirurizuna
zeruko erregiña;
ez det munduan maite
besterik zu aiña,
dama gazte politak
asko dira baiña.

2/ Urtiak ogei ta bi,
sasoirik obena,
esposatzeko badet
amaren baimena,
baita ere nere aita
Pello Joxerena;
duten amoriyua
da diruarena.

3/ Moda berriyen billa
dotore jazteko,
esan besteri ongi
dotriña ikasteko,
aurrik badute eman
iñudiari azteko;
a ze bizimodua
zerua irabazteko!

4/ Arduari bezela
ura esnari,
oliyua ez beste
gauza guzieri;
erantzuten dutenak
egiya dala ori,
sumatu eta esan
gezurrak ugari.

5/ Jaten ditugunian
aza ta porrua;
puzkarrik egin eziñ,
sabelian orrua;
sukalde illunian
katuak marrua,
ikusten zualako
iabe-zomorrua.

6/ Donostiako Bretxan
esan dit Ramonak:
«Salgai ditut garisti
baiña gauza onak.»
Aragiya ta oliyua
eta babarrunak
eziñ erosi, lana
egiten duanak.

7/ Dirua duanian,
basua betian
eraten dualako
mozkortu artian,
arduaren usaia
muxu ematian;
koxka egingo diot
alakoen batian.

8/ Irrintziz duteneri
ostentaziyua,
da neskazartxuaren
kontestaziyua:
«Ezkontzeko dezute
askok desiyua,
ta iñun billatu eziñ
abitaziyua.»

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Aizarnako Josefa Aizarna'ren eskutik.

Euskerazko zortzi bertso auek ezik, erderazko
beste zortzi ere badaude paper ontan. Txandaka
jarrita daude. Erderazko oiek, ordea, ez dute ar-
gitaratzerik merezi.

«IRU EDO LAU BERTSO...»

- 1/ Iru edo lau bertso
bear ditut jarri
oraingo neska gazte txoruan
moda berriari. *Ja, jai!*
- 2/ Oingo neska gaztian
soñeko berriak:
belaunetaño geien samarrak
arturik neurriak.
- 3/ Eta gañera berriz
zabalik paparrak,
erakustearren bularrak edo
aragi ederrak.
- 4/ Gizen samar dagonari
egiten dio luzitu,
bañan batzueri saiets-ezurrak
lezkate kontatu.
- 5/ Paparrak zabal eta
autsak arpegian,
zankuak eta besuak ere
oso agirian.

- 6/ Gona laburrak eta
atorrarikan ez,
ôingo neskatxan jazkera dala
nik egin det amets.
- 7/ Eta ikusten dira
illiak moztuta,
lujuak eta txorakeriak
dabiltza poztuta.
- 8/ Kokota apainduta
daukan neskatilla,
atzetik begiratu ezker
dirudi mutilla.
- 9/ Neska zar bi zebiltzan
juan dan jaiean
beren kokotak apaindu eta
gaztetu naiean.
- 10/ Atzetik eman arren
gaztiaren antza,
arpegiako azala dute
zimurra ta latza.
- 11/ Neskatx oiek artutzen
badute senarrik,
oien illiak salduta ez du
artuko mozkorrik.
- 12/ Esposatu ta ere
illiak moztera;
senarra berriz bazkarien zai
oieri begira.

- 13/ Aurra bularrian ta
illiak moztuta,
oieri begira egoten naiz ni
oso arrituta.
- 14/ Amonak emate'ioite
konseju ederrik,
baña oraingo gazte txoruakiñ
guztiak alperrik.
- 15/ Uste det egin dedala
naikua kantatu,
nar ta gaztiak, ikasitzeko
paper bana artu.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Mikela Labayen, Astaitzaga, Leitza.

Bertso-papera, «Imprenta Económica. – Viteri,
32», Donostiko Intxaurrondo ballarako Manuel
Yarza'ren eskutik.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Juan Sein, Igantzi.

Bertsolariya, 23 zenb., 1932.II.21.

Lau argitaraldi auek, ez dute alkarren artean
aldaketarik.

Bertso auek Abarrategi'renak dirala esaten du
Bertsolariya aldizkari onek; bañan Mendarore-
nak dirala batere dudarik ez da. Aren itxura dute
bete-beteen. Orregatik jartzen ditugu liburu on-
tan.

SENAR-EMAZTIAK
(JOXE MIGEL TA KONTXEXI)

Doñua: «Ezkongaietan...»

Jox.: —Andre Kontxexi, gure baratzen
bere lagunari erliak,
alperkeriyan zebillelako,
atera dizka begiak.

Kcn.: —Joxe Manuel, nola baiduten
jarriya zorrotz legia,
lanian zintzo saiatzen dira
txingurriya eta erlia.

Jox.: —Kukua kantari egunsentiyan
errekaldeko basuan;
iñudiari arrautza jarri
odoldi-kabi gozuan.

Kon.: —Axeri zarra txituak zaitzen
ollotxo kolka tontari,
gabiraua ta erbiñudia
zenbat zituan kontari.

Jox.: Andre Kontxexi, zuaz aguro
urritz-zigor bat artuta,
elbarri zazu axeri zarra
bizkar-ezurrian jota.

Kon.: —Joxe Manuel, ez da guria
bizi-modu erosua,
deabruari ez diot opa
onelako arasua.

Jox.: —Andre Kontxexi, len zerbait giñan,
zartu gera ta oaiñ ezer ez,
iñork ez digu kia ere opa
eskatu arren meserez.

Kon.: —Andre Kontxexi, jaki gozuak
salgai dituzte jarriyak
garesti samar; eziñ erosi
gu bezin errukarriyak.

Jox.: —Jan eta eran obenetikan,
jantzirik moda berriyan,
lanik sekula egin gabeak
asko dira Euskalerrian.

Kon.: —Jaki gozuak lenago salgai
agiri ziran zintzilik,
orain gordiak, aberatsari
saltzeko ixil-ixilik.

Jox.: Eltzian azak egosten pil-pil
ez urdai ta ez oliyo,
jaki merkiak sabel zarrantzat
ez dute asko baliyo.

Kon.: —Ez al dakizu, Joxe Manuel,
garisti daudela oraiñ?
Salgai zuanari erosi diot
aza duro baten ordaiñ.

Jox.: Aza oik baño obe genduke
lakai erdi bat babarrun,
sabela ongi ase ta gero
atzeko leiotik *run-run*.

Kon.: —Arrazoi dezu, Joxe Manuel:
lertu baño len sabela
noizik eta beiñ atzetik aize
usai gozoko epela.

Jox.: —Txokolatia gustatu arren
zuri egunian bitan,
ardo txuriya ni eratera
juaten banaiz, erritan.

Kon.: —Joxe Manuel, zuk neurri gabe,
osasunaren galeran,
ardo txuriya ta txakoliña
egiten dituzu eran.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. — Rentería»,
Antonino Lakuntza zana, Tolosa.

NESKA GAZTEARI

Doñua: «*Maritxu, nora zuaz...*»

1/ Neska gazte politak
estimaziyua,
dutela biyotzian
palpitaziyua;
ezkontzeko izan arren
askok desiua,
iñun eziñ billatu
abitaziyua.

2/ Ondoren dituztela
aukeran galaiak,
Maiatzian txoriyak
diran bezin alaiak,
neska mutill-zaliak
bere begi biyak
ditu goizeko izarra
dan bezin argiyak.

- 3/ Amoriyozko penak
ditu biotzian
mutillak, neskarekin
enamoratxian,
pekatu ez dala ustez
sukalde atxian
muxu bi ematia
masallan ertzian.
- 4/ —Ez da izango pekatu
muxu bi ematia,
loriak intza bezela
banazu maitia;
nik ere zuk bezela
det borondatia,
baña ez nuke naiko
zirri egitia.
- 5/ Ez da egiazkua
zure mandamentua,
zera beste batekiñ
enamoratua;
ez dezu aitortu nai
zure pekatua,
federikan ez dezun
gaizki edukatua!

6/ —Nizun lagundu etxera
garai beranduan,
ardi-txabola zartxo
bateren onduan;
nik zu bezela, maite
niñuzun orduan,
gaur ez dago atsegiñ
zure inguruan.

7/ Txoriyak inguruan
kantari naikua,
ura zan alaitasun
udaberrikua;
zan bezela eguna
zori onekua,
zurekin Ernio'ra
ni juandakua.

8/ Ango Gurutze Santu-
aren alabantzan,
oraziyua egiñ
eta gero dantzan;
ziñan beziñ politik
an besterik etzan,
nekatu giñanian
exeri belartzan.

9/ Loriak intza bezela
zu izanik maitia,
nuan iruripena
ta borondatia
masaill guri gorriyan
zuri ematia
lendabizi muxu bat,
ta gero bestia.

Liburuxka bat, Mendarok bere bertsoekin
Errenteria'ko Makazaga'renean moldizkidatua, eta
Elgoibar'en Antonio Arrillaga zanaren eskutik
jaso.

Ondoren beste bederatzi bertso datoz. Bañan
oiek beste jarri-aldi batzuetatik artuak dira.

«NUBEN IRUN'GO PLAZAN...»

- 1/ Nuben Irun'go plazan
ezagutu dama,
arrezkeroztik maiteangana
biotzak narama. *Ja, jai!*

- 2/ Amoriuan berri
uste nuben, baiño
nik ez nekian ori ezagutu
nuben arteraiño.

- 3/ Txukun orrazturikan
ille burukuak,
ta peinetillak Eibarren urrez
grabatutakuak.

- 4/ Ortzak erakutsirik
irripar ezpaiñak,
Apirillian intzari gisa
sasi-krabeliñak.

- 5/ Zerua ozkarbi gisa
urdiñak begiak,
Norteko izarrak keiñuka *kir-kir*
dan bezin argiak.
- 6/ Zuri-gorri arpegi-
aren koloria,
esan zeikian zala San Juan-
-sagarran loria.
- 7/ Esmeralda piñekin
belarritakuak,
ama beriak iñude zala
ibillitakuak.
- 8/ Lepotik paparrera
zintzilik medallak,
urre-zillarrak aiek lotzeko
katearen mallak.
- 9/ Esku-atzaparretan
urrezko eraztunak,
brillantiekin emezortziña
kilateko astunak.
- 10/ Txanbra piña kostia
iru duro kana,
gona ozt-ozta belaun koskorrak
estaltzen zizkana.

- 11/ Gerria liraña ta
bularrak senduak,
kurpiñuakin biri-biribil
ondo zuzenduak.
- 12/ Zankuak ziruriten
tornuan egiñak,
eta txepetxak bezin airosa
zebilzkian oiñak.
- 13/ Juan nitzan Larratxipe'n
bizi dan etxera,
biotzetikan maite nubela
adieraztera.
- 14/ «Gurasuak il ziran,
dauzkat iru anai,
eta zurekin esposatzerik
oiek ez dute nai.»
- 15/ «Ezagutzen al naute?»
egin nion galde.
«Esaten dute zu zabilzala
jan da eran debalde.»
- 16/ «Futbolista on bat naiz»
esan nion gero.
Erantzun zidan: «Nere ondotik
juan zaitez aguro!

- 17/ Enbusteria asko
bañan diru gutxi,
toki txarrera zera aldaba
jotzera iritxi!»
- 18/ Galde zidan: «Abogau
onen bat al zera?
Zapata zarrak, koipez betia
soñian trintxera. »
- 19/ «Laister jarriko naute
erriko alkate!»
Erantzun zidan: «Egingo dezu
mesede ainbat kalte!»
- 20/ «Lanian saiako naiz
poxpolo-fabrikan!»
«Senartzat ez det artu nai zure
moduko alperrikan!»

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Berga-
ra'ko Iosu Oregi'ri jaso.

NESKATXA GAZTIAK
(PEPA TA KONTXA)

Doñua: «*Maritxu, nora zuaz...*»

Pepa: Al den nai galai, Kontxa,
mutill langillia?
Diñat kalietako
zakar-biltzallia;
bigotiak zorrotzak,
luzia illia,
zurruterua eta
kortejatzaillia.

Kon.: Ez al diñ oraindikan
masalla igurtzi?

P.: Baita ere muxuak
eman bederatzi.

K.: Eta ik zergaitikan
egin dion utzi?

P.: Baiña gero zizkanat
ortzak erakutsi.

P.: Ikusten al den iñun
mutill gazterikan,
mozkortu eta txutik
ibilli eziñikan?
Nere galaiak ez diñ
eraten urikan,
aukeran dualako
ardua barrikan.

K.: Egarrituko dala
ni ez naun arritzen,
eskobarekin zakar
kalekuak biltzen;
asi zaizkion buruko
illiak zuritzen;
ez diñ arpegirikan
sekula garbitzen.

P.: Taberna txiki baten
txarrua betian
eraten dualako
orditu artian,
arduaren usaia
muxu ematian;
koxka egingo zionat
alakoen batian!

K.: Guri komeni zaigun
galaia ezkontzeko,
gaztia ta gizona
oia berotzeko,
urretan dituana
milloi bat ontzako;
prendak garisti zeuden
dotore apaintzeko.

Liburuxka bat, Mendarok bere bertso-mordoxka batekin Errenteria'ko Makazaga'renean moldizkidatua, eta Oiartzun'en Garmendia-Txiki'ko Tiburzia Etxebeste'gandik eskuratua.

Mendarok Makazaga'renean argitara-arazitako beste folleto batean, auetako lau bertso arkitu ditugu 1, 2, 4 ta 5'garrena, aldaketa auekin: 1/1: Al den, Joxepa, galai; 1/5-6: den len karameluak saltzen ibillia; 2/3: baita muxuak ere; 2/5-6: ez dala pekatua bazaion iritzi; 2/7-8: geiago eman gabe ezingo din etsi; 4/7-8: arpegirikan ez diñ beñere garbitzen; 5/1: Ain den zurruterua.

«JOXEPA ANTONI, BADEZU GARAI...»

Doña: «*Nagusi jauna, auxen da lana...*»

1/ —Joxepa Antoni, badezu garai,
mutill gustokorik al dezu galai?
—Moda berriyan apaindu arren,
ez det bat ere nere ondoren;
eziñ ezkondu,
gôratu naizelako berandu;
nere biotzak orain damu du.

2/ Ez da Maiatza, baizik Abendua,
neska zartxuaren bizi-modua;
beste geiago ere munduan
gertatzen dira nere moduan;
ez naiz arritzen:
perrejillak, ostrua oritzen
asi ezkerro, ez du serbitzen.

3/ Zer da munduko zoriontasuna?

Amoriyo egiazkua eta osasuna.

Poz-giroz alai erromeriyak,

zorioneko euskal erriyak,

nun-nai agiri

neska-mutill ederrak ugari,

gorroturikan gabe ñori.

4/ Gazte denboran nuan galaia
txoriya Maiatzian bezin alaia;

esan zian zala enamoratu,

nigana zanian inguratu,

toki ederrian,

Andoain deritzaion errian,

festak zirala uda berrian.

5/ Izanik biyak deboziyua,

gure Jaunari egiñ oraziyua;

gustora dantzatu zelaietan

ta etxera oiñez illargitan;

atia *tan tan*

goizeko iru ta erdietan;

ama negarrez, aita errietan.

6/ Egun-sentiyan atia joka,
katu arrak miau, zakurrak zaunka,
akerrari astuak ostikua,
oillarrak zuan kukurrukua;
oietik jeiki,
alaba zualako erruki,
atea zion amak iriki.

7/ «Konsola bedi, ama maitia,
det galai mutilla elegantia!»
Alabari, ori esan zionian,
muxu bi zizkion masaillian;
aitak algara;
sartu ziranian sukaldera,
nungua zan egin zion galdera.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Donostia'ko (Aiete, Oriamendi) Sebastian Sala-
berria'ri jaso.

Bertso-paper onek ez du emen bukatzen, er-
derazko lau bertso ditu euskerazko oien ondo-
ren. Bañan ez dute jartzerik merezi.

MUTILL ZARRAK NESKA ZARRARI
(TXOMIN TA FRAIXKU)

Doñua: «*Markesaren alaba...*»

1/ *Tx.*: I, Praixku, ta ni, Txomin,
egingo diagu,
komeni zaigulako
uda eta negu,
osasuna dezagun
Jaunari erregu,
ardua naikua eran
dirurik badegu.

2/ *Fr.*: Ardua gauza ona dek
mutill zarrentzako,
alaitu biotza ta
gorputza indartzeko;
neska zartxo dutenak
gogua ezkontzeko,
moda berriyen billa
dotore apaintzeko.

3/ *Tx.*: Asko dituk abuan
ez dutenak ortzik,
ain gutxi mingañian
egiazko itzik;
eskuan duten poltsa
geienian utsik,
etzaiotela falta
arpegian autsik.

4/ *Fr.*: Guk arduaren ordaiñ
ditugun txanponak;
tertuliyan esan dik
Joxepa Ramonak,
bere usariyuak
diradela onak,
belaunak agiriyan
dituala gonak.

5/ *Tx.*: Tertuliyan giari
dituztela otsuak,
neskazartxuak lagun
dizkitek atsuak;
berriketa ugari,
ustez jakintsuak,
kilkarrak Maiatzian
bezin berritsuak.

6/ *Fr.*: Gu mozkortzen gerala
esaten zebiltzik,
jakiñ arren egiten
ez digula gaitzik;
guk erango diagu,
iñun bada matsik,
ardo txuri-goxua,
ez badegu beltzik.

7/ *Tx.*: Sagarraren zumua
salgai daguana,
aparra dariyola
erango deguna,
neskazartxua xaltxan
piparra duana,
gañian tiarekin
ttotta kopa bana.

8/ *Fr.*: Asko dituk neskame
daudenak serbitzen,
kuidatu aurrak eta
ontziyak garbitzen;
azala zimurra ta
illiak zuritzen;
mutillik ondoren ez,
biotza sufritzen.

9/ *Tx.*: Oietan argalenak
galaia ezkontzeko
nai dutela gaztia
oia berotzeko;
jan da eran ongi eta
dotore apaintzeko,
urretan dituana
lakai bat ontzako.

10/ *Fr.*: Nere desiua dek
adierazteko
ezkontzen diraneri,
zerua irabazteko:
ôingo moda berriyan
dotore jazteko,
aurrik badute eman
besteri azteko.

11/ *Tx.*: Opa biar zizkiok
bere gurasuak
aurrari bularraren
iraiña gozuak;
eta erakutsi nola
egin errezuak,
ori egiten ditek
relijosuak.

12/ *Fr.*: Kataliñek urtiak
ogei ta emeretzi,
esaten dit ni gabe
ezin duala etsi.

Tx.: Ez al diok oraindik
masalla igurtzi?

Fr.: Baita musuak ere
eman bederatzi.

Bertsot-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Antonino Lakuntza zana, Tolosa.

Makazaga'renean inprentatu ta Oiartzun'go
Garmendia-Txiki'ko baserriko Tiburtzia Etxebes-
te'ri jasoan dan liburuxka batean, aurreko pape-
raren iru bertso daude, 1, 3 ta 6'garrena, alda-
keta auekin:

1/1-2: Aizak, Joxe Bernardo, egin bear diagu;
6/1: Gu mozkorrak gerala; 6/3: jakiña ere egi-
ten.

Ta, gañera, 2, 4 ta 5'garren tokian, beste ber-
tso auek:

Orretan dek arrazoi aundia, Patxiko,
ardua gabe gaituk denbora gutxiko,
neska zarrak dutela gogua ezkontzeko,
bestela ez ituke dotore jantziko.

Sukalde illunian Joxepa Irura
nerekin su onduan; ama ingurura
zanian, jaurti neri eltzia burura,
barrenian zuana irakiten ura.

Ur irakiñarekin azala zimurtu,
eta buruko ille guziak samurtu;
ama zanian ire ondora inguratu,
zergaitik etzioken lepua biyurtu?

JOXE ETA ANA

- 1/ J.: Lezo'n, erromeriyen,
Maiatzian iruan,
etzan zu baño ederragorik
nere inguruan. *Ja, jai!*
- 2/ A.: Maiatzaren irua
zan igande-goiza,
nere ondoren ibilli ziñan
ero baten gisa.
- 3/ J.: Geroztikan etzaitut,
naiz aldian bizi,
gaur arteraño nere begiyen
aurrian ikusi.
- 4/ A.: Jakin det adixkire
dituzula milla;
ez badituzu aski, alperrik
zatoz nere billa.

- 5/ J.: Egiya da, orduan
nik nuan laguna:
beko errotan serbitzen dagan
bizi-alarguna.
- 6/ A.: Bederatzigarrena
da mandamentua,
esaten dizu kutixi ori
dala pekatua.
- 7/ J.: Ez da izango pekatu
dantzan egitia,
ta etxerakuan dozena erdi bat
muxu ematia.
- 8/ A.: Besteren emaztia
senide lengusu
izanagatik, galazia da
ematia muxu.
- 9/ J.: Arrazoi dezu, Ana;
nere emaztia
zu zeranian, ez nuke naiko
bestek ematia.
- 10/ A.: Ilusiyo geiegi
dezula buruan,
zenbat ikusi ainbat gustatu,
bat gero ez goguan.

- 11/ *J.*: Jator aitortzen dizut
ta sinista zazu:
ez det munduan besterik maite,
bakar-bakarrik zu.
- 12/ *A.*: Esposatzian maite
banazu egitan,
artu naiko det txokolatia
egunian bitan.
- 13/ *J.*: Naiz maiorazgo interes
askotxoren jabe;
biziko zera erregiñaren
inbiririk gabe.
- 14/ *A.*: Al da egiazkua
zure mandatua?
Ez al zera beste iñorekiñ
enamoratua?
- 15/ *J.*: Apirillian intza
loriak bezela,
sinista zazu nere biotzak
maite zaituala.

Liburuxka bat, Errenteri'ko Makazaga'renean
moldizkidatua eta Getari'ko Inazio Alkorta'ri
jasoa.

* * *

Beste liburuxka bat, Oiartzun'ko Garmendi-txiki baserriko Tiburtzia Etxebeste'gandik esku-ratua; au ere, Errenteri'ko Makazaga'renean mol-dizkidatua.

Liburuxka ontan, sail ontako zortzi bertso dau-de: 5'garretetik 12'garrenerañoکو guziak. Alda-ketak: 7/3: ta etxerakuan xamur-xamurrak; 7/4: bi muxu ematia; 8/2: senide edo lengusu; 9/1: Arrazoi dezu, Kontxa; 9/3: zu baziñake, ez nuke naiko.

Bertso auek, bigarren liburuxka ontan, 3'ga-rren tokian asten dira, eta 10'garreanean bukatu. Aurretik, beraz, beste bi daude. Onako auek dira:

1/ San Martzial eguna
festak ziran Altza'n,
ederragorik nere inguruan
an zu baño etzan.

2/ Etxera lagundua
dantzan ibillita,
zuk an zenduan adixkiria
ni beziñ polita.

Ondoren, gaiarekin zer ikusirik ez daukaten bi bertso. Ta izenburua ere beste onela: «Pello ta Kontxezi.

* * *

Beste paper batean ere erabillia dago gai au bera. Kanta-paper au, Errenteria'ko Makazaga'renean inprentatua dago, eta Arizkun'go baserri batean jaso.

Lendabiziko paperaren bost bertso dauzka: 1,

3, 5, 11 ta 14'garrena, 1, 3, 2, 8 ta zazpigarren tokian jarrita.

Aldaketak: Izenburua: Pello eta Joxepa Iñaxi; 3/2: Joxepa Iñaxi; 5/1-2: Egun artan zuk, Pello, zenduan laguna; 14/1: Ez da jatorra, Pello; 14/3: dakit zaudela beste batekin.

Gañerako bertsoak:

4/ – Zera eder galanta;
dituzu begiyak
txoragarriyak, Norteko izarra
dan beziñ argiyak.

5/ – Txorakeri oiekiñ
etorri al zera:
eder-zalia zerala esanaz,
ni toriatzera?

6/ – Birtute onekua,
oraindik gaztia;
naiago nuke zu baziñake
nere emaztia.

9/ – Txanponak dituana
nai nuke senarra,
orain baitegu bizi-modua
garisti xamarra.

10/ – Nik txanponak baditut,
naiz mutill jatorra;
esposatzian erosiko'izut
sedazko atorra.

11/ – Esposatu baño len
urrezko erlojua
erosi nazu, tokatzen bazait
orlako lujua.

- 12/ – Oñeko azkazalak
pintaturik bero,
ez nuke naiko ibillitzerik
ezkondu ta gero.
- 13/ – Aberatsa zerala
zatoz gezurretan:
orditu arte eraten dezu
ardua zorretan.
- 14/ – Neri jarriagatik
mozkorraren fama,
zu maite zaitut, mantxa gabia
zeralako, dama.
- 15/ – Desiua ezkontzeko
nik ere dadukat;
bai al dituzu, gutxieneko,
iru milloi dukat?
- 16/ – Abur, Joxepa Iñaxi,
banua ta or konpon;
ez det espero izaterikan
zuk nai ainbat txanpon.

«ONDARRABIA DERITZAN
ZIUDADIAN...»

Doñua: «Maite bat maitatzen det...»

- 1/ Ondarrabia deritzan ziudadian
festak politak nola egin oi dian,
promesa nuan;
eta Agorraren amalauan
an ezagutu,
eta zurekin enamoratu
nintzan, zergaitik
etzalako an zu bezin pollitik. *Ja, jai!*

- 2/ Arrazgeroztikan zu nik maitiago
zaitut loriak intza bañon geiago;
sasoi eruan,
txapel gorriya zure buruan;
gustora orduan
zelaian dantzan egin genduan;
nizun lagundu
etxera, zuanian illundu.

3/ Eguzkiya diruri zure arpegiyak,
masallak zuzi-gorri, guri-guriyak,
txoragarriyak;
Norteko izarra bezin argiyak
zure begiyak,
lapurrak dituzulako biyak;
gorputz liraiña;
besterik ez det maite zu aiña!

4/ Dalako zuk merezi dezun lujua:
urrezkua erraztuna ta relojua,
brillantetxuak
dituztenak belarritakuak,
ta soiñekua
sedazko piñ moda berrikua,
apaiñ-apaiña;
ez dakit zuk maite nazun baiña.

5/ Ez det politagorik Euskal-errian
oraindik nere begi bien aurrian
zu zeran baiño
besterik ikusi oraindaiño;
nere emaztia,
orren polita eta gaztia,
zu zermanian,
biziko gera zori onian.

6/ Ezkondu eta ongi bizi nai nuke,
bañan ezertxo ere ez degu merke,
ditugula oraiñ
gauza onak diru askoren ordaiñ;
koipe gabe azak,
alperrak nai ez dituan gauzak,
dira —zeiñentzat?—
lanian saiatzen danarentzat.

7/ Toki alaietan txalet polit batian
ezkondu eta ongi bizi gaitian,
Jaunari erregu;
bere bitartez izango ditugu
aukera onian,
gose ta egarri geranian,
jaki goxuak
eta erari jenerosuak.

8/ «Urtiak ogei ta iru, sasoi obena
dala ezkontzeko nik orain dedana,
eta baimena
nere aita Pello Joxerena;
neri galdezka,
nere ama maitiaren kezka
da, jakin gabe,
al zeran diru askoren jabe.»

- 9/ Iru leio dituan gabinetian,
katua zentinela aren atian;
rosariyua,
ezkon berriyen usariyua;
oieratzian
palpitaziyua biotzian,
eta muxuak
amoriozko goxo-goxuak.
- 10/ Atsuak txokolatia, aguriak pattarra,
garisti daudelako, umore txarra;
ta neskatillak,
ondoren dituztela mutillak,
erromerira;
inguruan badute begira,
murmuraziyua
neska zarraren oraziyua.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
ez nuan apuntatu zeñi jaso nion. Bigarren, erde-
razko bertso bat. Bañan kendu egin degu; etzuan
jartzerik merezi.

* * *

Mendarok, beste bertso-paper baten asieran,
onako bertso au jarri zuan:

1/ Juan Inazio Iztueta Zaldibia'kua,
bertsuak andregaiari jarritakua,
maite zuala,
Logroño'n giltzapian zeguala;
eskol-maisu ona,
jakituri aundiko gizona;
nai nuke adiazi
onratzia duala merezi. (*berriz*)

Ondoren, 2, 3 ta 4'garren tokian, Iztueta'k
Kontxezi'ri jarritakoetatik 1, 2 ta 3'garrena.

Urrena, 5, 6 ta 7'garren tokian, aurreko pape-
raren lenengoa, jarri ez degun erderazkoa ta 5'-
garrena, aldaketa auekin: 1/3: Agorrillian; 1/4:
Ama Birjiña egunian; 5/1: Santa sekulan ez det
Euskal-Errian; 5/2: ikusi nere begi bien aurrian;
5/4: besterikan iñun oraindaño.

Ta urrengo beste lau bertso auek:

Sagarraren zumua jenerosua,
aparra zeriyoa gozo-gozua,
basua betian,
sabelak ongi bete artian;
umore alaian
dantzan gustora belar-zelaian;
zuanian illundu,
pozik nizun etxera lagundu.

- Dantzan zurekin, festak zirala Ernani'ñ;
nere aita Joxe Migel nuan armoniñ,
zuala kezka;
«Nor den ire galai ori, neska?»
Nai luke jakiñ,
esposatu baiño len zurekin,
dezun doterik;
ez du nai etxian sui arloterik.

- Naizela ni jatorra, ez tunantia,
nai nuke aita Joxeri zuk esatia;
 badet merezi,
amari ere adierazi;
 nere dotia;
eltze aundi bat urrez betia,
 ongi gordeta,
oraiñ lapur asko dabill eta.

- Banazu loriak intza bezin maitia,
ni emeretzi urtekin neska gaztia;
 baña baimena
izango det nere aitarena,
 dudarik gabe,
bazera orrenbeste urreren jabe,
 esposatzeko
ta zori onian bizitzeko.

Bigarren bertso-paper au ere, Errenteriko Ma-
kazaga'renean inprentatua dago; ez nuan apun-
tatu zeñi jaso nion.

* * *

Beste paper batetik, berriz, onoko bertso auek:

- Al dakizu egiten oraziua,
ta gañera nun dezun palaziua,
 eta dotia;
dezuna zeran edo arlotia
 nai nuke jakin,
esposatu baño len zurekin;
 errezelotan
nago, ai ote zeran gezurretan.

– Pare gabia Euskalerra guztian,
nere biotzak dio zu ikustian:

Auxen da poza!

Zera txepetxa bezin airosa,

zure begiyak

dituzulako txoragarriyak;

gorputz liraña;

ez det besterik maite zu aña.

– Ez da ditxa oberik mundu onetan,
besterik ez bezela bene-benetan

maite banazu,

nik ere zaitudan bezela zu;

laister elizan

kristandadia dezagun izan;

dudarik gabe

egingo gera alkarren jabe.

* * *

Bertso auetako batzuk, Mendaro'ren beste zenbait paperetan ere ageri dira. Bañan naste aundia litzake oiek danak emen aitatzea. Gañera, esateko diña dan aldaketarik ere ez dute.

«EGO-AIZEA PIL-PIL...»
(KONTXITA TA JOXE DOMINGO)

Doña: *Bederatzi puntuan*

1/ *Kontxita:*

Ego-aizea pil-pil
bañon arruago,
perrejilla loretu
bañon lenago,
amorioz zugana
txoraturik nago,
biotza marrubiya
bañon samurrago;
eta geruago
eta eruago
eta beruago
ezkondu naiago;
etzazula dudarik,
Joxe Domingo!

2/ *Jose Domingo:*

Dirudizu Madalen
Jerusalengua,
igala ere bañon
argalagua;
ezkontzeko ala ere
dezula gogua,
berandu egitera
zatoz erregua;
galai oraingua (1)
det guriagua
ta eruagua
ta beruagua;
ogei urte zu bañon
gaztiagua!

- 3/ K.: Badakizu gustora
jostatu giñala,
ez nintzarian orain
bezin argala;
menospreziatzia
izan gabe gala,
orduko pekatua
dediñ beniala,
ezkondu bereala;
ez bazea leiala
edo liberala,
dadukat puñala,
bi puska egiteko
zure gibela!

(1) Bearbada, emen *dama oraingua* bear luke.

4/ J. D.: Len baliyo zenduan
koxkor birek aña,
nik ez nuen besterik
maite zu aña;
burutik orporaño
gorputza liraña,
Paristik ekarriya
soñeko apaña;
argiya bekaña,
okertu ezpaña,
dantzatu mingaña
beste zazpik aña,
arrazoirik sekula
ez dezu baña.

5/ K.: Auzuan berriketan
jarri nai jendia,
zentzu-gabeak duten
banidadia;
ni naiz Lezo'n jaiua
Kontxa Garmendia,
berrogei ta bost urte
dauzkat edadia;
izanik pedia,
txokuan gordia,
det txukundadia;
zu zera ordia
mozkor, alper, gezurti,
zerri urdia!

6/ *J. D.*: Festetara juateko
dezun enpeñua,
oraindik jartzen dezu
arruô moñua;
ezkutatu eziñik
soñeko pañua,
atorra zar zikiña
eta kurpiñua;
jotzian soiñua,
alaia doiñua,
begiari kiñua,
sorgiñen siñua;
alaz guziaz ere
desengaiñua.

7/ *K.*: Beste geiago ere
badira munduan,
ibilli oi diranak
nere moduan:
eskalla-pian edo
metaren onduan,
kutixiatxu ori
bakarrik buruan;
arturik goguan,
nai nuan orduan
aukera albuan,
ain sasoi beruan;
zuk ere parte iñoiz
artu zenduan!

8/ J. D.: Zure baratzen ez det
nik perrejillikan
jorratu izandu ta
zaude ixilikan;
ezerengatik ere
gabe ajolarikan,
zera ardi txoruan
gisa ibillirikan;
ez daukat arrikan
barrengo birikan;
ain gutxi oraindikan
zure biarrikan
praile sartzeko bada
konbenturikan.

9/ K.: Ajolarik gabeko
perrejil-zalia,
iñoiz nere baratzen
zera ibillia;
ni naiz mirabe txukun
eta langillia,
zuritzen asi arren
buruko illia;
uste arren erlia
zu zera belia,
bestiak alia
bildua jalia;
monjen konbenturako
a ze prailia!

10/ *J. D.*: Oialtxo ajatua
gaitza da berritzen,
deabruan itxura
ai zera artzen;
urtien kargarekiñ
gorputza nagitzen,
jeniuia zitala,
kemenak urritzen;
illiak samurtzen,
azala zimurtzen,
beti ernegatzen;
nik dizut galdetzen
orrela gertatzia
zeran arritzen.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería», ez
nuan apuntatu zeñi jaso nion.

«ORRAZTURIK BURUKO...»

Doñua: *Bederatzi puntuan*

- 1/ Orrazturik buruko
illiak oriyak,
dituzula masallak
zuri-gorriyak;
ezpaiñ goxuak intza
dan bezin garbiyak,
diruritela sasi-
-krabeliñ-orriyak;
ain txoragarriyak,
dituzu argiyak,
urdiñak begiyak;
ta zure aragiyak
burutik orporaiño
guri-guriyak.

2/ Loria baziñake
sasi-krabeliña,
geiago ere politak
badira, baiña
uso txuriya egan
dan bezin ariña,
burutik orporaiño
gorputza liraiña;
soñeko apaiña,
garistiya piña,
neskatxa bikaiña,
Joxepa Juakiña;
nik ez det besterikan
maite zu aiña.

3/ Jaki onak ta erari
goxua naikua,
xoxo, birigarruak
eta kukua
kantari, alaitasun
udaberrikua,
zan bezela eguna
zorionekua;
zure lepokua
katia urrezkua,
eta soñekua
berri sedazkua,
dotoria, Paris'en
egindakua.

4/ Deboziaz lenbizi
Jaunari errezuak
baserritar neskatxa
kuriuak,
mutillez dituztenak
begiak lausuak,
txepetxa Maiatzian
bezin garbosuak;
txit errex jasuak
oiñak airoak,
ugari pausuak,
itz kariñosuak,
mingaiñian eztiya
bezin gozuak.

5/ Izkillaren soiñua
tirin-kin-tin-kin-tan,
oraziyua Jaunari
bene-benetan,
Buruntza mendiaren
gaiñeko ermitan;
eta gero dantzan
inguru aietan,
zelai ederretan;
etxera illargitan
goizeko iruretan
aita *tan-tan-tan*;
ama gaixua negarrez,
aita errietan.

6/ Oillararak esnatuta
zuan *kikiriki*,
ama Joxepa Antonik
atia iriki;
sukaldera illunian
poliki-poliki;
aita Xeledoniok:
«Etzazula erruki;
gezurra galanki,
apaindu ederki,
dantzan ondo daki;
ez dudik iduki:
nik jakingo det gauza
nola erabaki!»

7/ Aita Xeledonioren
itz oiek entzunik,
erantzun zion andre
Joxep-Antonik:
«Ni ere, zu bezela,
nago antzemanik
alabak ez duala
buruz-bide onik;
bada galai duanik
egin gabe lanik
bizi nai duanik,
esango diot nik
ez duala ezkontzeko
gure baimenik!»

8/ «Goizeko iruretan
iriki atia,
zeralako alabaren
asistentia.
Nor da orain ondoren
dezun amantia?»
«Duana besterikan
ez bezin maitia;
beltza bigotia,
oriya katia,
erraztun diamantia
duana brillantia,
indi-ollarrak bezin
elegantia.

9/ Polita naizelako
estimaziyua,
nerekin ezkontzeko
bokaziyua;
det galai duana
edukaziyua.»
Aita Xeledonioren
kontestaziyua:
«Kaifas sozियua,
dizun lezियua
ez da oraziyua,
ostentaziyua;
ezkontzeko zuk ere
ilusiyua!»

10/ «Naizelako ederra iñun
bada ederrikan,
ez du besterik maite,
ni bakarrikan;
aita, ez beza orretan
izan dudarikan,
dirua asko irabazi
zuan Amerikan;
ta ekarri andikan,
ta ongi gorderikan
dauzka oraindikan;
gañera Gernika'n
etxia ez duana
tellaturikan.»

11/ «Al duanak len bezela
orain egiten du:
jan da edan ongi eta
dotore apaindu,
soiñua *zirrin zurran*
gustora ibildu;
abiyatu ziñaten
zuanian illundu,
besotikan eldu
ta etxera berandu;
dizunak lagundu
diru asko badu,
baimena emango dizut
eta ezkondu!»

Bertso-papera, Errenteria'ko Makazaga'renean
inprentatua, Ondarrabia'ko Fernando Artola *Bor-*
dari'ri jaso.

Jarri-aldi au, zortzi bat aldiz berriztatu zuan Mendaro'k. Ez dago, beraz, aldaketa guziak emen jartzerik. Bakoitzak dituan bertso berriak jarriko ditugu. Paper guziak Makazaga'renean inprentatuak daude.

Aita Xeledoniok otsua ziruriñ,
oietik jaiki eta zuri armoniñ,
jakin arren promesa zenduala egiñ:
«Ixpilluaren aurrian apaintzen alegiñ;
festa zala Ernani'n,
oiñak ariñ-ariñ,
zankuak agiriñ,
ipurdiari eragiñ;
mutillak inguruan zure inbiriñ.»

«Nor da zure ondoren dezun amantia,
biotzian duana borondatia?»
«Mutill eder galanta, estudiantia;
erregalatu dizkit, dualako dotia:
diru asko kostia
urrezko katia,
erraztun brillantia
duana diamantia;
ni nau loriak intza bezin maitia.»

«Askok billatu ezin abitaziyua,
galaia nik duana palaziyua;
polita naizelako istimaziyua!»
Aita Xeledonioren kontestaziyua:
«Zure ilusiyua
ostentaziyua,
uste oraziyua
murmuraziyua,
ezkontzeko dezula debozियua!»

* * *

Beste paper batean:

«Txoriya beziñ alai toki dotorian
ezagutu ziñuztan erromerian,
zorioneko egun goguangarrian;
geroztik zu besterik ez det memorian;
oitura berrian,
jazkera ederrian,
ez nuan urrian
begiyen aurrian
zu bezin politikan Errenterian.»

Iñork ez baldin badit egiten galazi,
nai det fede onian adierazi;
aurrari erakutsi euskeraz lenbizi,
baiña erdera ere biar dute ikasi;
dualako merezi
bere amak azi;
txukun dedin bizi
aitak lanian ezi,
jakin dezan ogiya nola irabazi.

Euskaldunak len da oraiñ goguangarriyak:
iñun diran onenak pelotariyak;
zezenak ainbat indar dute aizkolariyak,
arri-jasotzalliak ta pulsulariyak,
eta arraunlariyak;
dirala erromeriyak
abestu gazteriyak
Mendaro'k jarriyak
bederatzi puntuko bertso berriyak.

* * *

Beste paper batean:

San Juan egunian festa zala Ernani'ñ,
urrezkuak iru ortz eta bi agiñ;
ixpilluaren aurrian ezur eta mamiñ
zure gorputz liraña apaintzen alegiñ;
mutillen inbiriñ
oiñak ariñ-ariñ,
belaunak agiriñ,
ipurdiya eragiñ,
zure ama Joxepa zuri armoniñ.

* * *

Ta liburuxka batean:

Maiatzaren iruan festa zala Urnietan,
ixkillaren soñua *tiririñkintan*;
Buruntza mendiyaren gañeko ermitan,
oraziyua egiñ malkuak begitan
zenduan egitan;
dantzatu zelaitan,
etxera illargitan,
erori ta loitan
gona zikindu eta ama erritan.

PATXI MOTZ ETA MAKARIA

Doñua: *Bederatzi puntuan*

1/ P.: Len porru perrejillak
ta piparrak saltzen,
gero zazpi urtian
fondan serbitzen;
oraindik ez dakizu
ontziyak garbitzen,
galai gustokorikan
etzaizu inguratzen;
gorputza nagitzen,
azala simurtzen,
illiak zaitzen,
beti ernegatzen;
sorgiñaren itxura,
ez naiz arritzen.

2/ *M.*: Gaizki mintzatzeko
abillidadia,
zentzu-gabiak duten
banidadia;
berrogei ta sei urte
dauzkat edadia,
Jaungoikuari eskerrak
ongi juanak oi dia;
izanik fedia,
aingeru guardia,
det txukundadia;
zu zera ordia
alper mozkor gezurti
zerri urdia.

3/ *P.*: Berrogei ta sei urte
igaro munduan,
dituzula geiago
nik uste nuan;
ogei ta zortzi dira
Maiatzian iruan
Lezo'ko erromerira
giñadela juan;
oraindik goguan
det nere buruan:
metaren onduan
garai beranduan
ezkontzeko promesa
egin genduan.

4/ M.: Ez nuke nai zerratu
zurekin ezkontza,
ni naiz ollanda zarra
eta zu ontza;
zure sudur gorriya
luzia zorrotza,
masalla-ezurak igar,
zimurra okotza;
zera, Patxi Motza,
dezuna biotza
jela bezin otza;
ez al zera lotsa?
Galtza zarrak soñian,
ariña poltsa.

Liburuxka bat, Mendaroren zenbait bertsorekin osatua, Makazaga'renean inprentatua eta Oiar-tzun'en, Iturriotz'ko Kamiyo baserriko Sebastian Mendiburu'ren eskutik jaso.

«GAU BATIAN ETXIAN...»
(PELLO TA JUAKIÑA)

Doñua: *Anton Ixkiña*

- 1/ Gau batian etxetik
Pello zan atera
dama bat ikusita
zerbait esatera;
ustez etzala izango
bientzat kaltera,
iritxi ziran leku
bakartxo batera.
- 2/ P.: —Kolare zuri-gorri,
neskatxa garbosa,
zera usai gozoko
Apirill-arrosa,
Maiatzian txepetxa
dan beziñ airosa;
zu ikustian nere
biotzak au poza!

3/ Biotzetikan maite
zaitut nik, Juakiña,
balio dezulako
bi koxkorrek aiña;
ni naiz zure oñaze
danen sendakiña;
zergatik jartzen nazu
illuna bekaiña?

4/ Jazkera txukuna ta
gorputzez liraiña,
aitortu biar dizut
lotsatzen naiz baiña:
ezin nezake maita
besterik zu aiña,
naiago nuke andre
neria baziña.

5/ J.: Oraindik goguan det:
netorren Lezo'tik
Donostia'ra bire
xior erosotik;
ta zu nere ondoren
agertu basotik
ziñan, egitearren
imurtxi besotik.

6/ P.: Nizun amorioz nik
besotik imurtxi,
ta orain matrallian
pixka bat igurtzi;
sendo bular oietan
ikututa utzi,
beste leku batian
biar edo etzi.

7/ J.: Gaur egiten dirazu
lelengo bisita,
zure intentziua
dago ikusita;
ez nago maniobra
oiek ikasita,
beste bateri egiñ
orrelako zita.

8/ Geldirik eziñ egon
bañan berriz ere
golpia utseingo dezu
amar aldiz ere;
neri ez ikutzia
egin zazu mesere,
zergatik logratuko
ez dezun ezer e.

9/ Ez det ukatuko len
esandako itza,
zure modukuekiñ
biar zera mintza;
nik nai dedan zelaiian
artuko det intza;
gaur engañatu naian
alperrik zabilta.

10/ P.: Zure auzuak diote
urrutira usai,
bañan ez batzuetan
barrendikan lasai;
galaia noiz etorri
egoten ziñan zai;
etzazula ukatu,
txantxetan ez naiz ai.

11/ J.: Ni desonratu naian
zuen malizia,
badaukat nork sendatu
nere oiñazia;
galaiak egin zian
edo ez kutizia
auzotar oiek nundik
dute notizia?

- 12/ P.: Jakin-naian gaztiak
zer egiten degun,
bederatzi neskazar
ta zazpi alargun
txelatan dabiltzanak
dira gau ta egun,
Luzifer diabrua
arturikan lagun.
- 13/ J.: Zazpi alargunetan
Kontxa da zarrena,
urtiak kunplitua
berrogeigarrena;
begi bat itxua du,
ankatik errena;
zirrika ta imurtxika
bazuazke orrena.
- 14/ P.: Bederatzi neskazar
oiek duten griña:
besteren ontasunik
eraman eziña,
gorrotu gaiztua, naiz
argiya bekaiña,
berrogei ontza luze
dutela mingaiña.

Bertso-papera, «Imp. «Aurrerá» »; Gregoria Ibargoien zana, Orio. Amabostgarren, erderazko bertso bat dago; merezi ez du ta ez degu jarri.

«POLTSAN NAI AINBAT DIRUA...»

Doñua: «*Uso txuriya errazu...*»

1/ —Poltsan nai ainbat dirua,
sasoia biok erua;
zorioneko eguna zala
Maiatz illaren irua,
laiñurik gabe zerua,
txit atsegiña girua.

2/ Dezuna gorputz liraiña
zera Joxepa Juakiña;
dantzari alai gazte politak
inguratu Andoaiña
asko ziñatenak, baiña
zu guzien erregiña.

3/ Zorioneko egun artan
izkilla *tiririn-kintan*.
Buruntza mendiaren gañeko
ermita zartxo aretan;
jostatu giñan benetan
belar-zelai ederretan. (1)

6/ Irun deritzan errian,
San Marzial egunian,
zu ziñan beziñ politik etzan
nere begien aurrian,
jantzirik moda berrian,
festa goguangarrian.

7/ Askoren bokaziyua,
dutelako desiua,
ezkondu nai eta iñun billatu
ezin abitaziyua;
dala ustez oraziyua
atsuak murmuraziyua.

8/ —Emeretzi urte oraindikan
ditutela bakarrikan,
ez det izango esposatzeko
nere aitaren baibenikan;
nere ondoren zu alperrikan,
ez badezu doterikan.

(1) Paperak, laugarren eta bostgarren, erde-
razko bi bertso ditu; merezi ez dute ta ez degu
emen jarri.

9/ —Aukera jan-edanian,
saiatu gabe lanian,
biziko gera erriyan danik
etxerik ederrenian
zu ta ni zori onian,
esposatzen geranian.

10/ —Naizenian zure emaztia
polita eta gaztia,
naiko det nere gorputz liraiña
moda berriyan jaztia;
aurrik badegu ondo aztia
izan ez dediñ trastia.

11/ Arlotiak ezkontzian
naigabiak biotzian;
labe-zomorru, sagu eta euliyak
sukalde illun beltzian;
katua izutu agertzian,
koiperikan ez eltzian.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, bañan, seguru asko, Errenteria'ko Makazaga-renean moldizkidatua dana; Elgoibar'ko Antonio Arrillaga jauna zanari jaso.

«LOLA, NIK ZURE MODUAN...»
(PEPE TA LOLA)

Doñua: «*Erari maitagarria...*»

1/ P.: Lola, nik zure moduan
promesa egiña nuan
eta debozioz juan
niztan Lezo'ra zorionian
Maiatz-illaren iruan;
ezagutu alkar genduan,
geroztik zaitut buruan,
zu bakarrikan goguan.

2/ L.: Santo Kristo gure Jauna
adoratzera gu juna
zorioneko eguna;
fede onian eskatu nizkan
senargaia ta osasuna;
bazera maite nazuna
ta diru asko dezuna,
biotzak au poztasuna!

3/ *P.*: Buruko ille oriyak,
orrasturik, ugariyak;
ditu zure arpegiyak
ezpain goxuak, sudur polita,
kolore zuri-gorriyak,
apaindurik belarriyak,
urdiñ-urdiñak begiyak,
izarra bezin argiyak.

4/ *L.*: Oaingo moda berrikua
nai nuke abanikua,
katia zillarrezkua;
Ama Birjiña Milagrosaren
medalla paparrekua,
pulsera ta erlojua,
erraztuna urrezkua,
zorioneko lujua.

5/ *P.*: Txanbra Paris'en egiña,
soñian sedazko piña,
dirurizu imajiña;
nere biotzak ez du munduan
maite besterik zu aiña;
uxua beziñ ariña,
ain dezu gorputz liraiña,
ai zu neretzat baziña!

6/ L.: Jaki udare gozuak,
eperrak eta usuak,
erari jenerosuak;
«¡Ahí va la reina de las Mercedes!»
esan dezaten auzuak,
soñeko txit lujosuak,
oñetako airosuak,
ebillarekin lazuak.

7/ P.: Amar urte Amerikan,
bi milloi duro andikan
ekarriyak oraindikan
dauzkat Bankuan, eta gañera
palaziua Gernika'n;
ez dezu iñorenikan
izango inbiriyarikan
nerekiñ ezkondukan.

8/ L.: Bi milloi zure dotia,
ni mirabe arlotia,
laister zure emaztia;
biyar baño gaur naiago nuke
palaziora juatia,
mokadu onak jatia,
eta dotore jaztia,
ta pianua jotia.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»; ez
nuan apuntatu zeñi jaso nion.

Makazaga'renean moldizkidatutako *folleto* ba-
tean, auetako iru bertso daude, 1, 3 ta 5'garre-

na, aldaketa auekin: Izenburua: ANDREGAIA-
RI; 1/1: Maitia, zure moduan; 1/6: ikusirik in-
guruan; 1/7: geroztik ez det buruan; 1/8: zu
besterikan goguan; 3/3: dituzu txoragarriyak;
3/4: ezpain goxuak diruritela; 3/5: krabeliñaren
orriyak; 3/6: kolore zuri-gorriyak; 3/8: izar bi
beziñ argiyak;

5/ Soñekua sedazko piña,
paparran krabeliña;
ederrak an ziran, baiña
nere biotzak ez du geroztik
maite besterik zu aiña,
ain dezu gorputz liraiña,
uxuak bezin ariña,
ai zu neretzat baziña!

«ZURE JAIOTERRIA...»
(FELIPE TA JERONIMA)

Doña: «*Markesaren alaba...*»

- 1/ —Zure jaioterria
polita Zegama,
dan bezela dezuna
politaren fama,
birtute onekua
zeralako dama,
nere biotzak maite
zaitu, Jeronima.
- 2/ —Dituzula neretzat
orrelako famak,
eztiya mingañian
dira zure bromak;
naizen bezin politak
asko dira damak,
munduan ekarriyak
aitak eta amak.

3/ —Andoaiñ'en festa Maiatz-
illaren iruan,
genduan ilusio
jatorra buruan;
etzan arritzekua
ain sasoi eruan;
zu bezin politik ez
nere inguruan.

4/ —Jaki onak ta erari
goxua naikua,
genduala inguruan
kantari kukua;
ura zan alaitasun
uda berrikua,
zan bezela eguna
zorionekua.

5/ —Ermitaren aurrian
nik ezagutua,
nor da nungua ziñan
zuri galdetua;
begi polit oieri
erreparatua,
nere bizi guziko
enamoratua.

6/ —Urtiak emeretzi
ditut oraindikan;
ni ainbat ez badezu
maite besterikan,
ezkondu, aitak ematen
badit baimenikan;
baña jakin naiko du
dezun doterikan.

7/ —Aita, nik det ondoren
duana dotia,
loriak intza bezela
nauana maitia,
eltze aundia urre-
-zillarrez betia,
nai du ezkontzeko neri
baimena ematia.

8/ —Al dunak, len bezela,
oraiñ egiten du:
jan ta edan ongi ta
dotore apaindu;
sudur motza izan arren
orrenbeste diru,
baimena emango dizut
lenbailen ezkondu.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. — Rentería»,
Azpeitia'ko Oanda baserriko Jose Agirre bertso-
lariari jaso.

«PROMESA EGINTA ZURE MODUAN...»
(PELLO TA IÑAXI)

Doñua: «*Ni il da gero nere emazia...»
«Ta Galtzaundi...»*

1/ *Pello:*

Promesa eginta zure moduan
ni ere nintzan juana,
geroztikan du nere biotzak
amoriyua zügana.
Lezo'n, erromerian,
Maiatzian iruan,
lenbizi biyok alkar
ezagutu genduan;
etzan ederragorik
nere inguruan,
geroztik zu bakarrik
nik zaitut goguan.

2/ *Iñaxi:*

Oraziua gure Jaun eta
Jabiaren alabantzan
bukatu, eta gustora biyok
an egin genduan dantzan;
beste batekiñ juan
ziñan apaltzera,
ta ordu beranduan
lagundu etxera;
dezula zure galai
nik det aditzera;
eldu zeran biretik
bazuazke atzera!

3/ *Pello:*

Usteko zuan bere ondotik
ez nuala nik aldeko,
asarratu zan zurekin dantzan
ikusi nindualako.

*Dichosa fue la hora
que yo te conocí,
como entonces, ahora
vales un potosí;
como eres tan preciosa,
Joxepa Iñaxi,
tu serás mi esposa
si me dices que sí.*

4/ *Iñaxi:*

Pobriarekin esposatzeko
gaztia naiz oraindikan,
agure zar bat adiskire det
izandua Amerikan;
amoriyua izanik
sagardo-kupelai,
txanponak izatian
jartzen zera alai;
eran orditu arte,
astelenian jai;
ni zurekin ezkondu?
Ni zurekin, ja, jai!

5/ *Pello:*

Ogei ta bi urte, pobriarekin
esposatzeko gaztia,
agure zarran txanpon ondoren,
a ze nolako trastia!
Jator aitortzen dizut
ta sinistra zazu,
ez det besterik maite,
bakar-bakarrik zu;
esposatzian maite
zuk baldin banazu,
erregiñaren gisa
biziko zera zu.

6/ *Iñaxi:*

Cuando mi madre sea tu suegra
esango diot egitan,
de vez en cuando, si vas de juerga
zuri egiteko erritan.
Nola maite bear dun
andria gizonak,
komeni diralako
usariyo onak,
nik belaunak agiriñ
atorra ta gonak,
bañan oierakuan
kirieleisonak.

7/ *Pello:*

Esan zaiozu biziko dala
zure ama maiteari
nai beziñ ongi, pake-pakean
uzten baldin badit neri.
Zeralako ederra
iñun bada ederrik,
ez dezu arpegiya
pintatu biarrik;
begi polit oietan
badezu makarrik,
garbitu iturriko
urakin bakarrik.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Tolosa'-
ko Antonino Lakuntza zana.

NESKA-MUTIL-ZARRAK
(PELLO TA ANA)

Doñua: «*Ni berriz ostatura juan
ordurako...*» (1)

1/ P.: Zapata-konpontzalle
nere ofiziyua,
tabernarako izan
det afiziyua,
ustez ezkondutzia
zala biziya;
orain jarri diate
kontribuziyua,
mutil zarrarentzako
a zer leziya!

(1) Alegia, Bilintxen Potajiarena.

- 2/ A.: Zapaterua izanik
zure ofiziyua,
sarri kunplitu gabe
obligaziyua;
bezeruari egin
menospreziyua,
buru ariñak duten
ostentaziyua,
bai al dakizu nori
egin maldiziyua?
- 3/ P.: Erriko agintari
karguak artua,
nik damu det lenago (2)
ez publikatua:
ezkongai gertatzia (3)
zala pekatua;
orain lan ortarako
nago nekatua,
auxen da bizi-modu
madarikatua!
- 4/ A.: Agintariak dute
atribuziyua:
jartzia tunantiai (4)
kontribuziyua,
eta neska zarreri
retribuziyua,
jatorra degulako
inklinaziyua,
ondo gobernatzeko
gure naziya.

(2) Bertso-paperak: *nik damu det lengo.*

(3) Bearbada, *ezkongai geratzia bear luke.*

(4) Bertso paperak: *jartzi tunantiari.*

- 5/ P.: Kongresora berandu
zerate iritxiko,
langillearen alde
lege onak jartzeko;
alper askori gaizki
zaiote iritziko,
promesa egin zuten
ondo bizitzeko,
mokadurik obenak
dituzte irintxiko.
- 6/ A.: Erriko etxian gu
agintari jarririk,
ez dezute izango
estuasun larririk;
iñor gertatzen bada
lanian elbarririk,
ill artian ez dezan
gose-egarririk,
anparatuko degu
lege onak jarririk.
- 7/ P.: Ollanda zarrak aintzen
jarririk guardian,
emaztiak senarrak
arturik mendian,
badakit asko nola
gertatuko dian:
lanian jarri astia
txit neke aundian,
tabernarako diru
gabe igandian.

- 8/ A.: Senarrak emaztiak
mendian arturikan,
astelena jai artu
egin gabe lanikan,
goiz aldera etxera
mozkorra juanikan,
umieri ejenplu
txarra emanikan,
ez det uste obeki
bizi diranikan.
- 9/ P.: Enteratua nago
dirala erosuak
egunero ematen
dituzun pausuak:
eleizara juan da
egiñ errezuak
andikan irtetian
dituzu errazuak,
pakean dagonari
jartzeko erasuak.
- 10/ A.: Zure ibillerak ere
goguan dauzkat nik:
ainbeste urtian ez dezu
sobratu txanponik,
sortu dituzun danak
zurrutari emanik,
konseju oneri gaizki
beti erantzunik;
damutu biar zazu
denbora juanik.

- 11/ *P.*: Kantari ari zera
nere defetua,
iñor ere munduan
al da perfetua?
Gauza guziak dute
beren objetua,
zuri ere zerbaitek
egin dizu efetua:
oial txarraren gisa
zare ajatua.
- 12/ *A.*: Bereala damutu
lanari ekiña,
soñian alkandora
zarra ta zikiña,
pizturik ezpañetan
puru-ondakiña;
ardua da esanaz
nere sendakiña;
zure aldian zintzua
zan Antton Iskiña.
- 13/ *P.*: Neska zarraren bizi
moduan kakia:
auzoko guzientzat
gorrotua idukia;
izanik guzietan
gauza bat merkia,
iñori ez dion opa
tximiniako kia;
orrela ibilli gabe
eman zan pakia!

**GURE ERRIA,
GURE GIZONAK,
GURE JOKUAK**

«KOPETA ALTXATA ESAN GENTZAKE»

Doñua: *Pello Joxepe tabernan dala-*

Sail ontan, 11'garren bertsoetik 16'garrenera, kirolzale edo *deportista* asko aitatzen ditu Mendarok. Bañan oietan ez dago gerraz geroztikakorik iñor ere; aurrerkoak dira danak. Ta, ala, bertsoak ere 1936 urtea baño lenagokoak.

1/ Kopeta altxata esan gentzake
biba gipuzkuatarrak;
mundu guziak aitortutzen du
gerala gizon pizkorrak,
gure istoriak lenago ere
baditu lore ederrak.

2/ Orra Txurruka almirantia,
Trafalgar'en galdu zana,
eta bestia Elkano jauna
Getaria'n jaio zana,
mundu danari lendabiziko
buelta eman zion gizona.

3/ Orra Blas de Lezo eta Urdaneta,
Okendo eta Legazpi,
denpora baten itxasuetan
oiek ziraden nagusi,
Okendo jaunak egun d'amaika
bataill zitun irabazi.

4/ San Inazio gure patroia,
Loiola'n jaio zana,
gu salbatzeko liburu on bat
erregalatu ziguna,
nai baldin bêgu ondo irakurri
jartze'igu bire zuzena.

5/ Senadoria ta itzdun abilla
apaiz jaun bat Manterola,
aitzera degu Castelar'eri
tribunan esan ziola:
«Gorputza oso sendua dezu
bañan anima argala!»

6/ Jesus Gabiria eta Sarobe,
irugarrena Olaizola,
mundu guzian esango dute
kantari onak dirala,
suberte on bana opa diegun
merezi duten bezela.

- 7/ Padre Donosti ta Usandizaga,
musikuetan abilla,
mundu guzia negarrez gaude
gazterik dalako illa,
eternidade santu guzian
zeruan gerta dedilla.
- 8/ Donostia'ko orpeoia da
Europa guziñ onena,
flamenkuekiñ Paris'en dute
ejenplo on bat emana,
giazalia daukatelako
Sekundino Esnaola jauna.
- 9/ Ondarrabitar eta Pasaitar,
Mutriku ta Zumaitarrak,
Donostiatar eta Zarauztar,
Getaria ta Oriotarrak,
zortzi oiek dira Kantabria'ko
estropalari jatorrak.
- 10/ Bilintx da Otaño ta Iparragirre,
bertsolari danen aita,
ziran Gaztelu eta Udarregi,
Xenpelar da Pello Errota,
ôingo kondarrak Fermin da Oloki,
Olegario ta Txirrita.

- 11/ Pelotari bat ezautu nuben
zana danen nagusia,
eskuz da palaz zestoz da guantez
txikitandik ikasia;
Indalezio Sarasketa zan,
Eibar'en jaio ta azia.
- 12/ Oraingo onenak: bat Artzamendi,
Beorlegi ta Errezabal,
Etxabe anaiak, Txikia ta Urzelai,
Mondragones da Baltasar,
Azpiroz da Enbil, Saltza ta Ituren,
azkenak lau Orio'tar.
- 13/ Orra Mugerza laisterkariya,
azaña pranko egiña,
Andia ta Asebal eta Erauntzeta,
Ulezia eta Peña;
Errenteriar au buru dutela
a zer kuadrilla bikaña!
- 14/ Aizkolariak len Arozpide,
Santa Ageda ta Atxumarri;
orra Soatxiki ta Kerixeta,
Mendaro'ko Kortaberri;
orren aitona zan Erentza-zarra,
iñork etzubena neurri.

- 15/ Karga jasotzen Aritzaga anaiak,
Agerre ta Arteondo;
pultsuan berriz Mujika eta
Ernani'ko Eltzekondo;
palankariyak Arxiola ta
Erizmendi ta Iriondo.
- 16/ Fubol-mutillak, bat Patrizio,
Egiazabal da Artola,
bestia Arbide eta Arrate,
ostikalari jatorra,
Pepe Etxebeste eta Akosta;
ez da kuadrilla makala.
- 17/ Salaberria eta Zuluaga
bi pintoriak onenak;
mediku onak asko dauzkagu,
bat Urrutia ta Egaña;
Añibarro jaunak eruak sendatzen
dauka lanikan geiena.
- 18/ Politiko asko izan ditugu,
orain etzaizkigu palta,
Madriltarrekiñ parte arturik
jotzen digutenak flauta;
oiengatikan gaur arkitzen da
Euskalerria galduta.

19/ Ni naiz Eusebio eta Mugertza,
Mendaro'n jaio nintzana,
Donostia'ko ziudadian
bizi izaten naizena,
apaiz-kalian, *número nueve'n*;
betor zerbait nai dubena.

Bertso papera, «Imp. J. Díaz. Irún». Getaria'-
ko Garro baserritik.

EUSKAL-ERRIAREN ALABANTZAN

Doñua: «*Pello Joxepe...*»

- 1/ España'tik lenbizi juanak
euskaldun arrantzaliak
arpoiarekin Terranova'ra
arrapatzera baliak;
argiyak eta korajetsuak
zituzten giyatzalliak.

- 2/ Ta futbolistak Amerika'ra
lenbizi juandakuak
ziran euskaldun, lau bizkaitarrak,
zazpi Gipuzkoa'kuak,
Mariano Arrate zala giari,
amaika mutill majuak.

- 3/ Onrak merezi ditu Paulino
Uzkudun Errezil'kuak,
aberastu zan zekiyalako
ematen zartatekuak;
nik galdetzen det zer egin duten
geroztik juandakuak.
- 4/ Ez da arraunlari obiagorik
izandu euskaldunak baño;
ta pillotari oben-obenak
gu gerala oraindaño,
Amerika'ra bezela juaten
gera Kontxiñtxiña'raiño.
- 5/ Eskuz pillotan kontrariyuak
asko ditu *txapel-aundiak*,
berrogei urte, ta mendeatu
ezin du iñork oraindik; (1)
erremontian kemenak ditu
irugarren Salsamendi'k.
- 6/ Intza bezela garbi-garbiya
mintzatzen geran izkera,
birau zakar bat ere gabia
dalako gure euskera,
arrokeriya gabe txukuna
soiñian degun jazkera.

(1) Txapel-aundiak, Atano Irugarrenak alegia, 1944'an bete zituan berrogei urte; ordukoak, beraz, bertso auek.

- 7/ Baserritarrak dultzaiña eta
kaletar txistulariyak,
neskak bezela oiñak ariñak
mutill aurrekulariyak,
gera udaran txori kantari
guziyak beziñ alayak.
- 8/ Kantu-lanian iru obenak
dirala dudarik gabe:
donostiarra Agirregabiria
ta Zarautz'kua Sarobe,
Aretxabaleta'ko artzaia
dala Kristobal Altube.
- 9/ Iparragirre kantari alai,
gitarra ongi jotakua;
eta bestia zan bere gisa
estudiatutakua:
xaxi-letradu guziz abilla
Fernando Amezketa'kua.
- 10/ Bertsolari onak zian Pedro Mari
Otaño eta Iztueta,
Artzaia Izuela eta Xenpelar,
Gaztelu eta Pello Errota,
Joxe Bernardo eta Udarregi,
Altzo'ko Imaz ta Txirrita.

- 11/ Nor da gizona zezenak ainbat
indar izandutakua?
Dudarik gabe esan zazute:
Eltzekondo Ernani'kua,
zortzi arrua esku batekiñ
pultsuan jasotakua.
- 12/ Aspalditxuan gizon garratzak
irrintzi aldamenian,
baña oraindik eibartar Txomin
nagusi pultsu-lanian;
obiaguak izango dira
orrek ezin duanian.
- 13/ Berreun da zortzi kilo dituan
arri motz astuna oso,
zazpi urteko zezenak ainbat
indarra izanik, airoso
dira Arteondo eta Aritza
egiten zutenak jaso.
- 14/ Aizkolariyak ziran obenak
Arrozpide ta Erentza,
Santa Ageda ta Soatxiki,
Atxumar aundi garratza,
eta Keixeta Urrustil'gua,
izandu zuana gatza.

15/ Gorputz luzia, junturatsua
eta liraiña gerriya,
indarra gañez duten besuak,
deitzen diogu *Arriya*
aspaldi ontan guzien buru
danari aizkolariya.

16/ Anuntziatu iñun danian
apostu edo festarikan;
orain debalde eziñ ikusi
arraunlariyak besterikan,
zergaitik eziñ jarri dioten
itxasuari aterikan.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga – Rentería»;
Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donos-
tia.

«IDURITZEN ZAIT...»

Doñua: «*Pello Joxepe...*»

- 1/ «Iduritzen zait ni bezela Euskal-
-errian jaiotakuak,
etzaizkigula orain komeni
antziñako usariyuak.»
Ori esaten duten guziak
ego gabeko kukuak.

- 2/ Antziñakuak zuten bezela,
emen jaiuak bagera,
birau bakar bat ere gabia
dudarik gabe euskera
maite dezagun, maitagarria
dalako gure izkera.

- 3/ Aizkolariak amoriyua
euskal oitura zarrari,
paguak zallak eta samurrak
zezen-plazetara ekarri,
eta jokatu giza-legian
gorrotu gabe alkarri.
- 4/ Gizon garratzak zezenak ainbat
ziran zutenak indarra:
Biktor Arteondo Iziar'kua,
Txurruka mutrikuarra,
Juan Elgetarrak jasotzen zuan
arriyak zuan adarra.
- 5/ Pultsulari onena, Eltzekondo,
ernaniarra zan berez,
esku batekin kiluak egun
jasotzen zituana errez,
amabi eskañi arren bentaja
kontrariyoric iñor ez,
- 6/ Ez beza iñork dudarik izan (1)
gizon indar aundikua
arrokeriarik ez duana
da Urtain Arrona'kua,
Albizuri-Aundi'k jasotzen zuana
lau bidar jasotakua.

(1) *Izan* itza, guk jarria da, paperak ez ba-
dakar ere, ala bear dualakoan.

- 7/ Esku-zulorikan ez duan arriya
nola eldu jakin biar,
Atxaga'k gizon aundi ez arren
zezen batek ainbat indar,
amar minutuan bizkarrera
jaso zuan amaika bidar.
- 8/ Egun da irurogei ta sei kilo
arri trakatsa, ez ariña;
oriotarra eskaxagua
askok uste zuten, baiña
Oliden'ek zuan borratu marka
Errekartetxo'k egiña.
- 9/ Amerika'ra juañ zan batek,
apropos egindakua,
bizkarrera errez jaso duana
amabost arruakua
da Bedaiotar mutill bikaiña
emeretzi urtekua.
- 10/ Nere moduan izango dira
asko dutenak esango:
Osasuna ta urtiak sei bat
dituanian geiago
sasoi onena, ta orren onduan
atsegiñ ez da izango.

11/ Pixua bost arrua ta bi libra,
Mallabia jaioterriya,
Ondarrua'ko pillota-plazan,
asko giñala begira,
mutill koxkorra, baña errez jaso
egun kiloko arriya.

12/ Amar gizonak indartsuak baiña
alperrik saiatu ziren,
arri baldarra jaso dutenak
al dakizute nor diren?
Errekartetxo, Urtain, Atxaga,
ta laugarrena Oliden.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga - Rentería»;
Jose Joakin Mitxelena bertsolaria, Iturrioz,
Oiartzun.

EUZKOTAR BURU ARGIKUARI

Doña: «*Pello Joxepe...*»

- 1/ Zala Fernando Amezketarra
sasi-letradu axaia,
zituan lagun bertsolariya
Izuela'ko Artzaia;
Iparragirre gitarra jotzen
zekian gizon lasaia.

- 2/ Al dakizute zaldibitarra,
bertsolari txit abilla,
milla zortzireun berrogei eta
bostgarren urtian illa,
zala Juan Inazio Iztueta?
Zeruan gerta dedilla.

3/ Esan oi dute bertsolari onak
asko ziradela, baño
Zizurkil zuan jaioterriya
Pedro Maria Otaño
bezelakorik, besterik ez da
ezagutu oraindano.

4/ Errenteria'n esan oi zuten
ni ez bezin jakintsuak:
«Txit egiazkuak Xenpelarrek
jartzen zituan bertsuak,
ziradelako bere inguruan
negar gogotik atsuak.»

5/ Bilintx donostiarrak, eztiya
bezin goxua mingaiña,
zituan lagun Marzial Zikiñ
ta Ernani'ko Anton Iskiña;
txistosuan Pepe Artola
bertsolariya ez baiña.

6/ Alkarrengana inguratzen
umore onian ugari:
Errekalde ta Joxe Bernardo,
Olegario ta Udarregi;
esan oi zuten guzien buru
zala Pello Errotari.

- 7/ Etzan luzia baiña gizena,
pixua amar arrua;
alkiyan lasai ixeri eta
eran pitxar bat ardua;
erreztasuna doñu onian
Txirritak zuan garbua.
- 8/ Bertsuak neska-mutill gaztieri
almena zuan da jarri;
pardela bizkarrian zuala
euskal-erririkan erri
mutill zar bikaiña ibilli oi zan
Asteasu'ko Aumerri.
- 9/ Oriotarra nere adiskide
txit atsegiña Gaztelu,
zalako gizon arrazoizkua
danekin ondo konpondu;
zan baño gizon prestuagorik
ogiyak ez du mantendu.
- 10/ Neriak dirala esaten dute
testimonio falsuak,
galtzak soñian ibilli arren
diruditela atsuak,
uda berriyan birigarruak
diran beziñ berritsuak.

11/ Ni naiz Mendaro'n jaio nintzana
errota zartxo batian,
milla zortzireun irurogei ta
amalaugarren urtian;
emaztia ta bi alabarekin
bizi orain ongi Donostia'n.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga - Rentería»;
Jose Joakin Mitxelena bertsolaria, Iturriotz,
Oiartzun.

Errenteria'ko Makazaga'renean inprentatutako
beste paper batean, liburu ontan leen ere jarrita
dauden bi bertso daude.

Ondoren, aurreko paperaren sei bertso datoz,
1, 2, 3, 5, 8 ta 9'garrena, bañan 3, 4, 5, 6, 10
ta 11'garren tokian jarrita. Ta aldaketa auekin:

1/2: lagun zuana etsaia; 1/3: zuan bezela
bertsolariya; 2/2: txit bertsolari abilla; 3/3: Zi-
zurkil zuana jaioterriya;

5'gna.: Torerua ta bertsolariya
Ernaniarra Izkiña,
ofiziyua zapaterua,
bañan lan gutxi egiña;
Bilintx Donostiarra eztiya
bezin goxua mingaiña.

8'gna.: Nagi samarra, baiña zintzua,
Asteasu'ko Aumerri;
almena izanik bertso politak
neska-mutil gaztieri;
mutil bikaiña ibilli oi zan
euskal erririkan erri.

9/1: Pello Errota zital samarra; 9/5: bokazi-

yorik ezkontzeko ez da; 9/6: anaiak biar mantendu.

Ta beste sei bertso ere badatoz:

Zan Txirritaren bizimodua:
argintzan lanik egiñ ez;
zurrkutuna piparrarekin
sagardua txarruan gaiñez;
berandu etxera, pixu astuna,
eraman eziñik oiñez.

Usurbil zuan jaioterriya
zan Juan Jose Udarregi,
esan oi dute arek zekiala
jartzen bertsuak txit ongi;
egia da ori, baiña euskeraz
ez Txirritak bezin garbi.

Lezo'kua da Juan Sarasola,
bertsolari ona berez;
Fermin Donosti'kuak eztarri
ona ta irrintzi errez;
eta Xenpelar Errenteriarak
jarri atsuak negarrez.

Al dunak orain jan da eran ongi
eta dotore apaindu,
arlotiaren bizi-modua
aurrikan ezin mantendu,
gertatzen dira mutill zar asko
ez dutela nai ezkondu.

Txit borondate onian ditut
bertso berri onak jarri;
orain, gaztiak, saia zaitezte
gorrotu gabe alkarri,
giari ona dudarik gabe
dezutelako Basarri.

«KOMENI ZAIGU ERDERA...»

Doñua: *«Uso txuriya eran nazu...»*

1/ Komeni zaigu erdera,
ikasten saiatzen gera;
dudarik gabe esan gentzake
emen jaiuak bagera:
birau bat ez duan izkera
garbiyagua da euskera.

2/ Antziñako usariyuak
dira gure dibersiyuak;
kristandadian bizi gaitian
izan gabe okasiyuak,
nai ditugu emen jaiuak
agintariyak seriyuak.

- 3/ Gizonak txit indartsuak,
jatorriz dira zaintsuak;
onrak merezi dituztelako
jartzen ditugu bertsuak;
esaten dute atsuak
gu gerala berritsuak.
- 4/ Arrokeriya gabia,
indar askoren gabia,
ogei eta bat arruakua
jasotzen zuana arriya,
zualako uztarriya,
Elgeta'ko Juan Aundiya.
- 5/ Esku-zuluak bi egiña,
arriya etzan ariña,
amasei arrua eta erdi
pixatzen zuana baiña;
Arteondok zuan maiña
ta indarra zezenak aiña.
- 6/ Iñun iñor bada galdez,
erantzungo diot legez:
amabost arrua ta erdikua
jasotzen duana errez,
txit aberatsa indarrez
Errekartetxo da berez.

- 7/ Nola eldu zuan ikasi,
askok genduan ikusi;
Albizuri Aundiren arriya
Errekartetxok lenbizi
jaso, ta premiyua irabazi;
onratzia du merezi.
- 8/ Lotu ondo gerrikua,
zuala indarra naikua;
arriya izan arren trakatsa
lau aldiz jasotakua,
gizona orrelakua
da Urtaiñ Arrona'kua.
- 9/ Arri trakatsa, ez ariña,
triku zar bat diruriña;
askok benetan elduagatik
ezin jaso zuten, baiña
Urtaiñ gizona bikaiña,
ta indarra zezenak aiña.
- 10/ Zala sasoi onekua,
iñor ez bezelakua
esku batekiñ jasotzen zuan
pixu zortzi arruakua;
pulsulari orlakua
Eltzekondo Ernani'kua.

11/ Korajetsua ta ariñô
basakatua ere baiño,
boseadore asko bezela
juan zan Amerika'raiño;
aberastu an Pauliño,
besterik ez oraindaiño.

12/ Alaiak udaberriyak
dirala erromeriyak,
irrintziz mutill gaztiak,
inguruan bertsolariyak;
Mendaro parregarriyak
disparate izugarriyak.

13/ Sabelak ondo asiak
eta dotore jantziak,
lenago bezela orain ere
dituztela fantasiak;
garisti jaki guziak,
langilliak erdi gosiak.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. — Rentería»,
ez nuan apuntatu nori jaso nion .

«MAKIÑA BAT INBIRI...»

- 1/ Makiña bat inbiri
digutenak guri,
mingaña luzia ta
indarretan urri.

(ESTRIBILLO)

*Izanik alkarren lagunak
orain da beti euskaldunak,
bildurrik
gabe guazen aurrera!*

- 2/ Euskaldunak indarrez
guazela merman;
arrazoi orri bueltak
biar dizkat eman.
- 3/ Indarra probatzeko
noiznai dute era:
etorri Mutriku'ra
eta Itziarr'era.

- 4/ Aritza ta Arteondo
orra bi guraso,
zeñek karga geiago
bizkarrera jaso.
- 5/ Irundarrak nagusi
dira futbolian,
España guziko
laugarren aldian.
- 6/ Patxiku Ganborena
dutela kapitan,
ez dute bildurrikan
erozein tokitan.
- 7/ Aditzalle maitiak,
goguan iduki:
guziok biar degu
gizon bat erruki.
- 8/ Aizkoran izan dana
banderaren jabe,
gertatzen da eskuan
atzaparrik gabe. (1)
- 9/ Probintziko agintari
jaunak, al badute,
enpleotxo bat orri
eman bezaiote.

(1) Keixeta.

- 10/ Izan gabe alkarren
errukitasunik,
animarentzat ez da
zoriontasunik.
- 11/ Norte-amerikano
oiek duten gala:
ustez guziak baño
geiago dirala.
- 12/ Asko jakituriya
oiek izan arren,
deitu zioten jaio
zanari Eibarren.
- 13/ Jakiñik ori dala
obena pintore,
ikasi dualako
lanian dotore. (2)
- 14/ Arrokeriya gabe
or dabil Uz kudun,
oraindikan ez daki
nork bentzituko dun.
- 15/ Europa'ko obenak
benderaturikan
ziran ogei; ez pentsa
gezurra danikan.

(2) Zuloaga pintorea, alegia.

- 16/ Esan zuan: «Oberik
bada Amerikan,
probatzera juateko
ez det bildurrikan.»
- 17/ Errezil'dikan juan da
mutilla leiala,
eta bost benderatu
ditu beriala.
- 18/ Esanik: «Jotzen banau,
nerekin dira sei»,
Paulinoren igasi
orain dabill Demsey.
- 19/ Erne begira nundik
irtetzen dan kia,
suak itzali eta
dezagun pakia.
- 20/ Orain esaten dute:
«Ez dira gozuak
ezker-eskubi orren
ikobilkazuak!»
- 21/ Txikitandik lanian
biartuak zaiñak,
gero egiten ditu
orlako azaiñak.

- 22/ Amaika urte aundiyan
izan da nagusi,
Mondragonesak ditu
txaluak merezi.
- 23/ Munduari lenbizi
buelta emandakua
zan Sebastian Elkano
Getariya'kua.
- 24/ Asi Santurze'n eta
Ondarrabi'raiño
baño arraunlai oberik
ez da oraidaiño.
- 25/ Kolore zuri-gorri
apirill-arrosak,
Costa Cantábrica'ko (3)
neskatxa garbosak.
- 26/ Oiñutsetan txepetxa
dan beziñ airosak,
zuek ikusteko ni
egoten naiz pozak.

(3) Paperak: *Costa Cantábrica*.

Bertso-papera, «Imp. «Aurrerá» Herrera»; ez
nuan apuntatu zeñi jaso nion.

ELKANO'RI

1/ Mundu guzian dakite
dala Getaria
Sebastian Elkano
jaio zan erria;
orra bere imajiña
goguangarria,
arkaitz beltz aundi baten
gaiñian jarria.

2/ Nun-nai erantzutia
guk degu naikua
zala Don Sebastian
Getaria'kua,
gizona trebia ta
jakiturikua,
munduari lenbizi
buelta emandakua.

3/ Barkuak, zepelinak
ta idroabionak
giatzeko planuak
dia Elkano'nak;
iñork esaten badu
ez dirala onak,
galtzen ordiaz jantzi
biar ditu gonak.

4/ Oraindiokan asko
ez daude jakiñak,
euskaldunen artian
ziran gizon piñak;
Zumarraga'n esaten
du bere imajiñak:
Legazpi'k deskubritu
zituan Filipiñak.

5/ Olatuak zakarrak
aizian indarrez,
ontziak tira-bira
egiteko bildurrez;
anparuak nai arren
egiteko iñor ez,
sarri askotan ziran
gertatzen negarrez.

6/ Lurrik agiri gabe
ziran, Maiatzian
bezela, Abenduan
eta Ilbeltzian,
intxaurraren azalan
gisako ontzian;
korajiak zituzten
oiek biotzian!

7/ Olatuak ontzia
irintxi nairikan,
gosiak ta erateko
ez ur gezarikan,
bildurrak ille danak
tente jarririkan,
ezin lezake trantze
tristiagorikan.

8/ Indio salbajiak
zoriontasun gabe:
esanaz «Zuentzako
izango da obe»,
geroztik asko juanak
atzaparka trebe,
egin dirade gauza
asko arenen jabe.

9/ Ibilliak itxaso
oietan burruka,
Antonio Okendo
ta Kosme Txurruka;
Trafalgar'ek oraindik
goguan daduka,
il da gero inglesak
ziran ari *urraka*.

10/ Asi Santurze'n eta
Ondarrabi'raiño
gisako estropalairik,
uste zuten baiño,
santa sekulan ez da
izan oraindaiño;
eraman izan dute
asko desengaiño.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea,
Jose Anjel Sarasola, Olalde, Altzibar, Oiartzun.

ELKANO

1/ Milla ta bosteun urtez gañera
emeretzigarrenian,
Agorraren ogei ta zazpiyan,
San Lúcar de Barrameda'n,
bost kapitan beren barkuekin
antxen inguratu zian,
berreun da ogei ta emeretzi gizon
arturik danak lanian,
Magallanes nagusi zutela
itxasoz atera zian.

2/ Elkano jauna San Antonio'n
atera omen zan aurrena,
bigarrengo Concepción
el veedor Cartagena;
Magallanes guzien nagusi,
Victoria zan urrena;
Juan Carvallo berriz Trinidad'en
atera zan laugarrena,
Duarte de Barbosa Santiago'kin
txikiyena ta azkena.

3/ Barku aiek zenbat kosta ziran
esango izutet egoki:
San Antonio, de 120 toneladas,
330.000 maravedís;
Trinidad, de 110 toneladas,
270.000 maravedís;
Concepción, de 90 toneladas,
228.750 maravedís;
Victoria, de 85 toneladas,
300.000 maravedís;
Santiago, de 75 toneladas,
187.500 maravedís;
Total: 480 toneladas;
Coste: 1.316.250 maravedís.

4/ Barku sinple aien paluetan
belatxo batzuek iza,
ibilli ziran gizarajuak
ez orain gu beziñ aixa:
olatu artian agiri ez
pottorro txikien gisa,
gau illunetan deseatutzen
noiz allegatuko goiza,
fortunaz lurra ikusitzian
aien biotzeko poza!

5/ Sarri askotan zer jana falta
eta ur gezarikan ez,
gañera ezer ikusi gabe
zerrazoiakiñ egunez;
gau illunian gora begira,
izarrikan agiri ez;
beren buruak sokaz loturik
olatuaren bildurrez,
aiñgeru guardakuari deika
gizarajuak negarrez.

6/ Itxaso-baztartxo bat nekez jo,
aspaldi aituak janak,
gosiak eta luaren faltan
aulduak beren kemenak;
ikusirikan ango tiburoi,
kokodrilo ta kaimanak,
ango jende edo salbajiak
fletxaz armatuak danak,
orla egoten ziran lurrera
ateratzeko bildurrak.

7/ Azaruaren lenbizikua
domingo santu eguna,
berak ondo desiatzen zuten
toki bat topau zutena;
lendabiziko jarri zioten
Todos los Santos izena,
bañan Magallanes portugesa
danen nagusi juana,
Estrecho de Magallanes
danok deitzen dioguna.

8/ Ogei ta sei egunen buruan
kanaltxo bat topau zuten,
beste ozeanora juateko
uraxen desio zuten;
aura pasa ta leku berri
batera ziraden irten,
itxasua zeuan geldirik nola
denpora ona zuben egiten,
orregatikan *Mar Pacífico*
izena jarri zioten.

- 9/ Andikan amabost egunera
isla Moetan jo zuten,
paraje artan gizarajuak
suerte txarra izan zuten;
korajetsuak nola ziraden
lurrera ziraden irten,
Magallanes'eri indiyuak
biziya kendu zioten,
beste askonik ez daki iñork
zer paradero jo zuten.
- 10/ Victoria'kiñ Elkano jauna
danen buru geratu zan,
irurogei ta bi gizonekiñ
itxasuakiñ burrukan;
andik urrena *Isla Molucas*
orretzek billatu zuan,
aberiyaq puxka bat konpondu
berak al zuten moduan,
orduan España'ra birian
Tideo'tik irten ziran.
- 11/ Mundu danari buelta emateko
itxasoz iru urtian,
Jaun Zerukuak bakarrik daki
aiek nola ibilli zian;
Elkano amazazpi gizonekin
bakarrik agertu zian,
Puerto San Lúcar de Barrameda'n
barku sinpletxo batian,
milla bosteun da ogei ta batian,
Agor-illaren seyian.

- 12/ Barkutik atera ziradenian
aien pausuan eskasa,
Elkano jaunaren ondoren danak
juan ziraden eleizâ;
dudarik gabe lenagotikan
egiña zuten promesa,
beren pasarizuak esan nai
ezin arturik arnasa,
gizarajuak kasikan txutik
egoteko etziran gauza.
- 13/ Birtute onekin apaindua
mundura etorri zana,
biotz korajetsua ta ona,
argiya kopeta-illuna;
mundu danari lendabiziko
buelta eman zion gizona,
euskaldun danak jakin dezaten
esango det bere izena:
Juan Sebastian Elkano jauna
Getaria'n jaio zana.
- 14/ Orrek biria erakutsita
geroztik asko ziran juan,
bañan batzuek San Inaziok
aindutzen zuan moduan: (1)
fusillan ordez liburua ta
kurutzetxo bat eskuan,
salbaje aieri erakustera,
izan zezaten goguan,
Jesusen amar mandamentuak
borondate egiazkuan.

(1) Bertso-paperak: *aindutzen moduan*; *zuan* guk erantsia da, orren falta moldiztegiaren utsegiña izango dalakoan.

- 15/ Fede onian ai naiz izketan,
ez det esan nai gezurrik,
etzazutela iñork pentsatu
enbustera naizenik:
federik gabe ez da logratu
kristandadian ditxarik,
salbaje aietara ez balitz juan
Jesukriston ministrorik,
armamentuen bitartez etzan
sekula izango pakerik.
- 16/ Elkano jauna orain mundura
etorriko baldin balitz,
esango luke modu onetan
nabegatzen ez dala gaitz;
pabo-realen gisa jantzita
errekreatzen or dabiltz,
Ondarrabira abiatuta
jotzen dutela Biarritz;
Mendaro jaunak ez luke esango
egi au gezurra balitz.
- 17/ Elkano birtute onez jantziya,
leiala eta umilla,
gañerakuan zer esanik ez,
korajetsua eta abilla;
mundu danari buelta eman zion
danon ontasunan billa,
bigarren biajian juanda
ôin laureun urte da illa,
eternidade santu guzian
zeruan gerta dedilla.

18/ Borondatia ez deigun galdu,
au da gauzarik txarrena,
amoriua izan dezagun
euskaldunak alkargana ;
guazen guziok Getaria'ra
oñez edo arturik trena,
Agorrillaren seigarrenian
orra izendatu eguna,
bere imajinari egitera
erreberentzia bana.

Bertso-papera, «Imp. J. Díaz. – Irún», Getaria'-
ko Garro baserritik.

(1922)

«KRISTO ZERURA IGO ZANETIK...»

- 1/ Kristo zerura igo zanetik
oneraño bitartian,
milla urte ta bederatzi eun
ogei ta bigarrenian,
Otsaillaren oge ta bosta
zan señaladamentian,
korrik-apostua jokatu da
Zarautz'tik Aiâ birian.

- 2/ Apostu ori jokatutzeko
aspaldi zeguan otsa;
aldez aurretik emana nuben
lagun batzueri itza:
lendabiziko trena artuta
juango giñala aruntza;
broma ederrian kontu-kontari
allegau nitzan Zarautz'a.

3/ Taberna baten sentitu nuben
zalaparta eta bulla,
sartu ta asi nintzan izketan
nola ez naizen ixilla;
esan nioten: «Ni etorri naiz
notizia berri billa,
esan zazute bildurrik gabe:
zer moduz zuen mutilla?»

4/ Aitona batek erantzun ziran:
«Izugarri da abilla,
naiz-da muturra berdia izan
jenioz da txit umilla;
agertu zaio, esan dutenez,
kontrario bat abilla,
bañan gaur orrek errez joko'io
malda ortan gora sakilla.»

5/ An gosalduta gero plazara
nitzadenian atera,
esan zidaten: «Or daude biak
bata bestiai begira.»
Fijatu nitzan da esan nuben:
«Mutiko politak dira;
danen gustorik egiten duten
ni egongo naiz begira.»

6/ Plazan erdian ujuka ai ziran
gizon batzubek zorrotzak,
inguru artan ikusten nitun
kuku batzubek arrotzak,
txantxangorriai jarri nairikan
bere kabiyan arrautzak;
ez digute orla aintzen Jesusen
Ebanjelioko itzak.

7/ Zigorrikan ez duen artzaiak
ez du ardirik ondo zaitzen,
orregatikan bizio txarrak
onla ai dira indartzen;
bildotxetatik soluetara
baldin baditu oitzen,
badakit gero zer gertatzen dan
ota-larrera bialtzen.

8/ Gabilan asko ikusi ditut
azkazkalak zorroztuta
ezkututikan nola zebiltzan
txito gaixueri deika;
txapel gorriyak kartera oiekin (1)
bitartekotzat artuta,
tontuen bizkar sonbrerua ta
lebita ederrak jantzita.

(1) Ez al da *tartera* izango? Edo *kaltera*?

- 9/ Ezagun zuten gizajo askok
esperantza ona zutela,
kupira gabe botatzen zuten
ezkurra eta orbela;
zitalkerian ez dira ibilli
naiz-eta ustu sakela,
napar guziak portatu dira
gizon ondrauak bezela.
- 10/ Amabiak laurden gutxiguan
arraian ziran atera,
jendiak beriola esan zuben
aurretik zala naparra;
tontor batetik ikusi nitun
nola zetozten batera,
nik esan nuben: «Laister baten bat
geratuko da atzera.»
- 11/ Tontor ortatik errukituta
begira egon nitzan ni,
atze ta aurre automobillak
an baziraden ugari;
mutil gaixuak kian tartian
kasik etziran agiri;
orra nik esan, ez badakite,
gure agintari daneri.

- 12/ Ia amabi kilometruan
korritzeko malda gora,
askok uste beziñ ona etzan
egun ortako denpora;
eguzki berua egiten zuan,
egoaizia gogorra,
automobillen autsa ta kia
ziran bientzat kaltera.
- 13/ Berielaxen jakin genduen
naparra erori zala,
eta agotik botatzen zula
aparra eta odola;
nik esan nuben: «Gizon ondrauak
ez dute itzeiten orla;
biar bezela saiatzen danak
kulparik ez du sekula..»
- 14/ Bitatik batek galdu biarra,
ez dudarik izan ori,
konseju on bat emango'izutet
eta ondo aitu neri:
Lekunberritar eta Leitzatar,
gañera euskaldun daneri,
menospreziorik ez egiteko
mutil gizajo orreri.

15/ Orain nor naizen aitortuko det
iñor ez dein dudan egon,
Eusebio Mugertza deitutzen naute,
jaio nitzana Mendaro'n;
zerbait oprezitzen zaiotenak
badakizute nun nagon,
Donostia'ko ziudadian,
número nueve Puyuelo'n.

Bertso-papera, «Imp. J. Díaz. – Irún»; Isabel
Zuaznabar, Basoaundi, Lasarte.

(1927)

«...JESUS MAITIA JAIO ZANETIK...»

- 1/ Milla ta bederatzireun da
ogei ta zazpi urte,
Jesus maitia jaio zanetik
onera bitarte. *Ja, jai!*

- 2/ Bertso berri batzuek
egin dizkat jarri
Aritza eta Arteondo'ren
karga jasotzeari.

- 3/ Deba'ko erri maitean
jokatua dute,
Martxo-illaren seigarrena zan
señaladamente.

- 4/ Gogor saiatu ziran
bata lez bestia,
irabazien geratu dana
izan da gaztia.

- 5/ Arteondo'k amar aldiz
egin zuan jaso,
Aritza'k berriz bi geiagokin
eman zion paso.
- 6/ Leal jokatu zuten
tranparikan barik,
aspalditxuan ez det ikusi
apostu oberik.
- 7/ Aitiaren eginda
txintxo ziran asi;
jakiña dago: karga aundiakin
indarra nagusi.
- 8/ Kargak menderatutzen
gizona errez da,
pixka bat deskuidatu ezkerro
lurrera irris da.
- 9/ Plomua motxa eta
gañera labaña;
ez da erreza, uste izan arren,
artzia tamaña.
- 10/ Amaika ontza luze ta
amalau arrua,
jakiña dago ez duela izango
utsikan barrua.

- 11/ Etxian euki arren
aurrak eta atsuak,
oraindik ere ez daude oiek
mutiko mansuak.
- 12/ Bokadu ona jan da
gañetik tragua,
biyen artian gutxienez dira
amabost arrua.
- 13/ Berriz jokatutzeko
Arteondo zegon zai;
Aritzak berriz erantzun zion:
«Egon adi lasai!»
- 14/ Lau joko jokatuta
biña irabazi,
bostgarrena ere jokatutzeko
preparatzen asi.
- 15/ Amabost bertsoarekin
eiten det bukatu,
gaizki esanik baldin badago
mesedez barkatu.

Bertso-papera, «Imp. Echenagusia, María Muñoz, 8. - Bilbao», Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman, Donostia'n.

«GAIZKI NAIAN EZ DET NIK...»

1/ Gaizki naian ez det nik
egingo ujurik,
nai det neretzat ez beza izan
iñork enojurik. *Ja, jai!*

2/ Beste erri guzietan
bezela Itziarren
gauzak aldrebes gertatu dira
ezetz uste arren.

3/ Ostro gabe ikusirik
aritza neguan,
zaiñak igartu zaizkalakuan
artia zeguan.

4/ *Artiak* Itziartik
esan dizkan itzak,
Mutrikutikan jator erantzun
dizkio *Aritzak*.

- 5/ *Aritzaren* markarik
ez duala ondu,
lagun izanak nai dizkiote
ostruak itzundu.
- 6/ *Artia* len bezela
bear dute jorratu:
karia eman zaiñetan arrik
ez deikion sortu.
- 7/ Ote, txillar da urritz
ta elorri tartian,
Aritza dago sendo norbaitek
deitu bitartian.
- 8/ Jakiñik berriketan
asko zebiltzala,
bañan *aritzak* Debako plazan
jarri du itzala.
- 9/ Ez da *arte-aritzik*
ernetzen bi aldiz;
aprobetxatu denpora, jantzi
baño len odoldiz.
- 10/ «Euskaldunik badago!»
uju egin du Debatik
desafiyua Arteondoren
arriyan gaiñetik.

- 11/ Geiago dala uste
badu, ez ukatu;
berriketa-biria obe da
len-bait-len bukatu.
- 12/ Arrazoi gabe askok
oi ditu zeluak,
oiek ez dira baizikan gari
tarteko leluak.
- 13/ Sallera iristian
artzen ditu luak,
orlakueri deitzen diote
Mutrikun aluak.
- 14/ *Para incomodarse
no quiero dar lugar,
porque lelua en todas partes
es palabra vulgar.*
- 15/ Beajaundeizutela,
Pedro eta Biktor;
gorroturikan izan gabe alkar
neurtu indarrak jator.

Bertso-papera, «Tip. Marín. — San Sebastián»,
Errenteri'ko Enrike Elizetxea'ren bertso-bilduma-
tik.

(1926)

«ARRAUNKALAI-ESTROPADA...»

- 1/ Arraunkalai-estropa
izan da Donostian
lendabiziko Agor-
illaren bostian.

*Ta biar det
adierazi
Bizkaitarrak
dutela errez
irabazi. Pin pon!*

- 2/ Bost erriren artian
ziran zazpi kuadrilla,
premiyua ta bandera
sedazkuan billa.
- 3/ Zan gutxitan bezela
lanerako girua,
iñoiz baño geiago
premiyo dirua.

- 4/ Oiek guziak baño
deseo zan bandera,
juana da Ondarru-
tarraren mendera.

- 5/ Ondarrua lenbizi
zan arraira iritxi,
ta nekatu ziranik
ezkiñon iritzi.

- 6/ Ondoren Pasaitarrak
segundo bederatzi,
ito biar txisturik
eziñik irintsi.

- 7/ Zazpi egun geroztik
estropada bigarren,
naigabia askontzat
ezetz uste arren.

- 8/ Minutuan ogei ta
amazazpi arraunkarak
zijuazen ematen
Ondarruatarrak.

- 9/ Danak aitortzen dute:
«Ezkera oiek aiña;
alperrik da jartzia
illuna bekaiña:»

- 10/ Asko ixildu ditu,
etzan erreza baña,
etorririkan orren
kuadrilla bikaña.
- 11/ Bularra eta zañak
nekera ondo ezi,
estropada orregaitik
dute irabazi.
- 12/ Alkar maite dezagun
geralako anaiak,
kontu txarrak ekartzen
ditu gaizki-naiak.
- 13/ Oraindaño nagusi
arraunian izan gera,
alkar artuaz segi
dezagun aurrera.
- 14/ Lenagoko asarriak
alde batera utzi,
zuen abilidadea
orla erakutsi.
- 15/ Poza ematen dezute
zuek Donostian,
nai degu etortzia
datorren urtian.

16/ Eta edozein moduz
ez errietan ekin,
guziok bizi biar
degu alkarrekin.

17/ Uste gutxienian
zuek gerta ziñezke
negarrez alkarrerri
laguntasun eske.

Jose Ariztimuño «Aitzol» zanaren bertso-bil-
dumarentzeko 1934 urtean «Ondarrua'ko Euskal-
tzale-Bazkuna»-k bialduak.

(1928)

«...ESTROPADAK IZANDU...»

Doñua: *Irundarrari jarri nizkaten
bertsuen gisa*

- 1/ Milla bederatzi eun da ogei ta
zortzigarren urtian,
estropadak izandu
ditugu Donostian.

(ESTRIBILLO)

*Ta esan dute:
«San Pedrori
alperrikan
gu gabiltza, a!,
kendu naian
giltza.»*

- 2/ Agorrillaren biyan
eta bederatziyan,
Aita San Pedrok danak
utzi ditu atzian.

- 3/ Ondarrabiatarra
da kuadrilla bikaña,
bañan etzan iristen
San Pedrotarrak aña.

- 4/ Arrillaga jaunari,
dakialako leman,
merezi duan fama
biar diogu eman.

- 5/ Nekearen bitartez
indar ondo bilduak,
gizon oiek junturak
dauzkate zimelduak.

- 6/ Nagiyak izan gabe
ongi biartuak zañak,
gero egiñ oi dituzte
orrelako azañak.

- 7/ Parrandaeri utzirik
zintzo ibillirikan,
gero korapillorik
ez dezaten birikan.

- 8/ Igez bezela aurten
arrokeria gabe,
zuek egin zerate
oial sedazkuan jabe.

- 9/ Zubena da dotore
oial sedazko piña,
gañera amabi milla
pezetatxo propiña.
- 10/ Premiyo irugarrena
San Juanek eraman du,
balizari jira eman
ziolako berandu.
- 11/ Pedro, zu etzerala
Juanen adixkiria,
norbaiten mingaiñ txarrak
jarri du itz-biria.
- 12/ Ez kasorikan egiñ
berritxu orlakueri,
inbiriya baizikan
ez dizute zueri.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Donostiko Juan Iturralde'ren eskutik jaso.

Paper ontan, euskerazko bertso auen ondoren erderazko beste bost datoz, bañan, gure iritzirako, emen jartzerik merezi ez dutenak.

ESTROPARAK IZANDU...»

Doña: «*Barku simple batian...*»

- 1/ Estroparak izandu
dira Donostian,
batzuen meserian,
askoren kaltian,
okasiorik gabe
elkarren artian,
asi eta bukatu
ziran bitartian.

- 2/ Euskal-erri guzian
biar det adiazi
oriotarrak aixa
dutela irabazi,
ziralako iritxi
arraira lenbizi,
Domingo Mitxelena
zutela nagusi.

3/ Gorroturik ez arren
illuna bekaiña,
indarra eta arraunian
dotore dakiña;
barrenian zuala
kuadrilla bikaiña,
treñeruak zirurin
zuala makiña.

4/ Ondoren zuten marka
obena egiña
ôin emeretzi urte,
egiya da; baiña,
espero arren oial
sedazkoa piña,
aurten ere alperrik
dute alegiña.

5/ Asi Santurze'n eta
Ondarrabiraiño,
arraunlari obenak
dira oraindaiño;
ainbat aldiz probatu
izan dira, baiño
Orio geienian
lenbizi arrairaiño.

6/ Zekorrak uztarriyan
bezelaxen ezi,
gero lanian jator
dezaten ikasi;
giatzalle jatorra
dutela nagusi,
sarritan estroparak
ditu irabazi.

7/ Ainbat oial sedazko
erriko etxian,
ikusgarriak dira
zintzilik jartzian;
neska-mutillen gisa
alai biotzian,
atsuak ere dantzan
soiñua jotzian.

8/ Aurtenguakiñ ogei
eta bederatzi
premiyoko banderak
sedaz dira jantzi;
oiek guziak ustez
diradela gutxi,
Orio'k berriz ere
eingo du irrintzi.

9/ Oi ta beratzigarren
sedazko bandera;
juan dan urtian izan
bazuten galera,
aurten orbel zimurrak
sartu sakelera,
ta eraman dituzte
Orio aldera.

10/ Boga, boga arraunian,
arraunian!
Gera obenak aspaldian,
aspaldian,
Kosta Kantabrian,
Kosta Kantabrian;
aizia eta olatuak
lertzen diranian
diranian,
ez gera gu izutzen
uraren gañian. (*bis*)

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. - Rentería»,
ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

(1941)

AURTENGO ESTROPADAK

- 1/ Estropadak izandu
dira Donostia'n,
milla bederatzi berrogei ta
batgarren urtian. *Ja, jai!*

- 2/ Agorraren zazpiyan,
Kontxaren erdira,
irurogei ta emezortzi gizon
inguratu dira.

- 3/ Patroiakin amairu
ontzi bakoitzian;
agiri ziran iru baliza
Gaztelu atzian.

- 4/ Makiñatxo bat giñan
aieri begira,
ikusi naian zeñ irixten zan
lenbizi arraira.

- 5/ Estropada bietan
ona zan girua;
portalieta, beti bezela,
bentajan dirua.
- 6/ Ilusio geiegi
zutenak buruan,
mingaña gaizki dantzatu zuten
nere inguruan.
- 7/ Egun artan San Juan
probaturik ondo,
Ondarrabia'k zuan bentaja
zan iru segundo.
- 8/ San Juan'ek arrauna
jaso ta esan du:
«Gure markarik oraindik ez du
iñork ere ondu.»
- 9/ Milla bederatzireun
ogei ta iruan,
Matxet giari, etzan atsegiñ
aien inguruan.
- 10/ Urrengo igandian
batzuek irrintzi,
eta bestiak eziñ txistua
zutela irintxi.

- 11/ San Juan zan arraira
iritxi lenbizi;
segundo batez Ondarrabia'k
zion irabazi.
- 12/ Aurten, bene-benetan
etorririk billa,
ditu bandera eta pezetak
emezortzi milla.
- 13/ Beti saiatu dira
arrokeri gabe;
aurten lenbizi dira bandera
sedazkuan jabe.
- 14/ Oiek beti portatu
diran edo ez jator,
dudan dagoana dakianari
galdetzera betor.
- 15/ Izan arren aizia
eta olatuak,
ontziya zuzen giatu zuan
zuten pilotuak.
- 16/ Saiatu, mariñelak,
jator berriz ere,
gorrotu gabe bizi-moduan
alkarri mesere.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Arizkun'go baserri batetik.

(1946)

BIBA ORIO!

Doñua: «*Cuando yo sea alcalde...*»

- 1/ Agorraren iruan
ta amabostian
estropada jatorrak izandu
dira Donostia'n. *Ja, jai!*
- 2/ Arraunlari euskotar
gizonak bikañak
izanagatik, atzian utzi
zituan Pedreña'k.
- 3/ Batzuek meseria,
askoren galera,
ontzi obiarekin Orio
Santander aldera.
- 4/ Ostegun urrenguan
eta igandian
oriotarrak ziran aurretik
Santander'ko baian.

- 5/ Errex irabaziko
zutela uste, baña
Orio'ren atzetik, Sestao
bezela, Pedreña.
- 6/ Bandera ustez egiñ
zutela berentzat,
sedazko piñ, urrez bordatua,
oriotarrentzat.
- 7/ Erre nai bazioten
enbarkaziyua,
ori da zentzu-gabiak duten
edukaziyua.
- 8/ Bedia'k izan arren
ostentaziyua,
distingitu zan Makazaga'ren
tripulaziyua.
- 9/ Orio'ko atsuak
aguriakiñ dantzan
egingo dute, amalau gizon
oien alabantzan.
- 10/ Asi Santurze'n eta
Ondarrabi'raiño,
arraunlari obenak izandu
dira oraindaño.

- 11/ Arraunlari jatorrak
oitura garbiyan
oriotarrak dira, itxasuan
bezela, ibayan.
- 12/ Aizkolariyak ere
Euskal-errikuak
dira, dituztenak pare bana
gorringo bikuak.
- 13/ Birika lasaia eta
indar aundikuak,
orregatikan dira kanpeoi
Españia'kuak.
- 14/ Gipuzkoa ta Bizkaia
alkarren lagunak,
zergatik geran gure izkuntza
euskera degunak.
- 15/ Birau bakar bat ere
ez duan izkera
maite dezagun, maitagarriya
dalako euskera.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

Paperak ez du urterik esaten, bañan 1946'eko
estropadak dira.

«NUA FEDE ONIAN...»

Ogei bertso auetatik, bederatzi Errekartetxori eskeñiak dira. Amezketako Albizuri-Aundi deritzaion arria, jaso berria zuan. Jaso-aldi ori, 1947.XI.30'an egin zuan; ta, dirudianez, bertso auek andik denbora gutxira jarriak dira.

- 1/ Nua fede onian
jartzera bertsuak
onrak merezi dituztelako
gizon indartsuak. *Ja, jai!*

- 2/ Gora Errekartetxo
gizona bikaiña,
indarra duana sei urteko
zezen batek aiña!

- 3/ Amezketan arriya
Albizuri-Aundik
jasotzen zuana, jaso du, bestek
ez duana oraindik.

- 4/ Uste zuten etzala
irixten indarrez,
irugarrengo eldu-aldiyan
jaso zuan errez.
- 5/ «Kopa eta premiyua
ongi mereziyak!»
esaten zuten orri begira
an ziran guziyak.
- 6/ Amar gizon bikaiñak
prueba egitera
gustora juan ziraden erri
zartxo politera.
- 7/ Askok esaten zuten:
«Da izugarriya
egun da irurogei ta zazpi
kiloko arriya!»
- 8/ Benetan eldu arren
arriyak balantza,
dalako aingira beziñ leguna,
gaiñera trakatsa.
- 9/ Izan arren trakatsa
pixu aundikua,
badira jasotzeko dutenak
indarra naikua.

- 10/ Zituala merezi
esanaz alkarri,
txaluak zizkioten Oliden
arraunlariyari.
- 11/ Gora amar gizonak
zutelako aletin;
iru zarrenak ziran Etxaniz,
Usuola ta Txomin.
- 12/ Orain irurogei urte
Elgeta'ko Aundiya,
jasotzen zuana ogei ta bat
arruako arriya.
- 13/ Agustin Beliategi,
Mutrikuarra berez,
ogei ta iru arruakua
jasotzen zuana errez.
- 14/ Al dakizute arriya
Arteondorena
zala berreun da zortzi kilo
pixatzen zuana?
- 15/ Bitor Iziartarrari,
indartsua izan arren,
Pedro Maria Mutrikuarrak
irabazi Eibarren.

- 16/ Pultsulariya Eltzekondo
ez da besterikan
zortzi arrua esku batekiñ
jasotakorikan. (1)
- 17/ Eltzekondo bezela,
indar aundikuak
dira dituztenak pare bana
gorringo bikuak.
- 18/ Kortaberriren aitona
gizona garratza;
zan aizkolarietan onena
Mendaro'ko Erentza.
- 19/ Gorputza indartzeko
diruaren ordain,
arrautzak eta urdai-azpikua
merke daude orain.
- 20/ Festa orrelakuak
jarri berriz ere,
tabernariyak esan dezaten
dutela mesere.

(1) Bertso-paperak: jaso ta korrikan.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. — Rentería»,
Tolosa'ko Periko Elozegi'ren eskutik.

«MENDAROTAR BAT EGIÑA...»

Música: «*Cuando yo sea alcalde...*»

- 1/ Mendarotar bat egiña
amairu eriotza
zan Jose Larrañaga, zuana
zitala biotza. *Ja, jai!*

- 2/ Artxiola palankari
gizona garratza,
onena zala aizkolariya
Mendaro'ko Erentza.

- 3/ Aizkolaria bezela
Arozpide zarra
laisterkariya zan, besterikan
ez beziñ azkarra.

- 4/ Pultsulari Eltzekondo,
ez da besterikan
esku batekin zortzi arrua
jasotakorikan.

- 5/ Oso sanatua zan
Elgeta'ko Aundiya,
jasotzen zuana ogei eta bat
arruako arriya.
- 6/ Esan oi zuten zala
marka izugarriya,
arri astuna izanagatik
zuana uztarriya.
- 7/ Oriotar Sarasua
arraunlarietan
zala onena, ez beza iñork
dudarik orretan.
- 8/ Eibar'ko zezen-plazan
esan dute ainbatek
Lastur'ko zezen bik ainbat indar
duala Soarte'k.
- 9/ Astuna izan arren
zuan ainbat indar:
jaso egun da berrogei eta
emeretzi bidar.
- 10/ Arri aien pixua
amarna arrua,
biak txit errex jasotzen zuten
zutela garbua.

- 11/ Ziruriten ziralá
igualtxo indarrez,
Aiarrak jasotzen zuan Lastur-
tarrak bezin errez.
- 12/ Iruritutzen zait, berriz
jokatzen badira,
izango dala nun-nai jendia
oieri begira.
- 13/ Urre-zillarrikan ez,
paper zarra ugari;
galtzen dutenak, len bezelaxe,
azka buruari.
- 14/ Nik esango det nun-nai
testigu naizela:
Aian jende indartsu bigurriya,
Lasturren bezela.
- 15/ Antziñako gizonak
uste onak indarrez;
egin zituzten markak borratzen
dituzte orain errez.
- 16/ Neri esan diatenez,
da Bedaio'kua
Sanson'ek zuan ainbat indarra
duan morroskua.

17/ Lasai birika eta
sendua gerriya,
jaso egun da larogei ta amabi
kiloko arriya.

18/ Urtiak dituala
emeretzi oraindik,
jasoko luke jasotzen zuana
Albizuri-Aundi'k.

19/ Ez da orren inguruan
atsegiñ izango,
osasuna ta urtiak sei bat
dituala geiago.

20/ Askorena izango du
orrek abisua:
komeni zaizkala jaki onak
ta erari gozua.

21/ Irutxurrik ez arren
nik diot esango
danen gustorik lanteri orretan
ez duala egingo.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. - Rentería»;
Oiazun'go Jose Joakin Mitxelena bertsolariari
jasoa.

«ITURRIKO URA BEZIN...»

Doñua: «*Cuando yo sea alcalde...*»

- 1/ Iturriko ura bezin
garbiya izkera
maite dezagun, maitagarriya
dalako euskera. *Ja, jai!*

- 2/ Nai ditugula Euskal-
errian jayuak,
txit antziñakuak diralako
gure usariyuak.

- 3/ Festa ikusgarriak
izan arren oraiñ,
estroparak ez beste guziak
diru askoren ordaiñ.

- 4/ Noiz eta nun izango
dan aizkol-jokua
jakiñ dezagun, merke papertxo
egunerokua.

5/ Dirala zezen-plaza
ikusgarrietan,
dirua galtzen badu gizonak,
andria errietan.

6/ Urtiak ogei ta iru,
aizkolari onena,
Leitza duana jaioterriya
da Garziarena. (1)

7/ Askok esaten dute,
dalako bikaiña,
indarra duala sei urteko
zezen batek aiña.

8/ Onak iruripenak,
jatorriz umilla,
batere arrokeriyarikan
ez duan mutilla.

9/ Merezi dituztela
onrak eta famak,
ori mundura ekarri zuten
aitak eta amak.

(1) Gartziarena aizkolaririk onena baldin ba-
ba, Arriari irabazi ondorengo bertsoak dira auek
(1949.XII.18); eta Luxiarekin galdu baño lena-
gokoak (1950.X.29).

10/ Naparra Baleztena,
jaiua Zubieta'n,
aizkolariya ona ikasten saiatu
dalako benetan.

11/ Orain larogei urte,
gizona garratza,
zan aizkolarietan onena
Mendaro'ko Erentza.

12/ Iziar'ko Erleteri
irabazi ziona
Joxe Manuel Kortaberriren
aitaren aitona.

13/ Aizkoran da korrika,
Arozpide zarra,
Azkoiti'kua zan besterikan
ez bezin azkarra.

14/ Irabazi Arozpide'ri
ziona Soatxiki,
gaztiagua zalako indar
geiago iduki.

15/ Lastur'gua Murgizar
aizkolari ona zan
mendiyan, bañan korajerikan
etzuana plazan.

- 16/ Aizkolari bikaiñak
asko ziran, baiño
Keixeta onena, eskua elbarri
zuan arteraiño.
- 17/ Santa Agedak sasoian
zituan garbuak,
Atxunberrik bezela ebakitzen
kanako paguak.
- 18/ Sasoi ona ta gizon
ikaragarriya,
zionian irabazi Agiñetari
zalako Arriya.
- 19/ Gaztiaguak irrintziz
nai al duten joka
dituzte, baiña ez dira izutzen
Arriya ta Korta.
- 20/ Ez beza iñork dudarik,
ditugu lagunak,
ez diralako Erribera'kuak,
napar euskaldunak.
- 21/ Festak orrelakuak
jarri berriz ere,
kalte batzuek izango dute,
bestiak mesere.

(1950)

«AMALAU MILLA BEGIRA...»

Doñua: «*Cuando yo sea alcalde...*»

- 1/ Amalau milla begira
zirala Donosti'n,
milla beatzireun berrogei eta
amargarren urtian.
- 2/ Aizkol-jokua zezen-
-plaza ederrian,
Urriak ogei ta bederatzi
zituan egunian.
- 3/ Bi aizkolarik onenak
famarik onena,
dudarik gabe, Jose Narbaiza,
Martin Garziarena.
- 4/ Urre-zillarrikan ez,
ugari papela,
zebillen ego-aiziak aidean
bezela orbela.

- 5/ «Trabesa nola dabill?»
zuteneri galde,
nioten erantzun: «Egun berrogeiri
naparraren alde.»
- 6/ Basuan ziran zaillenak
zituzten tronkuak
ebakitzeko, Naparrua'tik
ekarritakuak.
- 7/ Leitza'n erakuslia
ona izan arren,
zarraguak zuan Agiñeta
Luxiak Eibarr'en.
- 8/ Giputza lerdena ta
sendua naparra,
zirala gizon zezenak ainbat
zutenak indarra.
- 9/ Zan bezela naparra
giputza benetan
saiatu ziran; ez beza iñork
dudarik orretan.
- 10/ Guzien gustora eziñ
jokua erabaki;
zortzi paguak zizkion Luxiak
aurretik ebaki.

- 11/ Zorririkan ez baiña
azka buruari,
galdu zutenak bekokiya illun,
berriketa ugari.
- 12/ Luxiak ditu aurrak
eta emaztia,
urtiak ogei ta bederatzi,
gizona gaztia.
- 13/ Garziarena ogei ta iru
dituana oraindik,
lezakeala sasoi ohea
ez izan dudarik.
- 14/ Garziarena dala
jatorriz umilla,
bat ere arrokeriarikan
ez duan mutilla.
- 15/ Zergatikan ez duan
egin irutxurrik,
da merezi ez duana iñoren
begiratu txarrik.
- 16/ Jendiak nai du berriz
joka ditezela,
Atxunberri eta Santa Ageda
ziraden bezela.

17/ Batere gorroturik
izan gabe alkarri,
zerratu apustura ta dirua
len bezela ekarri.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»,
Fernando Artola, «Bordari», Ondarrabia.

(1952)

«ADIERAZI NAI NUKE...»

Doñua: *«Ikusi nuanian
nik zure sudurra...»*

1/ Adierazi nai nuke
nere bertsuetan,
Gipuzkua'n da Naparrua'ko
erri batzuetan:
milla bederatzireun
berrogei ta amabi-
garren urtean Donostia'ra
jendea ugari.

*Sí... sí...
lanian ikasi...
naparra ona baña giputxak
errex irabazi.*

- 2/ Aizkol-jokua zezen
plaza ederrian
zala Abendu-illaren zazpi-
garren egunian. (1)
Zezen-festa danian
bezela jendea,
sarrera garisti izan arren
plaza ongi betea.
- 3/ Trabeslarieri uju
egiten galazi,
egun irurogeiri Luxiak
baietz irabazi.
Orain bi urte juan arren
buruari azka,
naparrak poltsan ekarri zuten
dirua gainazka.
- 4/ Zezenak ainbat indar,
gizonak larriak,
ziran giputza eta naparra
bi aizkolariak.
Agertu ziranian
plazaren erdira,
ogei bat milla, txalua joka,
zituzten begira.

(1) Luxia ta Gartziarena'ren aizkol-apustua,
Donostian, 1952.XII.7'an. Luxiak irabazi zuan.

- 5/ Zortziña ebakitzeko
zituzten paguak,
naparrak ekarri zituanak
gogorxiaguak.
Erakusle gabe nai
zala fantasia,
baiña giputxa zan ofiziua
ondo ikasia.
- 6/ Altzairu onak zuten
aizkora berriyak,
zorrotzak egiñak Errezil'go
errementariyak.
Alperrik dira ibilli
Luxiari zirika,
Sansonek ainbat indarra du ta
lasaia birika.
- 7/ Erakusle Agiñeta,
lanteriya Eibarren,
naparra errex menderatu du,
ona izan arren.
Orain bi urte bezela
alperrikan saia,
mutill bikaiña izanagatik
Leitza'ko artzaia.

8/ Xaxaka izan arren
inguruan milla,
da batere arrokeriyarikan
ez duan mutilla.
Benetan saiatu zan,
ez izan dudarik,
da merezi ez duana iñoren
begiratu txarrik.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. — Rentería»;
Antonio Arrillaga jauna zana, Elgoibar.

«URRIA ILLA TA EGUN
AMARGARRENIAN...»

Doñua: «*Cuando yo sea alcalde...*»

- /1 Urria illa ta egun
amargarrenian
festak izango dira Elgoibar
deritzan errian. *Ja, jai!*

- 2/ Korta eta Kortaberri,
Arriya ta Luzia,
lau aizkolari dutenak fama
ondo merezia.

- 3/ Izango dituztela
kana erdikuak,
lauren artian ebakitzeko
amasei tronkuak.

- 4/ Oientzako ez dira
neurri aundikuak,
zergatik dituzten pare bana
gorringo bikuak.

- 5/ Makiña bat urtian
da Elgoibar'kua
don Tomas Etxezarreta jauna,
ona medikua.
- 6/ Txit borondate ona
duala dakigu,
orregatikan omenajia
egingo diogu.
- 7/ Askok deitzen diotena
Arnobate'kua,
da don Antonio Arrillaga
zorionekua.
- 8/ Makiña bat elbarri,
bestek eziñ arren,
almena izanik, orrek sendatu
ditu Elgoibarren.
- 9/ Nai nuan bertsetan
zerbait adierazi,
Ondarrabian bezela Eibarren
dirate galazi.
- 10/ Kastigatzia zuten
banuan merezi;
baña dakite nolabait ere
nai detela bizi.

- 11/ Begi bat itxutua,
bestia elbarria,
urtiak irurogei ta amalau
nere edadia. (1)
- 12/ Dirua irabazten det
oraindik lanian,
iñor agintari ez detela
nere aldamenian.
- 13/ Antziñakuak dira
gure usariyuak,
onratu biar ditugu Euskal-
Errian jayuak.
- 14/ Birau zakar bat ere
ez duan izkera,
iturriko ura bezin garbiya
dalako euskera.
- 15/ Aurrari erakutsi
euskeraz lenbizi,
erdera ere komeni da ta
biar dute ikasi.
- 16/ Txikitandik lanian
biar dira ezi,
jakin dezaten gero dirua
nola irabazi.

(1) Beraz, 1948 urtekoak bertso auek.

- 17/ Iñork ere alperrari
ez dio zorrikan,
ori egiya ez baldin bada
ez da gezurrikan.
- 18/ Obeki bizi nai du
langilliak, baiño
al dakizute ori gertatu
dala oraindaiño?
- 19/ Esposatu ziraden
Pello eta Ramona,
lanik egiten ez dute baña
bizi-modu ona.
- 20/ Dituzte bizi-lagun
Maria eta Jose,
sabela ongi ase nai dute
diranian gose.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»;
Makazaga'renean bertan jaso.

GORA MATEO DE LA OSA!

Doña: «*El Caserío*» de *Guridi*

1/ Pakean bizi gaitezen
ondo uniturik,
Gipuzkoa'n da Bizkaia'n
boseuan oiturik,
arraunian bezela
indarrak neurturik,
alkarregana izan
gabe gorroturik.

2/ Kontrariuak egiñ
dute alegiña,
uste arren etziran
iristen zu aña;
zera korajetsua
ta mutill bikaña,
etzazu damutuko
lan ortan ekiña.

3/ Ikusirik Mateok,
zan asarratuta,
Antzomendi'ko akerra
baratzan sartuta;
andik biali zuan,
ezkerrakin jota,
igasi eskubiko
adarra okertuta.

4/ Mateo boseo-lan
orretan asirikan
urte bete bakarrik
da oraindiokan;
noranai juateko
ez du bildurrikan,
amazazpi pelia
irabazirikan.

5/ Ostiango lanetan,
ez da errex-eta,
saiatuagatikan
erozer klaseta,
zuk bezela, jua gabe
Buenos Aires'eta,
biltzia lau milla ta
bosteun pezeta.

6/ Merezi duan fama
nairikan ezarri,
«Osa guk maite degu»
esaten alkarri,
egia da somatu
ditugula sarri
Ondarrua guzian
kale ta basarri.

7/ Egokiya txit egan
bezela usuak,
argi begia ta oñak
gora errex jasua;
jaio ziñan ezker
guziz erosuak
izandu dira eman
dituzun pausuak.

8/ Bularra mardula ta
luziak besuak,
ezker-eskubi oien
ikobilkazuak
dirurite zokorra
jotzeko mazuak;
nor ez du izutuko
zure erasuak?

9/ Txaloka, irabazi
dualako Osa'k,
neskatxa diruriten
Apirill-arrosak,
Maiatzian txepetxa
dan bezin airosak,
ttunttuna jo ta dantzan
egin dute pozak.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea; Donostia'ko Juan Iturralde, «Juanito Kojua».

Bederatzigarrenaren ondoren, beste sei bertso datoz erderaz, bañan ez dute jartzerik merezi.

OTXOA TA UZKUDUN

Doñua: *Anton Ixkiña*

JABIER OTXOA

- 1/ Gora Jabier Otxoa,
eskerrak emanik;
askok ori ezagutu
artian, euskaldunik
etzuten uste noski
azkarrak giñanik;
gaur ez da nazio bat
aitatzen ez danik,
Urdiañ'en jaio zan
jaun orren izenik.

- 2/ Burutik orporaño
gorputzez liraiña;
bederatzi arrua,
ez da pisu ariña;
indarra zezen batek
ainbat badu baiña,
arrokeriya gabe
ondo itzegiña,
pakean bizitzeko
guziz atsegiña.

- 3/ Mutil gaztia zala
juanik Amerika'n,
an gutxik zuten orrek
ainbat indarrikan;
geroztikan, Europa'n
bezela, Afrika'n,
lucha grecorromana
ondo ikasirikan,
gaur ez dago bat ori
zapaltzekorikan.

PAULINO UZKUDUN

- 4/ Orra Paulino Uzkudun:
mutil indartsua
izan arren, ez asko
beziñ berritsua;
begi-bista argiya
eta korajetsua,
sasi-mediku danak
bezin jakintsua,
gomazko goantiekiñ
artzen du pultsua.

- 5/ Gurasuak lanian
txikitandik ezi,
ala ere mutilla
galanta zan azi;
aizkoran ikazgiñan
mendiyan ikasi,
premierik obena
zuan irabazi
Deba'n eta Gernika'n,
zalako nagusi.

6/ Geroztik izan arren
ona aprendiza,
erakutsi nai-ezik
maisuan lainēza,
boseuan ikasten
nola ez dan erreza,
egon gabe bildurrak
beste askon gisa,
obeaguarengana
juan zan Paris'a.

7/ Ankak erbiyan gisa
gora errez jasua,
sei urteko leoian
gisako besua;
ezker-eskubi oien
ikobilkazuak,
ez dago dudarikan,
etziran gozuak,
largatzeko arriturik
Paris'ko maisuak.

8/ Etzioten topatu
kontrariyo eskasa:
lendabizi rusua,
bigarren prantzesa;
geiago zirala uste
ta jo ditu aisa;
irugarren kanpeon
zeguan olandesa,
benderatu duana
beste bien gisa.

9/ Geroztik España'n
lau jo ditu errez;
munduan dan erririk
aundiena Londres,
zortzi milloi persona
dauzka diotenez;
itxasuan erdian
eta zubirikan ez,
juan biar izan du
baporian urez.

10/ An Kook australianua,
zaintsua ta bizia,
boseo-lan orretan
ondo ikasia,
azeri zar soil batek
ainbat malizia;
puntu biz irabazi,
ondo merezia,
orregatikan dago
obeto ikasia.

11/ Irugarrenerako
Paulino zegon zai;
zakurraren gisa Kook
urrutitik usai,
oñaziak sendatzen
barrendikan lasai, (1)
bere orde deiturik
kanpeon inglesai;
ez dudarikan izan,
txantxetan ez naiz ai.

(1) Bertso-paperak: barrendik.

12/ Frantzia'ko Baiona
deritzan errian,
Goddard pamatuari
jarririk aurrian,
Garizuma ainbat luze
eta arrokerian;
duda gabe Paulino
zeguan indarrian:
azkerotikan ez du
otzik sudurrian.

13/ Geroztikan gripekiñ
baraurik oyian
egon da, jaiki gabe
zazpi egunian;
Puxol aprikanua
bere parajian
—izandua naiz Arjel
deritzan errian—
bi *rrunetan* etzan du
sei aldiz lurrian.

14/ Orren ikobilkeri
eziñikan eutsi,
Teixidor katalanak
zuanian etsi,
orrekin benderatu
ditu bederatzi,
ta guziak lurrian
korde gabe utzi;
orrek len soiñian zun
zintura du jantzi.

15/ Espalla da kanpeon
Europa'n daguana,
eta Paulino laster
dijua orrengana;
zintura kentzen baio
soiñian duana,
ori jantzita udaran
juango da Baionâ,
amerikano Denssey
famatuangana.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Al-
dalur, Ugarte baserria, Azkoitia.

* * *

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Oiar-
tzun'go baserri batetik Luis Mitxelena jaunaren
bitartez eskuratua.

Aldaketak: 1/1: Gora euskaldun naparra;
1/3-4: Otxoa ezagutu arte euskaldunik; 1/5:
etzuten iñon uste; 1/7-10: ordena aldatua era
ontan: 9, 10, 7, 8; 9/5-8: ordena aldatua era
ontan: 7, 8, 5, 6;

13/ Asko mingaña legun ta ibillerak lakar,
guri muskarren gisa desaireka *kar-kar*;
nagitasun gabea degun beziñ azkar,
gorrotuak sekulan gauza onik ez dakar,
zazpi Euskalerrio'k artu zagun alkar.

14/ Norte-Amerika'tik deitu diotela,
gañera jakin degu laister dijuala,
Zumai'ko ondartzan daukana kaiola;
zazpi eusko probintziak opa diogun bezela,
aingeru guardakuak lagun dakiola.

15/ *Orbea y Sarasqueta* lan egindakuak,
en todo el universo fama on aundikuak;
llevan por esos mares dauzkatzen barkuak,
Sota y Echeverrieta zori onekuak,
Dios guarde muchos años gizon orlakuak.

* * *

Beste paper bat ere atera zuan Mendaró'k Uz-
kudun'eri buruz: amalau bertso, moldiztegi-ize-
nik gabeko papera ta Donostiko Juan Iturralde,
«Juanito Kojua»-ren eskutik jaso.

Paper onek, sei bertso' ditu aurreko sailarenak:
2, 4, 5, 6, 9 ta 10'garrena, zenbait aldaketarekin.
Oiez gañera, beste auek:

Kristo zerura igo baiño len, abillak
oiñ bezela Errezillen baziran mutillak:
puntan altzairuakiñ lizartxo makillak,
Kaskazuri oiartzuntarraren kuadrillak,
irabazteko Erromatarrereri bataillak.

Soldaduzka tokatu beste askon modun;
ikusirikan nola egiten zan jardun,
istruziua ikasten aintzen zien ordun,
lenbizi Donosti'an ezagutu gendun
Errezil'go semia Paulino' Uzkudun.

Egun batez pillotan Endaia'ko plazan,
orri begira jende guzi arritu zan;
mediku jaun on batek omen zuen esan:
dudarik gabe ona eingo zala izan,
boseuan ikasten saiatutzen bazan.

Erritarren bat badu asko maite duna;
aditurik mediku jaun orrek ziona,
esan zion: «Paulino aizak nere esana:
begien bistan zioz balio dekena,
ikasi arte eska zak biar deken dana.»

Lendabizikuari kendu zizkan autsak;
ta bigarrenguari, iduki arren gaitzak,,
autsi zizkan sudurra, agiñak eta ortzak;
eta irugarrenari, zeuzkalako otzak,
epeldu dizka ederki belarriyen ertzak.

Oraindaño benderatu ditu bederatzi,
ta guziak lurrian korde gabe utzi;
kanpeoi Españikuari zintura erantzi,
arrokeririk gabe soñian du jantzi,
Europakua jantzia bear luke iritxi.

Arrosa-krabeliñen tarteko osiñak,
latzak izanakatik, dira sendakiñak;
erakusten dizkigu orlako azaiñak,
dudarik gabetandik dauzkalako zaiñak
senduak eta zaillak, odolez ordaiñak.

Orain sendatu arte biar dan moduan,
pasiatu ta obenak sagarduak eran,
mokadu goxoenak janaz otorduan;
eta berriz Parisa juaten dan orduan,
ez da izango atsegiñ orren inguruan.

* * *

Beste paper bat ere badu Mendarok Uzku-
duneri buruz. Paper ori moldiztegi-izenik gabea
da, ta Tolosa'ko Isaak Lopez-Mendizabal'ek Bue-
nos Aires'etatik bialdua. Paper onek, amar ber-
tso ditu; oietatik zortzi, onen aurreko pape-
ran daudenak: 1, 2, 3, 5, 6, 7, 8 ta 9'garrena.
Oiez gañera, beste bi auek:

Aizkoran Kortaberri eta Kerixeta,
kontrarioz gabe arkitzen ziran-ta,
Deban eta Gernikan, premiora juanta,
bat banaka bieri irabazi eta
jende guzia larga zuan arrituta.

Parrandarik ein gabe gorputza ondo zaitu;
ez izan dudarikan, orrek galtzen gaitu;
aintzen zien bezela pozez ensaiatu,
erakuslan itzak atentzioz aitu,
merituak orrela irabazi ditu.

BIBA UZKUDUN!

Doñua: *Anton Iskiña*

1/ Jartzia pentsatu det
dirala komeni,
nola enteratuba
ondo nagan ni,
azaña izugarriyak
ditualako urni,
bertso polit batzuek
Paulino Uzkudun'i.

2/ Europa'ko obenak
menderaturikan,
ziran ogei eta bat
ta gabe lanikan;
esan zuan: «Oberik
badan Amerika'n,
probatzera juateko
ez det bildurrikan.»

3/ Firpo probatu naian
esandako itzetan,
ikusi zutenian
Buenos Aires'etan
barkutikan lurrera
jetxirik benetan,
aprejeta zuriak
jantzirik oiñetan.

4/ Firpo'k itzak ukatu,
ta, egon gabe dudan,
Norte aldera jua zan
artu edo eman;
lenbiziko pelia
egin du Habana'n,
zuten makiña batek
ezagutu nor dan.

5/ Bigarren kontrarioa
zuan cubanua;
izan arren gizona
luzia ta sendua
ezkerrarekin jota
autsi betondua,
lurrera erori zan
guziz gelbendua.

6/ Habana'tikan berriz
juan zan Nueva York'era,
ustez an bazirala
kontrariyo-aukera;
arro zebiltzan danak
bildurtuta kera,
ikusirik euskaldun
mutillan jokera.

7/ «Zergatikan dezute
orrelako kezka?»
Ta erantzun zioten
buruari azka: (1)
«Zure zartatekuak
dira errebeska,
izugarriyak dute
indarra gañezka.»

8/ Norteamerikano
oiek duten gala,
ustez guziok bañon
geiago dirala;
Euskalerritik juan da
mutilla leiala,
beste lau benderatu
ditu beriala.

(1) Puntu onetan papera puskatuta dago, ta ezin irakurri da ondo. Orregatik, ez gaude oso seguru *buruari azka* izango dan.

9/ Harrobillis deritzana
beltza zan seigarren,
orren igasi Dempsey
len ibilli arren,
au bildurtzia orrek
uste izan arren,
orrekingua egin du
egundoko azkarren.

10/ Anakak erbiyaren gisa
gora errez jasua,
zazpi urteko leoian
gisako besuak;
ezker-eskubiyekin
ikobilkazuak,
oraiñ aitortzen dute:
«Ez dira gozuak!»

11/ Gurasuen jatorrez
izanik bikaiña,
Paulino dan bezela,
da gauza jakiña:
txikitandik lanian
biartuak zaiñak,
gero egiñ oi dute
orlako azaiñak.

12/ Orrelako markarik
dituanik ondu,
oraindiokan beste
bat ez da izandu;
berak makiñatxo bat
aldi bat esan du:
«Juxto Oiarzabal da
zirana lagundu.»

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea; Grego-
ria Ibargoien zana, Orio.

PAULINO UZKUDUN'ERI

Doñua: «*Pello Joxepe tabernan dala...*»

- 1/ Bertso berriak jartzera nua
Paulino Uzkudun'eri,
bere azañak ain dira aundiak,
iduritutzen zait neri
adierazi komeni dala
Euskal-erriko daneri.

- 2/ Kontrariua lenbizikua,
Turof deritzan rusuak
bi aldiz galdu ta esan zuan:
«Zer dira orren besuak?
Buruan nitun zorriyen gixa
ill dizkit arkakusuak!»

- 3/ Ondoren Journee eta Jauberman,
Turof beziñ erosuak,
eta boseo-lanian ondo
erakutsiak maisuak,
bañan kukullu zituan biak
Paulinoren erasuak.

4/ Matheu, Tubenley eta Dalaxe,
aintzen dan usariyuan,
irurak jo ta eratxi zitun
lendabiziko sayuan,
ortzak autsi ta odola pranko
sudurretik jariyuan.

5/ Zazpigarrena zan Españiko
kanpeon zan katalana,
bañan Paulinok laister Paris'en
egin du orrekiko lana; (1)
naikua zitun ezker-eskubi
ikobilkaratxo bana.

6/ Zortzigarrena izan da Nilles;
egñ arren alegiña,
korajetsua eta gizona
izanagatik bikaiña,
Barcelona'n bi ortz autsi zizkan
eta Paris'en bekaiña.

7/ Bederatzigarren soldadu frantzes
guzien zanak nagusi
Bilbao'n esan zuan: «Oinguan
ez naiz juango igasi!»
Bañan euskaldun artilleruak
zion batalla irabazi.

(1) Paperak *egin digu* dio; bañan nabarmen
dago *egin du* bear duala.

- 8/ Australianua, amargarren, Kook
menderatu du Londres'en,
baita kostata puntuetara
bigarren aldiz Paris'en;
Paulinok deitu Baiona'ra,
etorritzeko bildur zen.
- 9/ Godard Baiona'n, Kook'en ordiaz,
zuan amaikagarrena,
dudarik gabe Ingalaterra'n
zan gizonik azkarrena;
belarri-ertzak epeldu zizkan
ta etzuan lasai barrena.
- 10/ Puchell izan du amabigarren,
menderatu du Afrika'n,
bost egunian barau-baraurik
oian egonagatikan;
orren onduan etzuan egiñ
denbora asko zutikan.
- 11/ Umbeek jo zuan amairugarren,
amalaugarren Barrik;
esaten zuten orrek etzula
euskaldun baten bildurrik,
gerta zitzaion ez izatea
Paulinok ainbat indarrik.

12/ Amabostgarren zuan Pillixkot
Bilbao'n askon aurrian;
ezkerrarekin giltxurdiñetan
jota seigarren *rumnian*
eratxi zuan, ta izugarrizko
marrua egin zuan lurrian.

13/ Iduriturik lan guzietan
berak dirala obenak,
amaseigarren desapiua
Breinstaeter alemanak;
bañan goguan ditu Berlin'en
Paulinok eman dizkanak.

14/ Zan amazpigarrena Deyler,
Taylor emezortzigarren;
ezaguturik Amerika'tik
zer intentzio zekarren,
orrekinguak egiñ zituan
egundokorik azkarren.

15/ Espalla zegon nagusi tropan,
arrokerian ujuka,
eta, Paulinok erantzutian,
esandako itzak uka;
esaten zion: titulua utzi
edo egiteko burruka.

16/ Barcelona'ko zezen-plaza zan
indarrak neurtzeko sailla;
orrekinguak egiten Paulinok
ez du izandu lan zaila,
tranpian asi zitzaion baña
okertu dio masailla.

17/ Iru urte da ekin ziola,
ainbeste ikobilkara!
Europa ontako oben daneri
sartu diote ikara,
obeagorik billatzen duan
dijua Amerikara.

18/ Nueva York'era dijuanian
izango ditu lagunak:
zazpi probintzi onetakuak
an badira euskaldunak,
ondo au zaitzeko enkargatuak:
Eibartar Zuloaga jaunak.

19/ Borondatia eta indarra
eta korajian jabe
izanagatik, zer egiño zuan
iñon laguntasun gabe?
Erritar batek egin zion da
askozaz bientzat obe.

20/ *Nos recomiendan los que han com-
ta oiñetan dabilizenak [prado
las alpargatas marca Uzcudun
dirala urratzen gaitzenak,
en Donostia fábrica Antton
Elosegi deritzanak.*

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose
Goikoetxea, Amaro, Tolosa.

(1945)

«GUSTO DUANIK BADA...»

Doñua: «*Cuando yo sea alcalde...*»

- 1/ Gusto duanik bada
irakurri ditzan,
bertsuak ditut jarri Euskal-erri-
aren alabantzan. *Ja, jai!*
- 2/ Birau zakar bat ere
ez duana izkera,
iturriko ura bezin garbiya
dalako euskera.
- 3/ Arrantzale jatorrak
ziran euskaldunak,
Amerikara Cristóbal Colón
baño len juanak.
- 4/ Zuten patroï Jauregi
an arrantzaliak,
arpoiarekiñ arrapatutzen
zituzten baliak.

- 5/ Mutriku'n da Zumaia'n
ziran zurezkuak
egiñak, gizon aiek zituzten
belako barkuak.
- 6/ Sebastian Elkano
Getariya'kua
zan urez lenbizi munduari
buelta emandakua.
- 7/ Pilipinak Legazpi
zan deskubritua;
Aita Urdaneta salbaje asko
an konbertitua.
- 8/ Okendo zan orduan
erregia urez,
gizon argiya, korajetsua,
donostiarra berez.
- 9/ Idiakez bezela,
zan gizona abilla
Mutrikuarra Kosme Txurruka,
Tragalgarren illa.
- 10/ Eskolak egiña zan
don Pedro Viteri
jaio zanari eta gañera
beste bost erriri.

- 11/ Estatua zioten
egiñ Arrasate'n,
goguangarri ondorengiak
izandu dezaten.
- 12/ Legazpia'n dutenak
alkate nagusi,
Viteri'k bezela estatua
ez al du merezi?
- 13/ Redentore berriyak
ditugu aspaldiyan:
Kredua ez dakitenak besteri
erakutsi nayan.
- 14/ Moda berrien billa
dotore jazteko,
aurrik izaten badute eman
besteri azteko.
- 15/ Federik ez duanak
biotza du zurra,
zitalkeriya ta mingañian
ugari gezurra.
- 16/ Asi Santurtze'n eta
Ondarrabi'raiño,
arraunlarik obenak izandu
gera oraindaño.

- 17/ Aurten lenbizikua
da Ebro aldera
Donostia'tik eraman duten
sedazko bandera. (1)
- 18/ Traiñeruak igualak
ez badira neurritz,
konbeniko da kanbiatzia
jokatzian berriz.
- 19/ Dira arraunlariyak
ontzi ariñian
fama dutenak itxaso bare
olatu gabian.
- 20/ Bandera bat da eraman
dutena oraindik,
San Nikolas'ek geiago ditu
ekarriyak andik.
- 21/ Gora Ondarrabitar,
San Juan bestia,
Aita San Pedro, Loiolatarra
eta Donostia.

(1) Emen esaten dana, nola artu bear da? Ebro aldetik ez da sekula Donostiara arraunlari-talderik etorri. Mendarok, guk uste, Euskalerritik kanpora esan naiko zuan. Ta, Donostitik Erdalerrira, 1945 urtean joan zan lenengo bandera, oker ez bagaude. Pedreña'k eraman zuan. Ala, 1945'ekoak izango dira bertso auek.

22/ Traiñeruak astunak,
alperrik nekatu,
ariñaguak egin zazute
eta ongi entrenatu.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»;
Imanol Laspiur, Eibar.

(1946)

«BERTSUAK TXIT KOMENI...»

- 1/ Bertsuak txit komeni
dirala ustian
milla beatzireun berrogei eta
seigarren urtian.

- 2/ Dalako elgoibartarren
santu debotua,
Bartolomek ain ikusgarriya
du monumentua.

- 3/ Fundatu ziotela
dira seireun urte,
arrazgeroztikan Bartolome
adoratzen dute.

- 4/ Aguztuak ogei ta lau
dituan egunian,
festak izango dira Bartolo-
meren izenian.

- 5/ Benetan esaten du
Eusebio Mugertza'k:
Ongi portatzen danak merezi
ditu alabantzak.
- 6/ Ez duala izango
iñork ere kalte,
Mugertza jauna dan bitartian
erriko alkate.
- 7/ Daki ez diradela
ontzaren ujuak
Jesus gure Redentoriaren
amar konsejuak.
- 8/ Nik erantzungo diot,
iñor bada galdez,
sendakiñ jaun onaren aitona
zala Joxe Andres.
- 9/ Makiña bat elbarri,
bestek eziñ arren,
almena izanik, sendatu izandu
ditu Elgoibarren.
- 10/ Ona borondatia
bere biotzian,
erritarrak debalde sendatzen
ditu miñ artzian.

- 11/ Besterik ez bezela
saiatzen da ori,
mesere dezaten erakusten
basarritarrari.
- 12/ Don Pepe Begiristain
ona sendakiña
dalako, neri sendatu ziran
sabeleko miña.
- 13/ Eriotzak'orduan
ez dute damuko,
zergatik meseriak askori
egiñak diralako.
- 14/ Festak ziran Mendaro'n
Santa Ana egunian,
zer gertatu zan esan ziraten
biyaramunian.
- 15/ Eskubidea kendu
nai Antoniori,
antzemango niokela uste det
zergatik zan ori.
- 16/ Dan bezela illoba
neria Mugertza,
ez al zekiten Elgoibarr'ena
dala Garagartza?

17/ Kopa eta premiyua
ditu irabazi,
arrazoi gabe parte artzia
nai arren galazi.

18/ Ala ere gorroturik
ez diola iñori,
ditu anaiak Fermiñ, Periko,
eta Joxe Mari.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»;
Elgoibar'ko Antonio Arrillaga jauna zana.

«IÑORI GORROTURIK
IZAN GABEKUA...»

Doñua: «*Ni berriz ostatura...*» (1)

1/ Iñori gorroturik
izan gabekua,
jatorriz borondate
guziz onekua,
meseriak besteri
asko egindakua,
nor da gizona gutxi
diran modukua,
España guzia
onratutakua?

2/ Legazpia izanik
bere jaioterri, (2)
toki illun txiki bat
auzuan lanteri;
ikasi ofiziua
zuan rementari,
langille askorena
gero agintari,
egiña da mesere
makiña besteri.

(1) Bilintxen Potajiarena alegia.

(2) Patrizio Etxeberria jauna zana.

3/ Inguru aietatik
len bezela oiñez
orain ez dira juaten,
baizik burtariñez,
saiatzen diralako
beren alegiñez,
anparua dutela
erortzian miñez,
borondatia izanik
biotzian gaiñez.

4/ Jatorriz borondate
ona dualako,
askori meseriak
egiña dalako,
arrokeriz kontari
ez dabillelako,
alkate jaun danari
bizi guzirako,
eriotza orduan
etzaio damuko.

5/ Gezurra egiaren
ordez mingañetan,
negarrez malkurikan
ez begi bietan,
gertatu da lanteri
beste geienetan;
naiz bere langillia
saiatu benetan,
jornal txikiya opa,
gañera errietan.

- 6/ Bergarako semia
Eleiz Jaun Barrena,
Donostin ezagun det
izanik ordena,
dakiana kunplitzen
gure Jaunarena:
izan arren txintxua
edo nabarmena,
errukitasuna du
pobriaguarena.
- 7/ Arnobate'n jaio,
Elgoibarren bizi (3)
elbarriyak sendatzen
zuanak ikasi,
dituala meritu
asko irabazi,
langille askorena
gañera nagusi;
orla saiatzen danak
onra du merezi.
- 8/ Gorabera izan oi
da bizimoduan,
aukera danak iñork
ez ditu munduan;
ibilli gabe erdi
txoruen moduan,
ilusio geiegi
degula buruan,
nork ongi opa digun
dezagun goguan.

(3) Antonio Arrillaga jauna zana.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»;
Kaitano Lizarribar, Alzo-muño.

(1950)

«EZ BEZA IÑORK DUDARIK...»

Doñua: «*Cuando yo sea alcalde...*»

- 1/ Ez beza iñork dudarik,
ditu Gipuzkua'k
alkate jaunak larogei t'amar
zorionekuak.
- 2/ Nai ditugula oitura
txit antziñakuak,
senideak ditugula euskaldun
Naparrua'kuak.
- 3/ Euskeraz erakutsi
lenbizi aurrari,
deabruaren atzaparretan
ez dedin erori.
- 4/ Jakin bear du nola
ogiya irabazi,
zabarkeriyan ibilli gabe
txukun dedin bizi.

- 5/ Milla beatzireun berrogei ta
amargarren urtian,
Euskal Festa ederrak izandu
dira Donostia'n.
- 6/ Abenduak ogei ta bat
zituan eguna,
merke lukainka-muturra ta ogi
txuriya biguñā.
- 7/ Gros deritzen diogun
pillota-tokira
inguraturik, pozak txorätzen
jende asko begira.
- 8/ Txartelak ziradela
diruaren ordaiñ,
ori gabe festarikan iñun
ez da ikusten oraiñ.
- 9/ Ttunttuna eta txistua
ta filarmonika,
ta kantariyak solfeua ta
lasaia birika.
- 10/ Bertsolariyak iñun
ez bezelakuak;
dudarik gabe, gera euskotarrak
buru argikuak.

- 11/ Neska-mutill gaztiak
dantzán ondo egiñ,
txepetxak Maiatzian bezela
oiñak ariñ-ariñ.
- 12/ Bederatzi pareja
onak ziran, baña
lenbiziko premiyua eraman
dute Andoañ'a.
- 13/ Dudarik gabe zala
juezen baimena:
txistularietan Bergara'kua
bandarik onena.
- 14/ An ziran bertsolari
danetan onena,
juzgatu zutena oiartzuarra
Jose Mitxelena.
- 15/ Jesus eta Gabriel,
juez asko jakiñak,
ochotes edo kantari onenak
ziran kaxkariñak.
- 16/ Neska gazte politik
estimaziyua,
zartxuaguak zuten begira
murmuraziyua.

- 17/ Merkia ez arren gauzak
duten preziyua,
indi-oillarrak bezin dotore
ostentaziyua.
- 18/ Ezkontzeko izan arren
askok desiua,
ezin billatu dutela iñun
abitaziyua.
- 19/ Jartzeko esaten diote
agintari jauneri
kontribuziyua Euskal-Erriko
mutill zar daneri.
- 20/ Ezkondu nai al duten
dituzte orain galdez,
zapateruak Xeledonio
eta Joxe Andres.
- 21/ Igandian mozkortu,
jai astelenian,
zintzotuko zerate ardua
merkatzen danian.
- 22/ Ardua erango degu
iñun bada matsik,
zuek eskuan dezuten poltsa
geienian utsik.


Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería»;
Fernando Artola «Bordari», Ondarrabia.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Labayen*: Malentxo alargun! (*Aitua*)
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak.
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria.
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.

33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa (1-I-1965)*. (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967)*. (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.
84. *M. Matxain*: Uste gabea.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.

- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*).
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria.
92. *I. Alkain*. — *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak.
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena.
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972.
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurrak.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.



AUSPOA
LIBURUTEGIA